

EUSKERAZAINTZA

EUSKERAREN ERRI AKADEMIA

XXXI Zenbakia.

1995

Jorrella-Ekainilla

AURKIBIDEA

Orr.

Esaerak.- Solozabal tar Paulin (Barruko azalean)	
Euskalerrri Euskalduna? Bai, denak ados baina zein euskara ereduarekin	1
Euskera Irakasketan.- Zatarain dar A.	28
Mila pezetatako papera.- Zatarain dar A.	32
Aita Erroman Bera'tarra ta euskara.- Latxaga	33
Guda ondorengo Euskal Olerti Giroa.- Aita Onaindia	38
Bizkaiera.- Gotzon Garate	44
Euskal-izenak erdiaroko idazkeran.- Latiegi tar Bixente	45
Ola gizon eta burniaren abestia.- Umandi	52
Antxoa eta itxas-errietako esaera batzuk.- Zubikarai tar A.	54
Aldian eta edestian barrena.- Egaña tar Gotzon	57
Euskal sinismen zarraren jakintsua: Anes arrinda albisu.- Latxaga	60
"Diario Vasco" izparringiaren il-txartelak: Latxaga	62
Esaldi jatorrak.- Oñatibia tar Manuk jasoak (Kanpo eta barruko azalean)	

Zuzenbideak:

**GETARIA 21 - DONOSTIA
C. LARREATEGI 14 - BILBAO**

ESAERAK

- 1.- Anka ariñak eta burua ariñago, dantzan obeto daki artajorran baiño.
- 2.- Atzerri otso erri.
- 3.- Goiz guztiak dabe euren arratsaldia.
- 4.- Asarrearekin gauza on gitxi egin oi da, patxadearekin bear dan guztia bear bezela.
- 5.- Urrutiko eltxea urrez, etxera orduko lurrez.
- 6.- Naikeriak edertzen ditu gauza itxusiak.
- 7.- Urrutira ezkonkntzen dijoana, edo da engañatua edo engañatzera doa.
- 8.- Bakoitza bere zoriak bizi dau.
- 9.- Non da nire gogo, an da nire zankoa.
- 10.- Urdaia ta ardoa urtekoa, adiskidea urteetako.
- 11.- Zureak egin eban, au larria.
- 12.- Udazkeneko be-abian ez dok umerik azten.
- 13.- Dagonean, bonbon, ta eztagonean egon.
- 14.- Eskerrik-asko, Mari oillazko salda gitxi ta okela asko.
- 15.- Mertixkaren lorearen ederra barruan dozu azurra gogorra.
- 16.- Neguaren ondotik dator udea.
- 17.- Ametzak eder azala aritz gazteak bezela.
- 18.- Armarioan sagua aren guardia katua.
- 19.- Urte Barri, zoroak igarri.
- 20.- Emazte zurra, bere senarraren aintza.
- 21.- Irakatsia maite dabenak, jakintza maite dau.
- 22.- Gizon zurrak estaldu egiten dau bere jakintza; burugabeak bere tentelkeria iragarten dau.


Solozabal tar Paulin

Laguntzalleak

Gipuzkoako Aldundia



Eusko Jaurlaritza



EUSKERAZAINTZA

I.S.B.N.: 1132-1318

Legerako Gordetza: BI-1928-87

Konponketa: Flash Composition, S.L.- Bilbao

EUSKALERRI EUSKALDUNA? BAI, DENAK ADOS BAINA ZEIN EUSKARA EREDUAREKIN?

(SARRERA)

Azken EUSKERAZAINTZA'n (XXX zenbakia), 1.994'ko Abenduaren 1-an Nafarroako Unibertsitate Publikoan Euskaltzaindia eta Euskerazaintzaren artean, Arruatzu'ko batzuen eskabidez gertu zan mai inguruaren berri eman gendun.

Euskaltzaindiaren izenean iru onek agertu ziran: Miren Azkarate, Patxi Altuna eta Xabier Amuriza jaun andreak.

Euskerazaintzare aldetik: Manu Oñatibia, Martin Olazar eta Asier Etxaburua jaunak.

Zoritxarrez entzuleen berotasuna igarri ba zan ere, abots-zabaltzalle eta entzungarriak ez ziran egoki gertu ta orrela kasetean jazo zanak akatsak ditu. Alaz eta ez da gaitz konturatzea zetatik zijozen galdera eta erantzunen utsuneak.

Gure aldetik alik zeatz eta zintzoen jaso degu kasetean ulertzen dana eta pozik agertzen diegu gure aldizkariko irakurleei.

EUSKAL-HERRI EUSKALDUNA? BAI. DENAK ADOS. BAINA ZEIN EUSKARA EREDUAREKIN?

Gaurko Euskara Batuaren eredua egokiena al da? Bizkaiera eta Xiberuera haintzakotzat hartuak dira? Euskarak batasun baten beharrik ba al du? Betiko Euskara, Euskara herrikoia bizitza modernorako baliagarria suertatzen zaigu, hala gaurkotu eta egokitu beharrean daukagu?

EUSKARA BATUA - EUSKARA HERRIKOIA BIAK POSIBLE HALA BATA BERTZEAREN KONTRA

Guzti honetaz aritzeko mahainguru bat prestatu dugu EUSKALTZAINDIA eta EUSKERAZAINTZAREN artean.

EUSKALTZAINDIA:
- MIREN AZKARATE
- PATXI ALTUNA
- XABIER AMURIZA

EUSKERAZAINTZA:
- MAÑU OÑATIBIA
- JOSE M. LATXAGA
- ASIER ETXABURUA

DATORREN ORTZEGUNEAN, ABENDUAK 1
NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOAN,
ARRATSALDEKO 7-tan, 08. gelan.

UDAL EUSKARATALDEA

Batzarreko zuzendaria. Aurkezpena

ez dutela entenditzen,

ori ez dela euskera, norbait euskera batuaren kontra, ulertzen ez dutelako, bueno eta beste aldetik or, au igual gitxiago gertatzen da, baiña nik amari igual esaten diot, Arratzuko euskeran nola esaten den au edo esaera zaar au nola den, ama saiatu ta amak askotan esaten dit ba, aaztuteko erriko euskera, beraiek gaizki itzegiten dutela, zatarra dela Arratzuko euskera, eta jatorragoa ta obeagoa dela batuaz itz egitea, ez?

Nik uste det auek, ba adibide estremoak dira, bata euskera batuaren kontrakoa batetik eta euskera batuaren aldekoa bestetik.

Nik pentsauko nuke, ba dagoela bien arteko bide bat bai bakoitzak bera euskera batzeko ta gero beste bat batasun minimo bat egon dadila euskera eta euskaldunen artean.

Ea, itzaldunekin bixkat gauzak argitzen ditugun,

Aurkezten asiko naiz, nere eskubian, or Euskerazaintzakoak daude, Asier Etxaburua, Zuzenbideko ikaslea baita atzerritar izkuntzak ikasten ari da, pixkat gaztea da ta ondiño ikasten dabil; bere ondoan Manu Oñatibia, bera zea da, Euskerazaintzako idazkaria, oiartzuarra, gipuzkoakoa ta nire ondoan, eskubi aldean, Martin Olazar, Euskerazaintzako lendakaria, bizkaitarra, Izkuntz Erromanikoetan baimendua edo lizentziatuz, esaten da bietan, eta Bizkaian argitaratzen dan ZER aldizkariko zuzendaria.

E? Ez da entzuten?

Berriz asiko naz,

Nere ondoan Asier Etxaburua

Entzuten da? A! Parkatu

Ba, nere eskuiñean Asier Etxaburua, bera ibarratarra da, gipuzkoarra, Zuzenbidea ikasten ari da, ta baita atzerritar izkuntzak; bere ondoan Manu Oñatibia, Euskerazaintzako idazkaria, oiartzuarra; ta nere ondoan, Martin Olazar, Euskerazaintzako lendakaria, bizkaitarra, Izkuntza Erromanikoetan baimendua edo lizentziatua, berdina da, eta Zer aldizkariko zuzendaria.

Nere ezker aldean, Amuriza aski ezaguna bere bertsolari munduan baina gaurkoan etorri zaigu beste gai batzutat aritzeko, bizkaitarra; bere ondoan Patxi Altuna euskaltzain osoa dena, Deustuko Unibertsitateko irakaslea euskal Literatura eta autore zarretan, azpeitiarra sortzez baiña Donostian bizi dena; nere ondoan Miren Azkarate, Euskalerriko Unibertsitateko irakaslea, euskaltzain osoa baita be, ta euskera teknikoa ematen duena. Donostiara.

Denok ezagutzen degu, pixkat, igual, Euskaltzaindia zer den eta zer den bere eginbidea, agian, Euskerazaintza ez da ain ezaguna, agian egingo baze-nuke laburki noiz sortu zen, o zergaitiak o..... jendiak jakiteko, o igual gero ikus daiteke....

OÑATIBIA.- Ba, Euskerazaintza nola sortu zan?

Dakizuten bezela euskerak ikaragarrizko aldaketak izan ditu azkenengo eun urte auetan batez ere, idazkeran; gure aurrekoak denak eskolatuak ziranak bakarrik idazten zuten eta eskolatu oiek beren ikasketak edo frantsezez edo gasteleraz egiten zituen. Zer gertatzen da? Ba, Euskeraz badirela itz-ots batzuk ez gasteleraz eta ez frantsezez esaten ez direnak, eta orduan ikaragarriz-

ko nastia sortu zan, esate baterako, tx erderaz ezta frantsezez ere, ta ez tz, tza, tze.... ta orduan idazle bakoitzak bere erara idazten zuen, ez dakit au ententitzen dezuen baina este baterako Aita Aranak, x jartzeko s bat eta gainean rayatxo bat, marratxo bat, Azkuek ortaz gain z marratxo bat eta 3, beste batzutan berriz s, x, s, z, eta marratxo bat goian eta, Kanpion'ek berriz, ch bezela jartzen zun, eta holaxe, bai x, bai ch, bai j eta jakiña orrela jarraitzik ez zegoala ta Kanpionek esan zun bein, au ikaragarritzko anarkia da, au nai ta nai ez konpondu bearra da ta, orduan lendabizi itz egin zuana Kanpionek baiño lenago Larramendi izan zan.

Larramendik oiñarri batzuk, ez berak asmatuak, izkuntza guztietan sartu oi diran oiñarriak adierazi zitun, eta orietako bat zan itz-ots bakoitzak, bere irudi bat, itz-ots edo grafema o fonema eta itz irudi edo fonema, erderaz esanda "Cada fonema tiene que tener un grafema". Era onetan asi ziran bakoitzak bere lanak egiten eta Kanpionek esaten zun, al dala beintzat ots bakoitzari irudi bat baiño geiago ez jartzeko eta oiukatzen ez ziran irudiak kentzeko, eta orrela, esan bezala, urtetan ta urtetan joan ziran eta sortu zan Sabino Arana.

Sabino Arana oso gizon azkarra, argia izan zan, ta orrek lendabizi egin zuana zan, aurretikan idazten zuten guztien idazkerak artu eta paper batian jarri, aiek eman izan zuten bezela eta berak, bere kabuz, asmatu zuen idazkera bat, ain bikaiña ta ain ona, idazkera ortan berak esaten zitun araudiak bete ezker akatsik egiterik ez dago. Ori da "Ortografía perfecta" esaten dana, batek esaten duna beste danak ontzat emotia ez da erreza eta bakoitzak bere aldetik jarraitu zuen urte mordo baten. Onek, 1896 urdan, egin zun eskintza au, 1901 frantzetarrak eskatuta billera bat egin zan Euskalerra guziko arduradunarekin eta lenengo billeran, Hendayan egin zanian, zerbait aurreratu zan baiña oso gitxi, bigarrena egin bearra etorri zan urrengo urtean, Ondarrabian batzuk alde batetik eta besteak bestetik diela, ez zan bigarren billera ori egin. Orrelaxe jarraitu zan eta Sabino 1903 urtian il egin zen.

1918an Euskaltzaindia sortu eta andik bigarren urtera 1920an, Sabinok egindako eskeintza itzez-itx ontzat eman zuen Euskaltzaindiak. An ch nola jarri bear zan tz, ts, j nola jarri bear zan

Danak abezedario baten, orrelaxe Euskaltzaindiak ontzat eman zuanian danak bide ortatikan asi ziran ta gerra sortu arte idazle denak edo geienak beintzat idazkera orretantxe idazten zuten.

Gerra etorri zan, naastu zan, eta orrelaxe jarraitzen zutela, beno luze samar badijoa moztu egingo det. Ez? Gerra etorri zan, Frankok ez zuen nai euskeraz ezer idazterik, euskal kultura dena ankapian artu zuan gizon orrek eta beintzat burruka sortu zan. Eta burruka sortu zanian, ba gaztiak asi ziran, batera ta bestera polizieri igesika, jende asko Gipuzkoatikan eta Nafarroatikan batez ere eta Bizkaitikan ere bai, Donibanera, Hendaiara alde egin zuten. Donibanera alde egin zuten eta ara alde egin zutenean, lanean beti bezala ta ideal batzuk bazituzten ta orduan, Donibanen bazegoen Euskadi Buzu batzarreko buru izan ziranak, EAJko Luis Solaun gizon agurgarri bat eta orrerl esan zioten, emen mutil gazte asko dago beste aldetikan etorriak, lanian dabilta ta oiekin artuemonetan jarri bearko genuke, zer deritoxo?, ta bai, bai,

Gazte oien batzorde bat joan zan aiekin itzegitera, zertan zeate, guekin lan egin na dezute?, nola zeate?, ta euren erantzuna auxe izan zan: Guk EAJkin lana egitea naj badezute bi baldintza jarriko ditugu, bat Jainko ta Lege Zarra

elburu ortatikan Jainkoa kendu ta gero gizarte alorrean, sozialista bezala, agertu.

Jakiña, EAJrentzako eskabide oiek ezinezkoak ziran ta orduan bakoitzak bere aldetikan jarraitu zun.

Ta berealaxe sortu zan, berak esaten dute reboluzio kulturala. Erreboluzio Kulturala, zer? mundu guztian egiten diranetan idazkera beti ezaugarri bat izaten da; ezaugarri bezala h idatzita dago Aranburu Altunak bere literatutan argi ta garbi esaten du: "gure erreboluzioaren sinbolo plastikoa h da". Ortik sortu zan, berealaxe, Baionako batzarra egin zan Baionako ortan asmo oiek aurrera bultzatzen asi ziran, batzarra oiek Euskaltzaindiaren kontra edo basterretik, Euskaltzaindiarekin batian, baizikan aparte egin zan. Andikan aurrera jarraitu zuten Ermuan izan zuten beste billera bat, beste billera ortan jendla pixkat bat tajutu o desiatu eta bizitu zutenean etorri zan Arantzazuko batzarra. Arantzazuko batzarraren berri, bear bada jakina dezute, oso batzar zaratatsua izan zan, ta batez ere, zarrak baztarrea, zarrak kalera, zarrak kanpora ta olako gauzak esan zian, ta orduan begi onez ikusiko zala h ori ibiltzia, bi bokal tardan ta geiago sartu bear baldin bazuten ere aurrera, ola jarraitu zuan, ta guk Kardaberaz Bazkunion ta Euskerazaleak Bazkunion gure billerak izaten genitun, ta argi ta garbi ikusten genuen ikaragarrizko aldaketa zetorrela, idazkera kontu ortan ta orduan esaten gendun, emen zerbait egin bearra dago, zerbait egin bearke degu; ortan etorri zan Bergarako Batzarra.

Begarako Batzarra etorri zan eta guk egitaraua ikusi genduanian, auxe esan genuen, emen Arantzazutikan amar urtera egindako lanak aztertu egingo ziala uste zan eta azterketa lanik ez baizik egindako guztia ondo zegoela ta aurrera ta aurrera bultzatia, ta olaxe gu bost lagun, gure taldetikan azaldu ginen Bergarako batzar ortara. Bergarako batzar ortan lenengo egunian Mitxelenak itz egin zun ta Mitxelenak esandako adibide bat edo arrazoi bat auxe izan zan: Pelota partidu batian gorrien alde edo urdinen alde jokua aukera egin bear dan bezelaxe guk aukera bat egin bear genuen ta bi talde ta batu onen. alde gaztedia datorrela ikusiz, bide ori artu degu. Urrengo egunian itza nik eskatu nuen, ta nik esan nion: Mitxelena jauna, zuri iruditzen al zaizu, ainbeste garrantzia duan arazo batian, ainbeste istillu sortu dituan alor batian, pelota partidu bat, an baten alde edo bestien alde jokatzen dan bezela erabakia artu litekela? ez al litzake ohea izango patxadan artu, bear diran azterketak egin, erriari galdetu, erriakin itz egin? ez nuen erantzunik izan.

Joan zan billera aurrera, aurrera, eta jakiña guk argi ikusten gendun, gu an alperrik geundela, guk ez gendula an azterketarik egiteko biderik batetik eta bestetik ura eginda zeola, eta alako batian, azaldu zan, jaiki zan gure taldeko bat, Bixente Latiegi, ta danen aurrean auxe esan zien: Emen argi ta garbi ikusten dana auxe da, Euskaltzaindia ez dela euskeraren zaintzaillea, euskera batuaren zaintzaillea bakarrik eta guk erri-euskera umezurtz itxi nai eztegunez, oraingoz esaten dizuegu guk beste Akademi bat sortuko degula. Garai ortan sortu ziran txantaje bat zala, ta ez dakit zer zala ta orduan Latiegi jaunak esan zien ori gero ikusiko degu eta era ortan sortu zan Euskerazaintza, gero gauza geio badira, baiño nik bakarrik ez det itz egingo ta

AZKARATE.— Beno, erantzuteko eskatzen didate niri, nik egia esan, beste nunbaitetik ikusten ditut gauzak; Arantzazukoa ez nun ezagutu, oso ume koskorra nintzan ni, beraz, gero zenbait gauza entzun ta irakurri ta eginez jakin ditut gauzak. Bueno, h'arena zer izan dan ta zer ez dan izan nik uste dut eztu-

la merezi horrelako planteamentutan sartzea arrazoi batengatik, standarizazioa ta azken baten, batua esaten denean standarizazioaz ari gera hitzegiten. Nik uste det badela garaia, nola esango nuke irizpide teknikoetan oinarrituz gauzak planteatzekoa, ba bueno, nik badakit, Aranak, Sabino Aranak, Lecciones de Ortografia horretan zein proposamen egin zuen ta badakit hegoaldean h'a edo hizki mutua orain umeeek eskoletan esaten duten bezala, idazteko oitura aspaldi galdu zela idazleen artean, baina egia da iparraldean, hori ez dela sekula galdu eta egia da aldi berean Euskaltzaindia sortu zen une beretik Iparraldeko euskaltzainak tartean izan zirela, ta egia da, aldi berean, XIX mendearen amaieran, XX mendearen hasieran Iriart-Urruti zarra eta Laffitte bera, eta Etxepare, Joan Etxepare, biak zarra nolabait esateko, eta gaztea, guztiek h erabilten jarraitu dutela eta Iparraldeko tradizioan, etengabe eta herri-izkeraren adierazgarririk baldin badago zuetako batzuk ezagutuko duzue Iparraldean, oraindik ere argitaratzen den Herria aldizkaria, Lafitte jaunak urtetan zuzendua eta orain Emile Larrek zuzentzen duena h bertako hizkeran agertzen duela eta orduan herriko hizkeraren kontra egitea ez dakit, hor azken batian h'aren kontuan zentratu nahi bada auzia, standarizazioari edo batasunari begira nahi baldin badezue oso kontu teknikoak izaten dira, badira euskalki batzuk hots bat ta ez hitz bat, fonema bat gordetzen dutenak, hori idazten dutenak eta beste zenbat euskalki fonema ta idazkera aspaldi galdu zutenak, ta batasunari begira nik uste dut gaur ere horrela jokatzeko delako, aberastasunaren alde jokatu da beti eta euskalki diferentiek batasunari eman dezaiokenari begira ta batasuna duenak ematen duela eta ez duenak hartu, hortik aurrerakoak ez dakit, Bergaran aztertu zen edo ez, ordurarte gertatu zena, nik dakidanez txostenak aurkeztu ziren, bat baino gehiago, Arantzazutik eta Bergararteko tarte hortan, liburutan zer gertatu zen, ta jendeak Euskaltzaindiak garai hartan eman zituen gomendioak jarraitu zituen ez zituen, datuak hortxe daude Euskeraren ale osoa duzue 78 Bergarako batzarrak argitaratuta eta Luis Haranburu-Altunak eta Andu Lertxundik eta gainerakoek aurkeztutako txostenak, idazleak, euskal idazleak, ordurarte zeuderi neurrian testuetan eta abar zenbat jarraitzen zen eta honen arabera erabaki zen aurrera egitea, hor ez dakit ba, gauzak nola ikusten diren ezta?

OÑATIBIA.- Lapurdin h erabilten zela ta, ori egia da, baiña 1920an Euskaltzaindiak Sabinon abede ori, abezedario ori onartu zutenetik, emen Ego Euska-lerrian danak erabat bat ere h'rik gabe erabilten zuten. Sabinok beti esan zun h oiukatzen dutenak erabili dezatela, beraz, iñor ez da arritzen mugaz bestaldikan h erabiltziak, batez ere oiukatzen duten lekuetan.

OLAZAR.- Nik eskuliburuari, testuari begira esan nai nuke, geuk bere h-rik gabeko eta bizkaierazko liburuak argitaratuta geunkazan baiña ez ziran onartu eta laguntzarik ez zan emon ordaintzeko eta liburu orreik bota egin bear izan ziran, laguntzarik emon ez ebelako ta gaiñera ikastolatan eta eskolatan onarzerik ez egoalako.

ARRUAZUTAR BAT.- Badirudi euskara batuaren alde eta kontrako jarrerak daudela, nik galdetu nahi neuke batuaren alde daudenen artean, ia gaurko eredu ontzar artzen duten o zerbait kentzeko jarriko luketen eta kontra daudenei ba, zein eredu eskeintzen digun euskaldunei, besteoi, batua ez baldin bada zein eredu edo ze.

AMURIZA.— Zer nahi dezue, bertsoan egitea?

Bai.

Ba, nire buruan beintzat ba, hemen planteatu dena, azterketa ez izan arren, batuaren barruan ere, batuan kokatuta gaudenon barruan ere, ba hor ikusten ditut oraindik arazo latzak, batez ere etorkizunera begira eta horiek interesatzen zaizkit eta egia esateko, ez nago oso baikor, 25 urte bete ditu batuaren kontzientzia edo arauak baina gehiago esango nuke kontzientzia, 25 urte bete dira, eta jakina 25 urte hauetan gauza asko egin dira eta asko aurreratu da, ni gogoratzen naiz, ba orain berrargitaratu den Adolf Huxley'ren liburua itzultzen ibili nintzenetik, orduan ba, ordutik onea, orain zuzenduta atera Elkar'ek argitaratu du, nik ez dot zuzendu, baina egin dute, orduan ba hori ez dot ukatzen nik egindakoaz edo lortu dugunaz poztea badagokit baina gehiago begiratzen diot falta zaigunari, eta nik oraindik, ba huts edo egiteko bide luzeak ikusten ditut, eta orduan ba, hor xehetasunetan sartu gabe, nik buruan dauzkat hola-ko norabide handi batzuk, baina xehetasunetan sartzeko ez baitira oro har hizkuntzaren kontu hau nahiko oso orokorrean hartu ezik, globalki hartu ezik, eta norabide baten hartu ezik, bagaldu gintezke ta halako gauza txiki xehe inportanteak, baina holako abiaduren eta helburu nagusietatik, hildo nagusietatik, kanpora doazenak, orduan ba nik hasteko, euskeraren egoera, ba, menpekotasunean datzala onartzen dugularik, hasteko, gaur beste modu modu batera planteatzen dot, orain arte beti pentsatu izan dugu euskera, espagnolaren eta frantsezaren menpekotasunean dagoela.

Nik, aspaldi, somatu dut Euskalerrriak diaspora handi bat daukala eta diaspora hori nagusiki inglesaren menpean bizi dela, menpean edo, nahi badezue menpean hitz gogorra bada inglesarekin batera, orduan Euskalerrria oso txikia izanik, oso txikia izanik, hiru hizkuntza handien artean bizi da, bat hori, orduan nik etorkizunera begira egiten duguna eta horretan hizkuntzan, ia-ia politikan besteko, ainako, kontsentsoa behar da, gauza askotan eta kontsentsu handi eta zabal bat behar da, baina kontsenso horretatik ataraten diran emaitzak nahi luke izan daitezkan baliozkoak, bai Iruñiarako, bai Donostiarako, bai Maulerako, baita Reno'rako eta Nevada'rako ere, eta nik nere familian ere, eta Bizkaian eta Nafarroan ere badakizue euskaldun asko dagoela diasporan hara hona dabilena, orduan ba lortuko dugun, ez dakit lortuko dugun, hizkuntza bat nagusi, hildo nagusiata joango den horrek balio izan dezala euskaldun guztientzat, guztientzat esatea, ez da izaten ba banaka, indibidualki, baina esparru hoietan, horrek zer esan nahi du? Egia da euskararen euskaldun gehienak espagnolaren esparruan daudela, baina lehen herri oso txikia izanik, halako euskera subespañol bat egiten badogu, orduan nik hori ez dut nahi, zeren nik nahi dudana da hizkuntza europarra, eta ez hizkuntza subespañol, horrekin ez dut gaitzesten, ez dut baztertzen, ez dut ukatze nolako zailtasunak eta eragozpenak dauden, eta eragozpenak gutxienez izango dira, hiztegi teknikoetan hitz internazionalak nahiz eta hor ere oraindik zer jorratu handia daukagun, baina hor akats nagusia edo hutsune nagusia edo zatiketa nagusia gero hizkuntza batetik, euskarara trasladatu diren hitzak, espaiñoletik, frantsezetik eta inglesetik, zeren ingelesez, nik badut osaba bat, eta harek ez du esaten gidatu harek esaten dau, eta harek esango ditu ingelesetik ekarri ditun hitzak, mordua esaten ditu ba txupeteari ingelesezko hitza esango dio, traktoreari, trakterra esaten dio eta ez daki erderaz, euskalduna da, artzain bat izan zen, orduan, hori egia izanik, ikusten dut ba, gaur badugula, alde batera tentazioa, ez dakit, ez ba gara-

matza, arlo guztietan sartu gara hizkuntza hau, arlo guztietan erabiltzea, hasi medio audiobisual, liburugintzatik eta denetatik, jakiña hor hartzen dugu danetik datorrena, orduan ba sail guztietan sartu gara ia-ia batera, eta hor ni itzultzaile ere izan naiz eta egokitzaile ere bai, askotan, sarritan, aurkitzen naiz desarmaturik eta orduan ba praktikotasunari begira ba tentazio edo inertzia bat dago hegoaldean euskera subespañol bat egitea, ta orduan ba gero ta distantzi handiago, ez hitz internazionaletan behar bada, ez hitz unibertsaletan baina hortik hiztegiak milaka ta milaka hitz ditu, eta guk erabilten dugun holako erderatik euskerarako hiztegia ba Kintana, Mugika eta abar, ba 40-50 mila hitz eta azepziotan badabiltza, ba hiztegi normal oso samar batek 200 mila behar ditu eta hortik falta diren guztiak nola antolatzen ditugu? ba, bakoitzak al duen modura. Orduan badago, ba korronte bat, nik uste dot gainera, nahiko ia esplizitoki esanda, ba, hemen egin behar dena, euskaldunik gehien dagoen tokian hura egin behar dela ta gero hegoaldean ere, orduan hirugarren maila baten badaude hegoalde hutsa, ba bizkaieraz eta egiten dogunak ba asko gara ta orduan euskalkietan, hegoaldea bakarrik hartuta ere, badago koska handia, nik holako ildo handietan planteatzen dut, eta azken baten, nik nahi dudana da, euskeraz egin, euskera herrikoia, hau da herritik datorrena, baina baita euskera teknikoa, kulta, internazionala eta internazional hortan, euskera internazionala Frantziaren edo frantsezen menpe bizi den edo ingelesaren menpe bizi diren euskaldunekin ulertzeko ta komunikatzeko modukoa eta orduan horrek esan nahi du behar dogula guxtienez, hizkuntza europarra, ez hizkuntza, ba ez dakit española edo subespañol, ez dut gehiago esango, ze bestela heme asko gaude hitz egiteko ta, nik holako frente handietatik, gero sail bakoitzean ba gauza asko daude, ta gauza txikiak, ta niretzako, ba egia esateko, ba niri gaur egun ba aozkatzea, ortografia hartuta dago ta nik egiten dut baina nik ez diot horri hainbeste garrantzirik emoten, ezta aozkatzeari, ez da azentuari ere, badaukat, baina nik hor ez dot kartutxo gehiegirik erreko, zeren hortxe dago, arinago, lehena-go, azpirago daude hor arazo sakonak lexikoan, batez ere, ba hiru hizkuntza nagusi hоек inposatzen ta sartzen dizkiguten, lexikoa eta euskera berak sortu dituenak, eta ba danak dira inportanteak baina prioritateak hartu ezker, hemen oraindik ez daukagu tresna ba erderatik euskerara halako batasun minimo handi oso samarra, ez 40 mila hitz bakarrik zeren honekin nik Dragoi Bola ba egokitu izan dut, ta Dragoi Bola egokitzeko haurren gauzak eta egokitzeko, hitz erdiak ez ditu erabiltzen inork eta hori da problema, ez ditu aurkitzen erabakita, ez ditu aurkitzen hitz xehe horreik, ez ditu aurkitzen beste hizkuntzatan erabagita daudenak eta orduan 40.000 mila hitzeko Hiztegitxo batekin eta hitz bakoitzean azepzio bat edo bi eta gero ba modismoren bat edo beste dakarrena, horreki ezin dugu egi eta orduan ba gehienok, asko beintzat horrela, kazetariak, itzultzaileak, egokitzaileak ta abar, eta orduan ba bakoitzak ahal duena egitean korronte nagusi orduan, euskera bixkat espainolaren menpeko egitea eta orduan nik nahi dut, eta oso zaila ikusten dot nik hor lan handia dagoela eta txarrena ikusten dut, eta gu pixka bat bizkaieraz ari garenok eta gehiago konturatzen gara, asko ez diralako konturatu ere egiten, uste dute gauzak oso ondo doazala, eta nola joango naz ni bertsotan ibiltzen naz batetik bestera ta alfabetatukoekin nik ez dot esaten Iparraldeko herritar soil batekin ulertzea zaila izatea ulertzen dut, baina hango alfabetatuek hemengo alfabetatuekin ezin ondo ulertu, ezin erre ulertu, hor problema grabea dago orduan, ez gabiltz, n; ez naiz ari herri xehe mailakin, badakit nik,

batek, nire amak, Lapurdiko batekin, Gipuzkoako batekin, bere mailakoekin, problemak izango dituala, ari naiz esaten Lapurdiko eta Zuberoko eta Baxenabarreko eta Iruñako eta Donostiako eta Bilboko alfabetatuak, hoiek dauzkatela problema ikaragarriak elkarrekin komunikatzeko, uste dut, gehiegi hitz egin detala, Barkatu, Barkatu.

ALTUNA.- Azken honetan ez nator bat, Amuriza, nik uste det Mauleko eta Bermioko eta Azkoitiko gizon ikasiek, gizon-emakume ikasiek gaur elkar ulertzen dutela euskeraz itz egiteran, gaur uste det ulertzen dutela, nik uste det Harixelar jauna telebistan mintzaten denean, ez kultoek bakarrik, entzuleetatik 80'k baino geiagok ulertzen dutela Harixelar jaunak dioena, ta Xarriton jaunak dioena, nik uste det eh!, ez dakit beste zerbait esan nahi duzun.

Nik uste det alde horretatik asko irabazi dugula. Jende xeeak ez du ulertzen elkar, ez Bermioko arrantzale batek eta Maule inguruko nekazari batek elkar ez dute ulertzen, baina hori Alemanian ere gertatzen da, Alemania Euskalerrria baino pixka bat handiagoa da, Alemanian ere, Munich'go ezikasi batek eta Hamburgoko ezikasi batek elkartzen direnean lenbiziko bizpairu egunetan ez dute elkar aditzen, ori izkuntza guztietan gertatzen da, denetan gertatzen da ori, bueno, gauza asko esaten ari gera, denetik pixka bat, nik uste det, hemen irakurri det euskera batuaren eta euskalkien artean gatazka edo orrelako zerbait, beno eta zer?, gatazka baldin bada zer? Gatazka? bai, ta?, euskara batua baino lehen ez al zen gatazkarik euskalkien artean? ez al zen euskalkien artean gatazkarik? ta gatazka dalako euskera batua utzi egin behar al dugu? Ba al da mahai honetan inorhori defendatzen duenik? Jakin nahi nuke, gatazka dala ta, euskera batuaren kontrakorik ba al da hemen iñor? Ta esango didate, ez. Ala espero dut. Esango lukete, euskera batu honen kontra gauda ez euskera batuaren kontra.

Gauza asko esan daiteke, Aizu, Azkuek euskera batu bat asmatu zuen eh! proposatu zuen gipuzkera osatua, ark ere izango zitun ba akatsak, aren kontra ere izango ziran ba Zuberoan ta Benafarroan ta izango ziren ba kontrakuak, ta pentsatzen degu hura, euskaldun guztientzat errez ulertzekoa ta erabiltzeko izango zela? Ez det uste. Gipuzkera osatua, osatuak esan nahi du, Amurizak len esaten zigun bezala, hitz batzuk hartu, igorri, emen esaten ez direnak, batetik eta bestetik artu, eta orrenbestez elkar ulertu? Batua? Aizu, baina Euskaltzaindiaren leenbiziko eguneko asmoa, erabakia, 1918ko Oñatin izan zan euskara batua egitea, eta Euskaltzaindiak egin behar hori bete nahi izan du. Batua, Mitxelena jauna buru zelarik, hor batek esan duen bezala, Mitxelena jauna buru zelarik, egin zen egin zen bezelakoa, hor daukazue argitaratua Euskeran eta gero Mitxelenaren Idazlan guztiak artzen dituzten bederlatzi liburukietan ere. Mitxelenaren ustez momentu hartan egokiena. H-a, h aitzakia besterik ez da kristauok, h-a kendu izan balitz ere, aditz sistema onartuko al zuketan h zela eta euskera batua nahi ez zutenek, aditz sistema niezaizuekeen, onartuko al zuketean? orduan eta horrelako beste asko, beraz h bakarrik ez zan onartzen ez zutena; euskera batua aspaldiko ametsa izan da, Leizarraga, Axular kexu ziren, errenkura ziren, euskera baturik ez zutelako, ta zein euskeraz beren liburuak idatzi ez zekitelako ta orregaitik esan zuen Leizarragak, oraintxe esplikatutako det eskoletan, ahalik gehiena guziei adieraziteari jarraiki izan gatazka eta ez edozeinleku jakineko lenguaie berezirik, jun da arrapazak; Leizarragak bere garaian, Iparraldeko hiru euskalkietatik batu antzeko bat

asmatu nai izan zuen hori izan zen bere helburua, Axular ere, hasiera-hasieran Beltran de Etxauzi liburuaren eskintza egin eta gero, euskaldunei egiten dien gutunean, horren kexu da, ze euskera erabili behar den, esaten du, hitz batzuk h, beste batzuk ^y beste batzuk ts, ez dakigu zeinbat hots nola iruditu arazi, ta Euskaltzaindiak nahi ta ezkoa zuen euskera batua, berriz diot, gatazkak direla ta euskera batua errekarra bota, ez, ez det uste iñor nahi duenik, beste euskera batu bat bat, zein? aber, zein? h erabat kendu? aizu 500 urteko bizia du gutxienez h'ek e! bosteun urteko bizia du, eta Iparraldekuak ere merezi dute, gutxi dira, bai, Lafittek momentu batian altxatu eta esan zuen Arantzazun "Euskaldunok, Iparraldeko euskerarenak egin du, ahaztu zaitezte gutaz, egizue euskara batua Hegoaldekoentzat, zuentzat, Iparraldia ez baita gehiago euskara biziko" esan zuen Lafittek. Ez genion kasurik egin, gizon pesimista zen batzuetan, Iparraldean euskara ez da oraindik hil, eta ez dakit, nik uste nahikua dela.

ONĀTIBIA.- Nere lagun Asierrek gero, Amuriza'ri erantzungo dio, onek esan duen europear izkuntzataz, baiño nik emen, ez dakit orri au zeñek egin duen, bertan azaltzen dan galdera bat Arantzazun eta Bergaran eta gaur egun Euskaltzaindian egin bearreko galdera bat: *Euskerak batasun baten bearrik bai al du?* Ori da lendabizi Euskaltzaindiak garai artan Arantzazun lendabizi eta gero Bergaran erabaki bear zuana, nik ordun Mitxelenari esan nion: *ez al zan askoz be obeto izango azterketa bilaketa sakon bat egin zer bear den jakiteko.* Zuek 10 urte oneitan ez dezute egin baiña au egingo dago, ta guk ein deu. Emen gertatzen dana auxe da: danak uste dute euskera, espaiñera ta frantsezera ta bezala izkuntza bat bakarra dala, baina euskera ez da izkuntza bakarra, euskera laukoitza da, bizkaiera; gipuzkera ta nafartera, lapurtera ta baxenafartera, bakoitzak, izkuntza bakoitzak, euskalki esaten degun bakoitzak, bere gramatika, bere iztegia, eta izkuntza batek ditun oiñarri eta legedi edo araudi guztiak, euskalki bakoitzak betetzen ditu, beraz, euskalki bakoitza euskera osoa da. Lau euskera oso izanik, lau euskera ojekin bat egitea, ez dakit, pekatu mortala edo esan.

Batetikan eziña, bestetikan Amurizak esan dun bezala bear dan bezela ondo egiten oso zaila litzake.

Emen esan da alegia, erri xeeak, entenditzen ez duala ta eskolatutako lapurdikoak eta gipuzkoak alkar entenditzeko modurik egin ezkeron naiko litzakela, nik 25 urte luzetan radiotik itz egin det, talde bikain bat sortu gen duen, M.^a Dolores Agirre Euskal Pizkundeko zuzendaria, Iñaki Eizmendi "Basarri" bertsolari jatorra, euskaldun jatorra, ataundar bat beterinarioa Zuru-tuza eta ni, beterinarioa.

Guk 25 urtean, Donostiko Irratitik itz egin degu, eta irrati ori entzuten zuten ez erri xeeak bakarrik, erri xeeak, erri eskolatuak eta danak entzuten zuten. 100.000 lagun baiño geiagok entzuten zuten garai artan gure irratsaioa; entzuletako bat egunero-egunero, utsik egin gabe entzuten zuena, Xalbador bertsolaria zan, ta bein olaxe berarekin izketan negoala, esan nion:

- *Bueno zu Gipuzku aldian ta asko ibiltzen zea ta gipuzkera ulertzea oso erreza da, baiña zure inguruko errikoek gure irratsaio au ulertzen al du?*

- *Nola ulertu ez, bai, euskera ez da ba? Guk ez degu itz bakar bat ere gal-tzen. Zuek esaten dezuten guztia, itzetik-ortzera danak entzun ta ulertzen ditugu.*

Gernikako jendiari galdetu eta Gernika ta Markina ta ingurukoei ta, gure

irratsaioak entzuten ornen dituzte. Bai, utsik egin gabe, eta ulertzen al dezute? Erantzun berbera.

Beraz emen, euskera ondo ulertuko baldin bada, bi gauza bear dira, euskera ondo oguztu, ondo aozkatu, ondo esan, nik esaten badet iñok ez du entenditzen, baina nik au bera manso-manso esaten baldin badet eta izkera onian esaten badet, nork ez du entenditzen izkera onian esaten badet, euskaldun guziak entzungo eta ulertuko dute, beraz, erri xeea izan edo eskolatua izan, emen euskera bear det eta emen egiten den galderari erantzun ondoren, auxe bakarrik esango det, euskera batuak iñoiz ez du lortuko euskal sena bare barruan izatia, euskal sena, euskal anima, euskal anima esaldietan dago, eta esaldiak jasotzen 50 urtian jardun zan Aita Justo Mokoroa, Aita Justo Mokoroa, nik arreman andia izan nun, ni beterinarioa naz izatez, eta baserri baserri ibiltzen nintzanean, alako esaldi jatorrak entzuten nituanian jaso egiten nituen eta 2000 esaldi jator jasota nituala nire anai zanak Jon'ek esan zian, zergaitik ez dizkiozu eskintzen Aita Justo Mokoroari? Joan nintzan, erakutsi nizkian eta 2000, nik esandako danak, bere liburuan barruan sartuta ta bi liburu mardul egin ditu euskal esaldi jatorrakin bakarrik, eta au ondo entzun, beak neri esandakoa, eta ezta edozein Justo Mokoroa: Alegiñak egin ditut batuan idatzitako liburuetan esaldi jatorrak biltzen, batea jo ta bestea jo, ta sinisten erreza ez bada ere esaldi jator bat bakarrik ere ezin jaso izan det, ori da euskera batua, baina ori ez da euskera.

Orain onek erantzungo dio.

ETXABURUA.- Bueno, Amuriza tar Xabier'ek zera leporatu die talde batzuei edo orain azaltzen dian joera, ez dakit nolako subespañol moduko bat edo sortzen ari geran, nik subespañol eta subfrantseza joera andia oraingo batuan nabaritzen det eta adibide batuzk eman nai ditut, beti aipatzen ari gera ba itz internazionalak inposatu, inposatu berez, claro, frantsezez edo ingleseztzake edo ta, erderaz imponer, baiña ordun zergaitik ez e, euskerak ditun baliabideak, zegaitik ez degu geixo atertzen, da au inposatu egin nion, esan bearrean, ba, au beartu egin nion, eta ez inposatu ez inponitu, berdin berdinda, beste itz batzuein, ba orain ba geienok garagardoa esaten degu ta ez degu bierra edo zerbeza esaten, edo geltokia esango dugu ta ez dugu estazioa edo gara esango, baiña olako itz asko daude, esate baterako, ba proposizioa, nola esan bear genduke? proposizioa ala proposamena, ez bata ta ez bestia, euskerak baditu itz oiek sortzeko baliabideak, eta len uste det esan du, e., guk Iparraldeko euskalkiak eta baztertu nai ditugula, jakiña, idazle batzuk bizkaieraz idatziko dute, beste batzuk gipuzkeraz ta beste batzuk badabilta oraintxe bertan batu baten billa, esaterako Euskerazantz beraren 1968 arte, esate baterako Basarrik gipuzkeraz idatziko du, Diario Vascon idatzi ezkeroko ba gipuzkotarrei zuzenduta dagolako, baiña euskera batua egiteko lenbizi aditzkera ez bardiñak aintzakotzat artu bear ditugu ta euskalki guztietako itzak artuz, ala nola monstruo itza nola esan leike euskeraz, ba orain monstruo itza esango lukete, baiña ortako badago erdigalduta edo, gaur egun dagoeneko era bat galduta dago itz bat Zuberoan eta ori Azkueren iztegian azaltzen da ta Jakakortajarena'tar Txomin zanak ataratako iztegi txikian, apoto, edo berdin gertatzen da ba negozio itzak, negozio itza esaten badugu azken batian subespañol bat sortzen ari gera, claro, erderaz negozio esaten da, baiña "alemanez" "eta errusieraz" "ortako bilatu ziteken, Azkueren iztegian garatz itza bera ere Bizkaiko erri batzutan erabilten dana eta olako adibide asko esatera-

ko independentzia edo asanblada, ori baidala, subespañol edo subfrantsez bat, azken batian, independentzia edo asanblada esatia sofisma bat da, alegia frantsezez eta ingelesez esaten da independentzia" "itza badagoelako, ingelesez `independence" itza dutelako, baiña errusieraz ez dago, laster errusieraz, au zure mende dago, ordun independentzia eziñezkoa da, orduan askatasuna edo lege zarra esan leike, lege zarra ez dalako fuero lege zarra, independentzia da, ta berdin asanblada, asanblatu, frantsezez badago ba asanblea aditza, assanbol alkartu baiña euskeraz asanblatu edo asanbladoki edo alakorik ez bada, nolatan sortu asanblea itza, orduan batzarra edo olakoren bat bear degu, ba, edo bilera, batzarra edo olako bat, guk ezin esan dezakegu ba asanblada, ez bait degu asanbladatu edo olako aditzik, ordun benetako europear izkuntza egin bear badegu lenbizi iztegi zarretara jo bear degu ta beste izkuntzak ezagutu, ta ez bakarrik bati gabiltzan bezela frantsezakin ta espagnolakin, ortan ere oso lan ederra egiten ari da Zatarain tar Ambrosio ta, orrek ez ditu bi izkuntza bakarrik artzen orrek ba Islandia edo Iparraldeko izkuntzak edo artzen ditu aintzakotzat eta ordun guk ere erderaz esaten degun itz asko onartu egin bear ko genituzke ta bueno, ta geiago ez luzatzeko, adibide bat eman go dut, urrutizkin itza bera, gaur egun iztegietan ba okerreko itz berri bezala azaltzen zaigu, neologismo correcto, alemanez esaten dute ba telephone edo" alemanez bai baia claro, erderaz edo espagnolaz ba telefono esaten dalako, ta ingelesez ba bueno, beste izkuntza batzutan ba ola, zergaitik ez urrutizkin artu, telefonoa ta urrutizkiña baiña zergaiti esan ba urrutikizkiña neologismo correcto bada, zegati, ori bakarrik, ba beti frantsezakin ta espagnolakin ta beti izkuntza bien mende gabiltzalako.

MIREN AZKARATE.— Bueno, nik bi gauza esan nahi ditut ta ahaleginduko naiz labur esaten, alde batetik lehen Oñatibia jaunak esan du euskera ez dela hizkuntza bakarra, laukoitza dela ta bakoitzak badula bere gramatika, hiztegia, ta abar, nik ez det uste inun hizkuntzalaririk aurkitu daitekenik hori horrela dela esango lukenik, iruditzen zait, euskera hizkuntza bakarra dela nik uste dut mundu osoan normalean horrela konsideratzen dela, ez gerala jartzen hasiko, bestalde Oñatibia jaunak berak esan du, berak 25 urtian irratian hitz egin ta berak erabiltzen zuen euskera Xalbador zenak ulertzen ziola, Gernikan jendiak ulertzen zuela, ta Naparroako jendiak ulertzen zuela, hizkuntza bakarra ez balitz nekez gertatuko litzateke, bestela egin prueba, espagnolaz hitz egin ta galdetu portuges edo frantsez edo italianoei ia ulertzen duten edo ez, bueno, ta bestalde, e, Asier zen ezta?

Bai.

Esan dezunian, zera batuan inposatu eta asanblada eta independentzia ta erabiltzen dela, nik ez dakit zenbat bider esan dugun, baina berriro esan nahiko nuke baten batek oraindik zalantzarik baldin badu, zeri deitzen diogu euskera batua? Euskera batua da, Euskaltza;ndiak batasunerako eman dituen gomendioen araberakoa, ta nik dakidala Euskaltzaindiak ez du inoiz, hiztegi baten asanblada, inposatu edo independentzia batasunerako hitzak direnik esan, hor dabilen euskera, hau da euskera batuaren izenian, euskera txarra, espagnolaren menpe dagoena, nahi dituzuen aje guztiak dituen eta dugun menpekotasunaren ondorio dena baina hori ez da euskara batua, besterik ez dut esan nahi.

ALTUNA.— Hiru gauzatxo, bat, Oñatibia jaunari, Miren'ek oraintxe esan dio

munduan ez dela hizkuntzalaririk euskera bat ez dela esan dezakenik, ez da, baiña areago Oñatibia jauna zuek hainbeste maite dezuen Kardaberaz, nik ere maite dut, besteak beste jesuita zelako, eta egun onetantxe hari egindako texi handi bat irakurtzen ari naizelako, Kardaberaz jaunak bere "Euskeraren berri onak" liburuxkan 1762koan esaten dizu, euskera bat dala, horrelaxe, eta Kardaberazek ez zekien linguistika, eta fonologia zer zen ez zekien, euskera bat da Kardaberaz jaunak; hori bat; bi, Mokoroak esandakoa oso siniskaitz egiten zait, euskera batuan irakurritako ezein liburutan, ezein liburutan, hori Iparraldekoa da, eta oso polita, euskara batuan idatziriko, ezein liburutan ez zuela esapila jatorrik bildu?, ez dut sinisten hori esan zuenik, Mitxelenaren liburuak irakurri dituenak hori ezin esan dezake, eta Mitxelenak, Arantzazuko batzarraz gero, euskara batuan idatzi zuen.

AMURIZA.- Nik ez dut dudan, dudarik, zalantza izpirik ere euskera bat dela, baina ez dut ukatzen euskalkietatik euskalkietara zailtasun handiak daudela ta baikortasun handiz ta beharbada euren irratitik hainbeste ulertzen zuela, ta egia da, behar bada euren meritua izango zen, baina niri gertatu izan zait, epaimahaian egon Bertsolari Txapelketa Nagusian eta Xalbadorri ez ulertzea, gauza asko, ta niri gertatzen zait, nik neure bizkaiera eta ez bizkaiera etxekoa baizik bizkaiera batua eginda, beharbada, gipuzkera eginda Bizkaian ulertuko da, ez dakit, nik bizkaieraz egiten dudanian beste nunbait, ez zait gehiegi ulertzen maila batzuetan, orduan biak dira egia; euskara bat da baina egia da zailtasun handiak daudela eta, Altuna jaunak esan duena aitortzen dut hortan arrazoia duela baina nik ez nuen hori esan nahi, Harixelarri nik ulertzen diot eta honi ere ulertuko diote Iparraldean bainan hizkuntzaren maila asko daude eta ni oso maila praktikoan ari nintzen eta segun zer gaitaz ari den ba Harixelar jauna ere hizkuntzari buruz ari bada baina gauzarik soilenak eta simpleenak eta hiztegian daudenak egiten naizenean aurkitzen ditut ba, hemengo alfabetatuek eta hango alfabetatuek oso hiztegi ezberdinak darabiltzate ba kirolean adibidez, hartzen dute bizikletako ziklismoa, txirindularitza hartzen dute orrelako zerbait eta zuek denok jakingo dozue zer dan sillina, horrek esaten dute espainola ta frantseza ta ingelesa ere, orduan ba bizikleta bat deskribatzean ba or ditugu erabiltzen ditugun hitzak, manillarrak, kuadro, sillina, pintxazoa, tubularra, oiek danak, hoiek danak, frantsezez ez dakidaz, baina seguru holan ez dituela holan esaten, hori da problema, ingelesez gitxiago, hitzen bat edo beste ziklismo ziklo hori izango da, baiña beste guzti hoiek ez dituzte esaten, ta iparraldeko alfabetatuek hitz hoiek erabiltzen dituztenean eta marrakiz Bizidunen bat itzuli behar dutenean ez badaukate eredu bat, eta ez hitz bat edo beste, milaka hitz dira, ni ez naiz hasiko hemen diskutitzen independentzi, inposatu, hori bakarrik balitz, dozena bat hitzen gorabehera balitz, hemen ez geundeke, hiztegiak milaka hitz bueltan dabilta ta hiztegiak maila askotakoak dira, hiztegi, noski, hitz kulto universal samartzat jo litezkenak, baina hitz teknikoetat jotzen dut; nik pintxazoa, espainolez eta frantsezez ere, ingelesez ere bai, pintxazo hori hizkuntzan ba bere kategorian, ta bere mailan berdina da, hitz tekniko ta zehatza nola den ba kultura, adibidez, orduan erdaldunek, espainolek ez dute dudarik izaten pintxazo esateko, orduan horrelako hitzetan nik ziklismoa esan badut, sartu pilota, sartu, beste edozein gaur ikusten ditugun kiroletan, ba oso arazo praktikoa eta larria, alfabetatzen ari garenok, ez dugu, edo alfabetatuta daudenak ez dute erabiltzen hiztegi bera maila horietan, eta maila honek oso zabalak eta luze-

ak, eta handiak dira, eta oso problematikoak dira, noski, nik ez dot hori ukatzen, problema hori da, eta nik esan dudanetik hizkuntza europarra, euskera europarra nahi dudala eta ez subespañolara esan nahi nuen eta adibidez hor esan dau monstroa edo munstroa hitz hori hartu behar baldin bada hitz unibersal bat nik ez dot nahi monstro hartu noski, orduan ikusi beste hizkuntzek nola darabilten, eta nik nahiago dut, ez beti, eta ez noski, sistematikoki espagnolaren ereduak daukena, ikusi gure inguruan, batez ere, noski espagnolak eta frantsezak eta ingelesak eta alemanak nola eta nik erderazko forma, erderazko ez españolezko forma monstroa ba hori baino nahiago dut monstroa, edo behar bada musterra, eta orduan nik ez dut eztabaidatzen sartu nahi, nik esan dudana da bakarrik, hitz horiek atzean nundik filtratuta hartzen ditugun, hartu behar badira, nik ez dot esango ba monstro hitzaren sinonimotzat horrek aipatu duenik utzi beharko denik, ez ni ez noa eztabaidatzen eta eztabaidatu behar denean, ba ikusiko dugu, jarriko ditugu arrazoiak, esan nahi dudana da hitz horrek hartzen ditugunak inguruko hizkuntzetan, ta ingurukoak, ez urrutiraino joan errusiaraino ta ez, ez, ez, ondo dago aintzat hartzea, bai, ingurukoak, gure gainekoak, frantseza, ingelesa ta uste dut alemana, gure gainekoak lehenbizi ba kontuan euki beharko direla, baina hori, hauek dakite nik baino gehiago, orduan urruti ez joan ze bestela, Txinara baldin bagoaz edo urrutiago gure ingurukoekin ere, nahiko garanti daukagu, geure ingurukoekin ere, ta orduan esparru honetan, esan dut nik, hemengo alfabetatuek ta hango alfabetatuek problema handiak dauzkatela lexikoan ta hiztegian, ta hiztegi hori, behar-beharrezkoa dela hementxe ikusten ditugun gauzak deskribatzeko, maila horretan esan nahi nuen nik, eta hori ba ez dakit, beharbada, nik maila horretan esan nahi nuen, eta maila horretan ibiltzen gara, jakina Unibersidadean behar bada, hizkuntza nahiko batua erabiltzea zaila da ze, zientzietan dago problemarik gutxien baina egunkaria idazten dutenetan, kirolak idatzi behar dituzte, ziklismoa, futbola, ta hor hiztegi, hizt hoeik lexiko hori ez da Unibersidadean normalean erabiltzen, fisikan da hor ez dago hainbeste problema, ez dut hor ikusten problemarik, problema ikusten dut, hiztegi espezifikoko hoietan, normalean, hizkuntza bakoitzak bereak sortzen, espagnolak bereak ta frantsezak bereak ta abar, eta euskerak, eta hoietan ta maila horretan esan nahi nuen, nik ez diot batere arrazoirik kentzen honek esan duanai, hori egia da, ta alde horretatik aurrera goaz, bai baina nik beste maila baten planteatzen dut, ta hori uste dut oraindik, erronka handia dela ta desafio handia dela.

OÑATIBIA.- Nik bi erantzun, bat bientzat, Altuna ta Azkarate'rentzat, euskera ba-karra da baina laukoitza, ta bakoitzak ditu bere araudi, gramatika, iztegi, arau oiñarri guztiak, euskera guzi-guzi-guzija euskalki bakoitzak badu beraz euskera bakarra da, oiñarri bat da, baiña lau izkuntza; ta Aita Justo Mokoroak niri esandakoa sineskaitza iruditzen zaiola, oso jarriko baina or daukazu bi liburu mardul oiek, 96.000 milla esaldi jator ditu, bilduta, eta esaldi jator bakoitzak bere ondoan, bere kakoak, bere izen batekin esaten du: au alako, alakotan, eta ortarako onartua da, ia aurkitzen dezun euskera batuan jdatzitako libururen baten esaldi bat.

OLAZAR.- Beste arlo batetik itz egin nai neuke, emen esan da, ta Patxi Altunak esan dau gatazka sortu dau eta zer? ta orretan errazoia dauko, baiña nik esango neuke kalte egin dau, ia nork galdetzen dauan eta zer? zertan egin

dau kalte euskera batuak?.- Bizkaian kalte ikaragarria egiten dau, lenengo etxeetan, gurasoak bizkaieraz egiten dabe eta seme-alabak batuan izketan etorten dira eta ez dau aman-semerik alkar ulertzeko, ta orduan zer, erderaz egiten da, ta ori, etxe askotan; ze jazoten da ikastoletan?, ikastoletan, ikastoletan gu eskolara joaten giñanetan eskolan egiten genduan erdera, aginduta egoalako, baiña kanpoan euskera, orain ikastoletan euskera egiten da baiña kanpoan danak erderaz, zergaitik? erriko euskera ori alde batera itxi dalako, beste euskera alkarregaz egiten ez dira ausartzen, lotsatu egiten dira, ta ori orrelaxe da. Zer jazoten da telebistan? Telebistan Bizkaiko euskera ez da sarzzen ezertarako be, batua bakarrik, eta orduan telebista ikusten dagozen umeak, aurrak, ori ikusten dabe eta gero jarraitzeko beste euskera bat egin bear dabe etxeokoz, eta ordun erdera egiten da eta gure batu onek, edo gaur dagon batu onek, lortuko dau Bizkaiko euskera galtzea, ez da egingo Bizkaian baturik, erdera egingo da, ta 400 edo 350.000 euskaldun gara, or euskera batuak kalte ikaragarria egin dau, egiten dau eta egingo dau, eta ori ez da gatza bat, orj kalte bat da.

OÑATIBIA.- Onek esaten duenari jarraituz, bizkaieran kontra badirudi ikaragarriko amorru bizia dagola, eta berealaxe ikusiko dogu, esan duan bezela telebistan ez da bizkaieraz itz bat bakarrik esaten, ain zuzen, ez dakit zenbat denboran, illabete batzuk bada, egunero-egunero amar minututxo bada ere lapurterari ematen diote, bizkaierari zergaitik ez?

AZKARATE.- Ez dakit merezi daben, baina tira, nik berbatxo bi egingo ditut eta aleginduko naiz, etxean ikasi doten euskeran egiten, ulertzen duzue? Horrela hitz egiten badut ala ez?

Beti esaten da batua ta batez be batuak bizkaiera zapalduko dabela, erderaz berba egingo dabela, ni ez naiz kasu bakarra, nere gurasoak bergarrak dira, ta guk etxian ola berba etxen ikasi genduan, ni Donostian jaio nintzan ta ikastolara joan nintzan 8 urte arte, an beste euskera mota bat ikasten neban, nere eskolako lagunekin Donostia inguruko euskera edo antzeko zeoze etxen ikasi neban ta etxian ondiño be, ordun bexelaxe segitzen degu etxen. Nere alabak etxeko euskerea entzuten dabe, ondiño ez dabe jkasi baiña zarrena asi da poliki-poliki olaxe ikasten ta ez dau iñolako problema-rik, bizkaiera galtzen baldin bada ez da izango batua sartu dalako, bizkaiera galduko da bizkaitarrek berba eitxeari lagatzen baldin badotse ta gure Donostiko lagunak..... joaten ziranean ez eben problemarik eukitzen, lenengoko egunetan despistata ibiltzen ziran ta irugarren egunerako ez zen inolako problemarik egoten elkar entenditzeko, ta bestalde esaten danean bizkaieraz ez dala berba erdi bat entzuten Euskal Telebistan edo egunkarietan edo nai dezuten lekutan, berriro esango dot ez da batuatzik, iñok ez dau esan, jaso edo jarri edo jausi edo oratu edo nai dituzuen ainbat berba batukoak ez diranik, geixau esangot Iztegi Batuko Batzordeak, zerrendak eitzen dituanean, orrek danok sartzetxu eta Iparraldekuak eta bestiak, eta lexiko kontutan berba guztiak dira batukoak eta batua esan bexo benetan batua danai, eta ez besteei.

ALTUNA.- Oñatibia jauna, euskera bat dela aitortu duzu azkenean, baina laukoitza dela, lau euskalkitan banatzen delako, batzuek zazpitan esaten dute berdin da, utzi dezagun lautan, ezagutzen al dezu hizkuntzarik, hizkuntzarik

munduan hizkuntzarik bere dialektorik ez duenik? Lau edo bost edo hamar edo hamabost, ez ta munduan, guztiek dituzte dialektoak, ez gaurkoak bakarrik griegoak ere bazituen, ta latiñak ere bazituan bat; bi, Mokoroaren liburuak, ta Mokoroaren liburuak bi tomo hoiak, ez dute nik esan dizudanaren kontra ezer frogatzen, nik esan dizut, Mokoroak iñoiz esan bazizun, euskera batuan idatzitako ezein liburuk ez ziola esapide berririk erakutsi, etzuela egia esan. Mokoroaren bi tomo hoietan ez dago dena, oraindik hitz asko dago noizean bein entzuten ditugunak ustekabean, inon arkitzen ez ditugunak. Lengo batean Azpeititik anaiak hots egin zidan, telefonoa jo zidan : Aizak, honako hitz hau inoiz entzun al dek? Ez. Oraintxe Errezilgo emakume bat izan det hemen denda eta "egoa ai da" ez "au ez da egoa au alabegoa da" Alabegoa, alabegoa esan al dik? bai alabegoa, ez dakar Azkuek, ez dakar Plazido Mugikak, ez dakar Lendek, OEHk bakar bakarrik dakar, bi testigantza Aita Ondarrak ementxe Nafarroan ez dakit zein lekutan jaaso eta bestea orain ez naiz oroitzen norena.

OEH zer den? Orotariko Euskal Hiztegia, Mitxelenak hasi zuena eta oraintxe, egun hauetantxe atara da zazpigarren tomoa, hamalau-hamabost izango omen ditu; ba hor bi testigantza, bi, bi, baiña berriak biak, Aita Ondarrak orain hamar-hamabi urte jaso, eta bestea ez naz oroitzen non, eh! Horrelako hitzak, erlekutza, erlekutza zer den egingo nuke apostu ez dakizuela, ez dakizuela hemen mahaian zaudetenok ere, ez dauko erlearekin zerikusirik; erlekutza nik amari entzun nion aspaldi, ta erlekutza ze esan dezu? Jesus, erlekutza zer den ez al dakik? ez; ba batzuek lizarra esaten zioatek, lizarra Azpeitian erlekutza, horrelako hitz asko dago oraindik, jaso ez ditugunak, Mokoroaren bi tomo hoietan ez dago guztia.

OÑATIBIA.- Baiña niri ori esan zidala, ori egia da

Zer? Galderak?

1 galdera.....

OÑATIBIA.- Izkuntza lauhoitza izan da: gipuzkera, bizkaiera, lapurtera ta zuberotarra, eta hori aitatu dozun ezker eta Altuna jaunak gerkerak aitatu duen ezker, zerbait pisugabea esan nahi dizuet. Gerkerak amazpi euskalki zituana, eta euskalki oien artian geien idatzitakoak lau, dorio, eolio, jonio eta atiko, eta gerkeraz aintzinean gerkeraz, ain ospetsuak liburuak idatzi ziran baiña ementxe bezelaxe Grezian ere zerbait batu ein nai zuten, eta azkenean ein zuten batuoi, batu orri "koine" izena jarri zioten, "koine" izen orrekin jardun dute urte askotan baiña ez da liburu ospetsu bat bakarrik ere atera, zergaitik? Ba izkuntzaren sena, muiña, "alma de la lengua" orren faltan dago ta azkenean 1972'n ba al dakizue ze gertatu da Grezian? Alako astakeririk ez dutela berriz egin bear, "koine" baztertu eta lengo bidetikan asi dia, orixe bera gertatuko zaio euskera batuari gaur bezela aurrera jarraitu eta beste euskalkiak galtzen badira. Jainkoak ez dezala alakorik nai.

ALTUNA.- Lau, gerkerak ornen zituen lau euskalki literarioetatik bat, zein esan duzue eolio?

OÑATIBIA.- Jonio, eolio,....

ALTUNA.- Aipatuko al diazue eolioz idatzitako liburu famatu bat?

OÑATIBIA.- Oiek zian lau geien idazten zienak.

ALTUNA.- Bai, gehien idatziak bai baina, bat aipatu eidazu famatua eolioz idatzia,

OÑATIBIA.- Ta, koinez?

ALTUNA.- Koinez? Horretaz hitz egitera gero etorriko naiz. Baina zuk lau aipatu dituzu, ta nik esaten dizut, lau hoietako ia liburu famatu guziak atikoz idatzi ziela. Poesia bada beste izkelki batean ere. koine ez zuten asmatu, koine sortu egin zen, berez, berez sortu zen, berez sortu zen, berez nagusitu zen, koine iñork ez zuen asmatu, koine sortu egin zen eta koinez idatzitako liburu famaturik ez dela? ez nizuke esango, hori izango litzateke latin vulgar, klasikoaren ondokoa eta lenagokoa ere bai, latin vulgarrean liburu famaturik idatzita ez dagoela esatea bezela, onek bakar-bakarrik, esan nahi du, garai horretan ez zela izan idazle famaturik, liburu famaturik latin bulgarez idatzi zuenik, euskera batuan liburu famatua idatzitakoa? izango dira, badira, hor dezu Atxaga, eta sortuko dira berriak, bertsolariak esan zuen bezala.

OÑATIBIA.- Ba zure jakindurirako auxe esango dizut, koine ez zan berez sortu, koine, " " Parisen errefuxiatuta zegon grekotar batek asmatu zuen, ortaz esperanto bezelakoa.

GALDERA.....

ERANTZUNA.- (AZKARATE).- Arrazoia duzu, euskara batua, hasiera-hasieratik idazteko, eta idazteko gainera, nola esango nuke, hizkuntza standar jaso batean edo erabilteko, nik aizpari eskutitz bat idatzi behar badiot, ez du nahi ta nahiez, euskara batuan zertan izanik, gure euskalkian erraz izan daiteke, eta egia da Leioako biltzarrean ahoskera baturako lehen pausoak eman zirela eta hori ez da Euskaltzaindiatik sortu, hori kanpotik etorri den eskaria da, hain zuzen ere batasunaren kontua, bueno hasieratik datorrena da, baina Arantzazun batuarena atara zenean ez zegoen komunikabiderik, arrezkero sortu ziran Euskadi Irratia, bai Telebista eta beste zenbait Irrati ere, eta hortik etorri zitzaizgun eskaria gauzak ahoskatzeko, ia inolako proposamenik edo eman zitekeen, beren artean askotan izaten dituztelako istiluak, ea joan esan daiteken edo yoan esan behar den edo, gauzak nola esan behar diren, eta alde horretatik ahoskatze esaten denean euskalkiak batez ere, ahoz erabiltzeko, ahoz jakina hitzegiterakoan, laguneren erregistroan, bai ahoz hitzegiterakoan ere, nik uste dut, ohitu beharko genukela nolabait euskera egoera normal batera eraman nahi baldin badugu, begiratzen inguruko hizkuntzetara eta inguruko hizkuntzetan bai idatziz eta bai ahoz, badira, ez dakit mila esatea gehiegizkoa dan, badira erregistro edo maila asko, eta badira irrati batean edo telebista batean albisteak ematen ari denak erabiltzen duena maila bat da, eta lagunarteko tertulia batean edo ba, zer esango dizuet ba, Goenkalen pertsonaiak erabiltzen dutena beste maila bateko da eta ahozkoan ere ikasi beharko degu, esate baterako Ahoskera Batzordeak bere txostenean behin eta berriro aipatzen zuena, hor ere badaudela ahoskera jaso edo formalak eta badirela bestelakoak, orduan maila orretan, eta hala ta guztiz ere, lexiko kontua ez dagoki ahoskerari, esan nahi dut hitzak euskalki desberdinetako lexikoa hartzen denean, guztiak dira zilegi, eta ahoskera kontuan izango da jota ta yota hori nola geratuko den eta beste zenbait gauza eta ia yeismoak konponketa behar

duen eta maila bereizten jendeari nola erakutsi, erakusterik baldin badugu beintzat, bueno e proposamenak

GALDERA

ERANTZUNA.— AZKARATE.— Bueno nik nahiago det azkenean erantzuna Xabierrek ematea, baina berriro esango dut hori ez dela batua, ez dela batua, bost lerroko monstroa, hamar hitz elkartukin egiten duena ez da euskera batua egiten ari.

GALDERA

ERANTZUNA.— AZKARATE.— Begira, ni Euskalerriko Unibertsitateko irakaslea naiz, kanpusean, Gipuzkoako kanpuserako itzultzen diren testuak askotan ez dut esango guztiak, baina batzuk ikusten ditut, nik badakit zenbat itzultzen ditudan eta nolako oharrakin itzultzen ditudan, ta orduan gauza bat da euskera ulertzeko modukoa egitea, eta horrek ez du batasunarekin zerikusirik, hori da euskal sena izatea ta batuan ari zarela euskal sena izan daiteke, adibidez, ez da bera hemen dagolako baina Dragoi Bola egokitu dunak badu euskal sena ta primerakoa gainera, ta telebistan ere ikusten da, badaude zenbait serie guztiak itzuliak eta egokituak ta batzuk primeran funtzionatzen dute, Ninja Dortokak izan ziren bezela edo Dragoi Bola izan liteken bezela eta beste gauza bat da horko mezua gustatzea, Marrazki Bizidunak berak gustatzen zaizkizun ala ez, ta beste gauzan batzuk esaten dezu, baina nola egin diteke hori? ta horrek ez du batuarekin zerikusirik.

AMURIZA.— Horrek bakarrik esan nahi du, zuk irakurtzen dezun testuan itzultzaile ona izatea edo txarra, orduan nik ezagutzen ditut, batuan gaizki egiten dutenak eta ondo egiten dutenak, eta ezagutzen ditut bizkaieraz oso txarto egiten dabenak, oso txarto egiten dabenak bizkaieraz ezagutzen ditut, eta Bizkaian ezagutzen ditut batuan ondo egiten dabenak eta bizkaieraz ondo ondo egiten dabenak be ezagutzen dodaz eta batuan txarto egiten dabenak, orduan batuan ta bizkaieran ta euskalki kontuan ta ezta zelan edo alan, zer egiten dozun edo bestiak zer egiten dun, onenak egin leike odo edo txarto, ta euskalkixetan, ba euskalki batzutan jende askok eitxen dau oso txarto, bai bizkaieran bai gipuzkeran bai Iparraldean bakoitzak eitxen dau, ba bakoitzak segun zelako euskerie ta, ta batuen ba onak nik ezagutzen ditut baiña txarto eiten dabenik ez ipin; mesedez,..... ni ez nab; l txarto eiten dabenik defenditzen, obeto ein nahieaan dabilena baino, ordun, begira badirudi euskalkia egiten dabenak batua be ondo egiten dabela, euskalkian ta batuan ta bietara nai batien ta na; bestien, oso ondo berba eitzen dabenak dauz eta b; etara ondo egiten dabenak dauz eta oso txarto egiten dabenak dauz, eta erdipurd; egiten dabenak dauz erder; a ez dakit zer ta, eta or Bilbo inguruan badauz erderien eragiñe sartzen jake azurretaraino, eta an ibiliko dire sartuko ditue alakoak eta gero olakuak eta, horrela ibil; ko dire, eta aditze ikusi zindudazan ondo esateko B; zkaian gitxi gelditzen dire, euskeraz ondo dakienak be esango dau ikusi neutsun, bagoaz galtzen orduen, euskeraz eitxen dau ondo bixetan eixi izango litzake gauza ederra baina ze gu ez gabiltz, ahl danik ondoen eitxera bajno, bixetan ein leike bai batuen ta bai bizkaieraz eta baita gipuzkeraz eta euskalki guztietan ta badaukat esperienzia apur bat, eta txarto egiten dabenak geiago

izango dira zoritxarrez baino hori beste problema bat da, on zuk dinozunez ba euskalki batetik liburu batera ta liburu batetik, euskalki batetik edo ez dakit nundik Unibersidadeko titulo batera ta liburu batera pasatzen bada ta ori beste problema bat da, baina nik hori ikusten badot e, zuk diñozun moduen txar-to eitzen dabena bakendu edo ez dakit ba, ze esangotzut ba, bixetan egin leike ondo ta bixetan egin leike txarto,

GALDERA.— Euskerazaintzakoei, euskera batua,

ERANTZUNA— OÑATIBIA.— Jon, nire anaia zanak Gramatika bat badu, Erriaren euskera batua, erriaren euskera batu ortan, ikaskaien bukaeran, an azaltzen dira, bereizten dian itzak, lau euskalkietan berdin esaten ez dian itzak eta arrituta geldituko ziñateke, zer itz gutxi diran ezberdiñak, emen egin bear dena da bakoitzak bere euskalkia ondo ikasi, iru euskalkietan dauden ezberdintasunak ikasi ta ezta beste munduko lana eta orduan bai danak eskolatuta geldituko giñake.

GALDERA

ERANTZUNA.— OLAZAR.— Or ere arazoak badagoz, euskera egiten ez dan tokietan zein euskera ikasi, bizi dan euskera, urbillen urren dagona; Araban esate baterako Laudio aldean eta Legutiano aldean bizkaieraz, baina gero joaten bazara Santa Cruz de Campezo aldera, or gipuzkeraz, urren dagona, bizia ez beste bat. Euskera ikasteko berba egin itz egin bear da ta itz egiteko ba urren dagonagaz egiten da.

Galdera geiagorik?

ERANTZUNA.— AMURIZA.— Ba, nik Ondarru ezagutzen dot apurtxu bet, orduan ba zuk jakingo zu bizkaieraren barruan gusto guztietako joerak dagozala, ta Ondarrukue ta Zeanurikoa ba esango nuke igual naiko diferenteak dirala, ta bizkaieraz be bizkaiera batua dagola, ta bizkaiera batu orretan, eredu bi dagozala nagusixek geien erabilili izan dizenak, bata eta inguran egiten dabena eta beste a Arratixa aldeko ta inguruan erabilten dabena, baiña gero ba Bizkaian barruan ba konplejo batzuk daukaguz, ta asimilaziorako kapazidade andixe ta euskaldunak dauken baiña batazbesteko konplejo geiau, ta Ondarruko kasuen ba, esate baterako mende onetan idatzi dian bertso jarri guztixek gipuzkerak egin dira, ta bizkaieraz ba nik Ondarrun beti bizkaiera baiña Bizkaiko jende askok gipuzkera egiten dau, ta ondarrutarrak ta bizkaitarrak ba giputxei ulertzeko problema gitxiago eukiten dabe ta gainera uste dabe orixe dala ein bear dana, ta Ondarrun esan dozunez ta ganera, ontxe nabil batze bat eitzen, ba Ondarrun kon-turatu naz mende onetatik aurrera ta baite azkenengo, ako Ondarrun mariñelak itto ziren deskalabro andiko bertsoek eta gipuzkeraz egiñak dirala, ta neu arritxu-te, baiña ondarrutarrak gipuzkeraz, eurek ain bizkaiera sarratu einde, ta zuk esa-ten dozuna egia da, baiña oso-oso ondarrutarrak ia ia, beno alfabetatu bakuek zien orduen ta bertso jarriak dotore ipini ebezanak ta gero zuk esaten dozuna egixe iza-nik ba, euskeraz asiko bagiñe telebista bat eiten zelan egingo geunke? Markiñe-

kue, Ondarrukue, tzi-tzau ala a-ie, ta or problema andixak dauz, ta orduen ba gauzak ezin leikez sinplifikau, ta analizauten douz egie da zuk diñozune baiña niri asko txokau jatena da zeatzik odarrutarrak kantu bat eitzen dabenien edo bertso batzuk eitzen dabenien zeatzik, ba an be alfabetatu barik dauzenak ba gipuzkeraz eitea, sartzien dabez forma arraro batzuk ze ez die ezagutzen dien moduen ta alako, "jioten" da "zizkutzen" da, forma zelebriek ba beste ezagutzen ez daben euskalki baten, ta olantxe dauz ta orduen ba egixe da zuk diñozune baiña gauzie oso konplejue da, ta, nik uste dot Ondarrun telebistea jende askok, apur bat alfabetatuta dagoenak ulertzen dau, orrek ez dau nai esan telebistan erabitzen dan berbakeri edo izkuntziek ez daukan;ik problemarik, ze niretzat andiak dekoz, ze doaz forma batzuk iztegi baten erabltzeko, sartzien sartzien, orrek lege eingo dabez, ta kiroletako ba iztegi guztixe ba orko jaunak erabilten dabe ba Ondarrun nik uste dot ulertzen dabela ze nik Ondarru ezagutzen dot apur bat eta jendiek telebistako euskerie ulertzen dau.

GALDERA (Bardiñak).- Ulertzen dau baiñe, eh, ni bertaku naz, ni bertan beti, ta zuk esan dozune gipuzkera joten dogule ta ori, ba izan leike, baine kaletik ez ga juten kantaten,

AMURIZA.- Izan leike ez, da, da.Olantxe da ori.

GALDERAK JARRAITZEN DAU: Bai bada,

AMURIZA.- Ez, Bertsuek, Baiña orrek gura dau esan,ori barruko jarrera da, disposiziño bat, pentsakera bat, da, Usurbilgo bati sekula ez jakon bururatuko bizkaieraz jartzerik bertsoarik, sekula burutik pasatu ere, ta ondarrutarrak bizkaieraz sarratu-sarratu , auteskundeak ez dakit zela izan dirala ta, ta alako naste bat, baiña ez oin e!. mende osoan ta tradiziño bat, ori Ondarrun ta Bizkai guztin pasa da, ta ori, batuan kontra be anditzak dekoz, baiña izkuntza maillatik aparte dagozanak, ta zuk diñozune egixe da, baiña

ALTUNA.- Ori ez da gaurko kontua, Mogel eta, len aipatu du Xabierrek, bizkaitarra zen, Añibarro, ta Frai Bartolome ta, aiekin batera..... (zinta amaitzen da)

2 KAS ETA

egin ziren Mogel'en kontra eta orduan bizkaieraz ere idatzi izan behar zuen hura bera. Gehiago, Xabier Kintanari eta Arestiri Mitxelenak behin baino gehiagotan esaten zien: zuek bizkaitarrak zarie, ez al da ala? Bai.- ta noiz hasi zineten euskara batuan ikasten.- Ba orain dela 40 urte.- Zein euskera ikasten hasi zineten, bizkaiera ala gipuzkera?.- Gipuzkera, ah,- Zergatik?.-

Ori Euskadiko fenomeno da.

GALDERA.-

ALTUNA.- Ba al dakizu? liburu zarrak eta autore zarrak ezagutzen d;itugunean, txunditurik gelditzen gera askotan, iruditzen zaigu, ta neri duela 8-10

urte arte, hala iruditzen zitzaidan, hain berandu etorri dan o, han urrutikoa zela, Iparraldekoa ta auskalo noizkoa, aizu, Otxoa de Arin hamazortzigarren mendearen hasierakoa da, Larramendi baino berrogei urte lenagokoa, Irazusta, Otxoa de Arin-en hurrengoa, gipuzkoarrak biak, hain berandu non, hain berandu ezen, hitzetik hortzera esaten dizkizute, hoiek, bizkaieraz oraindik, zeee, esaten dute horrelakoetan ta ze ezen besterik ez da, aurrea ta atzea galdu dituelarik, hori batetik, hau guztia, egia orain arte guzti hau esaten ohituak geunden baina nola esaten dezu.

AMURIZA?.— Ze ori bizkaieraz esaten da, Hain ona da ze, hain poljta da ze, hori, ta gure Bizkaian esaten bazen garai batean zergaitik hori ez zen euskera batuan normal sartzen, guk beti normal esaten doguna bada, eta gainera oso oitura bearrezkoa, ze beti ibiltzen gara esaten, ez dakit zer ta badakit zer, eta ortik aparte ba, ze ori ba bizkaieraz bada baita izan leike zegaitik'en laburpena izan leike, edo zeren'ena eta gaur ain zuzen ain zuzen ibili naz transkribitzen bizkaierazko testorik zaarrena seguru asko, bueno zarrena Alzolan Españako Felipe, 1635 edo ez dakit, oin dala 500 urtekoa, da gauza bat zegaitik, orain 500 urte normal-normal erabjltzen eta ez da galdera, zegaitik ze, ta neu be pixka bat arritu naz, hau sasoi baten kausal au, kondenatu egin zan, kondenatu egin zan, txarra da, eta ez dakit zelako barrikuntza ein zala ta, ta oin ee, bizkaierazko testurik zarrena eta gitxienez sei edo zazpi aldiz erabilten du, zegaiti ori forma kausal moduan, eta ni lenengo ba despistatu egin dau, baina au, zegaitik au ez da galdera, hau ze da guk orain erabilten deguna, ta kitto, ori oin bosteun urte,

ALTUNA.— Area, area zergaitik, Oienart-ek erabiltzen du, Oienartek Iparraldean "zergaitik" kausala darabil, gure zaharrek, nire ama zanak eta erabilten zuten bezelaxe. Aizu, baina beste galdera bat, egia da gramatikariek, ba halamoduko, erdi-ipurdiko gramatikariek, gaitzetsi zuten kausal bezela erabiltzea, eta sartu ziguten, haiek ez baina gero sartu da zeren. Aizu! ta zeren zer dela uste duzu? Zeren autore zarretan galde-hitza da, Zergaitik egin duzu? bezelaxe, Etxepare'k zeren bada emaziari obedi, esaten du bere bertso batian, zeren galde-itza da jatorriz, zer galde-itzaren genitiboa, zergatik bezelaxe, ta zeren onartzen dugu, bueno, bai exotikoa delako, exotikoa delako ohea iruditzen zitzaigun, eta zergaitik da jator, jator, jatorra, esaten dizut Oienart-engandik gitxienez hasita.

ETXABURUA.— Bueno baiña, bai Oienart'ek edo Axular'ek edo, bere iritzia orrek ez du esan nai, ori berez euskal senekoa denik ondo dagoenik, Axular'ek berak bazitun olako erdera kutsuko esaldi ikaragarriak, esate baterako, "*tómanos como somos*" edo "ar gaitzazun nola garen", eta ori euskeraz ar gaitzazun edo artu gaitzazun-en en erantzuna euskeraz geran bezela da, eta ez nola garen, eta zergaitik eta zeren artean beste bat sartu da, Iparralderantzko nolabaiteko mirespena izan dala-ta garai baten, batuaz, bai onartu zuten zeren, bai esaldi luzetarako ta eta, ori azken baten erderatik dator, zeren eta Axular'ek erabilten zun, eta ori onartu zuten baina ez zuten zergaitik onartu, Axular'ek zeren eta edo zeren, erabilten zula eta Kardaberaz'ek zergaitik, zergaitik e nekatuta nengoan, baiña ala ere bakarrik zeren eta onartu zuten eta ori ba bueno, olako esaldi asko esaten dituzte mirespenagatik edo, dana den, euskaldunen larogetamar-ak edo bai literaturan bal aoz dana dala esaten du,

Gipuzku osoan Naparru zati andi baten eta Bizkaia osoan dana dala literaturan bai aoz ba, dena den esaten dute ba Axular-ek eta Oienart-ek eta erabiten zutela baiño baina Axular'ek ere itza erabilten zun,ta Astarloak ere erabilten zun eta ez Martxoa, baiña beti beste gazteek zarren itz egokiak ez dituzte onartu, esate baterako Astarloak di atzizkia erabilten du ez bakarrik landarentzako beste gauza batzutarako ere, zingiradia, ta zingira ez da landare bat edo leizadia edo kortadia, ta orain batuaz atzizki ori ez dute onartu, atzizki ori landarentzako da-ta ta atzizki orren orde ba, Arana tar Sabin'ek atzizki orren bitartez ba Euskadi sortu zula ta gaizki dagola, ba Sabino Arana jaiο baiño ia-ia gizaldi bat lenago Astarloak jaso du itza, ta berriz epail itza ba ori esaten duenez ba, epail ori aspalditik dator ta lenago erabilten zan, epai edo epail illa ba bueno orain Martxoa ta agian aoz onartu zitekean baino idatziz erabiltzeko beintzat ez eta orduan, bai ze ta zergatik ta ta zeren eta, onartu bear ditugu, baiña ez bakarrik zeren eta zeren eta, ordun zergatik idazten asi bearko dogu danok.

ALTUNA.— Ez degu guztiok hasi behar zergaitik berandu etorri naiz idazten baina norbaitek idazten badu ezin has gaitezke banatzen eta gaitzesten eta esaten hori oker dagoela, gramatikari, gramatikari batzuek erakutsi izan duten bezela, hori da kontua. Guk ez degu esaten zergaitik berandu etorri naiz, esan behar dela egunero baina esan daitekela, aspaldidanik esan dela, bai Axular'ek eta Etxepare'k eta Leizarraga'k eta ez zituzten asmatu nola garen, zeren eta berandu den,

OLAZAR.— Ori latjnaren eragina da,

ALTUÑA.— Bai latinaren eragina beste gauza asko ere bat, baina herriaren eragina, herriak, herriak esaten zitun holako gauzak, hala Etxepare ez da bertsolari herrikoa?, inor baldin bada, "por su espíritu, lenguaje y versificación" esaten du Mitxelenak, inor baldin bada bertsolari herrikoa Etxepare da, Etxeparek, "Garaziko herria benedika dadila", garaziko hizkera erabili zuen, jendeak erabiltzen zuena, ta hori Lafon'ek eta mundu guztiak esan dizute, ez dira idazleen asmakeriak, latiñetik sartu dira edo herriaren bahetik sartu dira, batzuk ez guztiak, Lizarraga badakigu oso kulteranoa zela eta idazle kultoa zela eta esaten dituen exortazione ta solizitatze ta abar ta abar, ta sabatoa esaten du, ta flubioa esaten du, ta hemen horrenbeste latjn badakizue flubius, ibaia, sabatoa, ta esaten du peskadorea, horrek bere garaiko oiturak ziren euskeraz ezezik Españako, Españako ez, o Europako izkuntza ikasi landuetan, modan zeudenak, latiñetik zenbat eta hitz gehiago hartu, ja-ia hobe.

AZKARATE.— Nik, parkatuko duzue pelma izatea, baina lengoa esan behar dut, berriro ere, nork esan du, "di" ez dela baturako ona, nork gaitzetsi du?

ETXABURUA?.— Kintana Euskaltzaindikoa da ta, bere Hiztegi 2000.

AZKARATE.— Ez, ez, barkatu, Kintanak Hiztegia 2000 egin zuenean euskaltzain urgazlea zen eta euskaltzain osoa jzanda ere, nik esan dezaket nire iritzia, Euskaltzaindikak Osoko Bilkuran erabagi ondoren esaten ez duen bitartean, ez dago batasunerako gaitzetsia.

ETXABURUA.— Ez dezute anaidi edo lagundi edo orrelako itzak onartzen....

AZKARATE.— Nola ezetz? Parkatu, uste det ".LEF"....batzordearen txostena ez dezula irakurri, ze hain zuzen ere "di" da multzokariak adierazteko gomendatzen dena.

ETXABURUA.— Ze multzokariak?

AZKARATE.— Multzokariak oro ar, bai Euskadi, bai anaidi, bai lagundi ta bai nahi duzuna, bai landare izenekin, bai bestelakokijn, ta bai bizidunekin ta bai bizigabeekin, hori dakigunez, orain arte dakigunez 18 garren mendetik beintzat,

ETXABURUA.— Ez dela erakusten ta lkastolak ba Euskaltzaindiaren aolkuak edo gomendioak segitzen dituzte ta,

AZKARATE.— Ez, ez, ez. Auzi hau argi ta garbi utzi dezagun. Gaur egun batuaren izenean esaten dena ez da batukoa, ta ez da Euskaltzaindiak esan duena, gauza asko esaten dira Euskaltzaindjak, ta mesedez har itzazue Euskaltzaindiak batasunerako eman dituen erabagiak eta gomendioak, zoritxarrez, oso orrialde gutxitan biltzen dira, Aditz laguntzailearen paradjmak, Aditz trinkoaren paradjmak, Deklinabiderako paradjmak, Erakuslearenak eta h letraren zerrenda, 86an maileguzko hitzak nola egokitu behar ziren eman ziren erabagjak eta 90etik hona bi separatatan argitaratu djrenak eta guztira 25 bat gomendio edo izango direnak ta orain erabaki biurtzen ari garenak, ta hortik aurrera daude batzordetan egin den lana eta batzordearen iritzi baino ez dena eta komeni den neurrian batasunerako gomendio emango dena eta bitartean lparaldean erabili den hain non, Hegoaldean ere garai batean erabilten zena, hain da polita, ezin dut sinistu ere egin bezelakoak hain da polita ze, guztjak dira baturako onartzekoak, euskeraz tradizioa duen guztia da gomendio berezirik ematen ez den bitartean baturako hartzekoa ta, gaur zerbait argj geratze-kotan horixe geratzea nahiko nuke.

ALTUNA.— Bi hitzetan pasadisu polit bat kontatuko dizuet, Arestik eta Euskaltzaindia hitza, ba, txartzat ematen zuten Euskaltzaindia, "di" arbola ta zuhaitz ta horrelakoekin hitzekin bakarrik erabiltzen da, Mitxelenak berak ere bai, ta Mitxelenak egun batean, "mea kulpa, mea kulpa mea maxima kulpa" kantatu behar izan zuen, Mendibururen Idazlan argitaratu gabeak, argitaratu nituanean, berak ezarri zion Hitzaurrea liburu horri, irakur ezazue zer dion, Mendiburugan aurkitzen ditu dozenaka hitz, zuhaitz eta landare ez direnak, "di" atzizkia dutenak eta Mitxelenak esan zuen "oker negoan".

GALDERA.— Nolako izkuntz politika izan bear da (ez da ulertzen esaten danik).

ALTUNA.— Mosquera jaunari galde zaiozu, Araban nolakoa erabili behar den. Oso zaila da asmatzen, holako izkuntz politikare nola egin behar den. Zuk eta.....

GALDERA.— Bai, ni

ALTUNA.— Samurra bazara, etsaiak dituzu, gehiago eskatu behar ornen litzatekeelako funtzionarioei, eta oso zorrotza ta exigentea baldin bazera, eta galdera zein dela esaten dizu? zein dela zure galdera? ze hizkuntza politika?

AMURIZA.— Nik bi hitz esan nahi nituzke hortaz, zuk esaten duzuna, zaila dala hori adieraztea, nik badakit eta Zuberoan badakite euskera salbatzeko gogoia daukatenik, hemen gauza bat dago nahiko argi euskera ez dago ondo, eta oraindik euskaldun gehienak euskera batuaren kontu hau, ba oraintsu berrjki sartua da, euskalkiak indar osoan zeuden eta daude eta jarraitzen duten bitartean ari naiz euskara galtzen eta beste faktore batzuk ere sartzen dira hor, kontzientzia eta beste faktore batzuk sartzen dira hor, baina nik egingo nuke euskalkietatik euskeraren etorkizuna nahiko gaziki doan ezkeror, ia salbamena etorten zaigun euskera baturen batetik eta orduan ze hizkuntz politika Zuberoan? hasteko, beharbada zuberotarrei gehiagi ez zaie ardura euskera batuagaitik, baina euskera ez galtzeak edo euskera galtzeak ardura gehiago dienei eta euskaldun izan nahi dutenei, balute tresna bat, ez bakarrik zuberoko lau katurekin, nolabait esateko, komunikatzeko, baizik Euskalerrri osoko euskaldunekin komunikatzekoa orduan beharbada baikortasun eta optimismo gehiago eukiko lukete, eta ez bakarrik Zuberoan, Bizkaian eta beste toki askotan eta Renon eta Argentinan dauden Euskal Etxetan eta bajta Gasteizen eta abar, orduan erdiren, erdien dagoena ere nahiko marginatuak gaude eta nahiko marginauak gara eta Gipuzkoa hain zuzen nahiko marginatua da erderarekiko, orduan gutxienez bagenki ikasten dugun hau behintzat ez da izango nere liburu txikikoa, lau katuren artean erabiltzekoa baizik gutxienez eta hala ere, gutxia da, Euskalerrri osoan, elkar ulertzeko ondo ulertzeko, normal ulertzeko, ez ahalegin handi bat eginda, ez boluntarismoz, hara joan da estudiantutakoa ez, hori lortzen dugunean, orduan behar bada, ba, bai Gasteizen eta bai Zuberoan eta abar beste poz bat izango dute, eta Hizkuntz Politika hori, ba ez dakit nolakoa izango den, zuk egin duzun galdera, galderaren azpian arazo politikoak ere, grabetak daude, orduan, nik uste dut batzutan hemen eta baita batuan ere alfabetatzen dan jendeak hartzen duen frustazioa ta gero beste toki batzutan esan dudan mailan, bereiztuta, maila batzutan, ez dabil alfabetuta dagoena eta orduan zenbait gauza alperrik ikusten ditugun zenbat gauza gero hemen honela, han horrela, baina behintzat tresna hori bagendu behintzat, ehun mila lagunek Euskalerrria osoan, eh, normalki ulertzeko modukoa, ba hortik jo behar dela uste dut nik, ze oraingo, oraïn arteko euskalkien zatikuntzak eta abar, gauden tokira ekarri gaitu eta horrek ez gaitu asko onduko, besteak nora eramango gaituen hori ere egia esateko ez nago oso baikor horretaz baina ez bakarrik hizkuntzako kontuekaitik, beste arazo politiko latzagoak kontzientziarenak daudelako.

AZKARATE.— Nik hau dala-ta, pitin bat Xabierrek esan duenaren bidetik esan nahi nuke, ez bakarrik zuberotarrantzat bakarrik, euskalki guztientzat balio duen zerbait, egia da badago nolabaiteko, eskolan eredu bat ikasi gero etxean beste bat entzun, ta hor badago Hizkuntza Politikarena den ardura azken batean, ez det uste beintzat ez Euskerazaintzarena eta ez Euskaltzain-

diarena denik, euskalkiek zer leku behar duten eta euskalkien erabilera bultzatzeko zer egin behar den, ta hor badaude zenbait udalerrri horretaz kezkatuak eta pausuak ematen hasiak, eskola ordu, eman dezagun gelan matematika irakasten den momentu horretatik kanpo eskolan bertan ere jolaslekutan, edo asteburutan edo oporralditan antolatzen diren ekitalditan, udalen bidez, diputazioen bidez ez dakit zeren bidez, zer egin daiteken euskalkien erabilera bultzatzeko eta prestigio gehiago emateko, horretan bat nator, baina Mitxelenaren hitzak ;rakurriko dizkizuet, Arantzazuko biltzarraren ondoren Bergarakoan esan zituenak " Euskera baturen bat behar dugu, hau, hori nahiz beste hura, egunen batean eta luzaro gabe euskaldun-ohi zirenen ondorengo odolentz mintzab;de bakarra erdal baturen bat izatea nahi ez badugu", hau da, batu ez da inoiz izango euskalkien kontrakoa euskalkiren bat galtzen bada inoiz ez da izango batua dagoelako, batua egon arren ere galduko da, hau da esan nahi dut, batuak eman dezaioken laguntza guztia emanda ere euskalki hori galduko da, eta baturik ez balego pentsa zer izan daiteken eta eztabaida dezakegu nahi dezuen guztia orain dugun eredia den zuzenena, eta aditz laguntza;leak horrela behar luken, eta paradigmeari ak eta ek bereiztu behar dugun eta ez dakit zer egin behar dugun, baina pentsa zer izango litzaken adm;nistrazio hizkera bat euskaraz lortzea, testu liburuak euskaraz lortzea benetan euskaldun nazioa izan nahi baldin badugu Zuberoako puntatik Bizkaiko puntaraino edo Gasteizko puntaraino benetan umeak euskaraz hezi nahi baditugu eta benetan euskeraz bizi nahi badugu, hizkuntza standar batu bat ez baldin badago ia ze gizarte ezagutzen hogeigarren, hogeitabatgarren mendearen atarian horrela hizkuntza duina duenik, eta bere hizkuntzan bizi denik standar bat gabe eta batu bat gabe moldatu denik.

ALTUNA.— Hau dela eta, esanguraz esango dut, neurea balitz esaten ausartuko ez nintzatekeena, baina Joseba Lakarrak esan zuen Deustuko Unibertsitateko Paraninfoan, mahai inguru baten gaurkoa bezelakoaren azkenean, han ere eztaba;da gogorrrak sortu baiziren, hau esan zuen: " Ados dagoena egon bedi eta ez dagoena ez dadila egon. Eta zer, zer nahi degu, euskera salba dadin hala euskalkiak salba da;tezen? Biak noski, Baina euskara salbatuko bada euskalkiek galdu behar badute, gal b;itez" horrela esan zuen, Euskara salbatuko baldin bada euskalkiek galdu behar badute gal bitez. Batzuk ez zerate ados egongo.

OLAZAR.— Benetan negargarria, Patx;k esan duena, negargarria, zuek ondo dakizue latiñagaz zer jaso zan, latin Unibersidadeetan eta administrazioan itz egiten zan, bearbada bosteun edo seiruen urtean, baiña erriak ez eban latiñik egiten eta latiñe galdu zan, betiko, orixe bidea daroa euskera batuak eta gaur dagon euskararako politikak, Unibersidadean indarra emon eta ikastoletan bearbada eta batxillerrean, baiña euskalkiak galdu arren ez dago ardure, ba orduen euskera galtzen danian ez dago euskerarik, or dagona beste gauza bat da, ta euskerarik ez dago euskalkiak galdu ezkerero. Argi egon bedi.

ALTUNA.— Parka zaidazu, parka zaidazu.

OÑATIBIA.— Ze politika erabili galdetu dezu, ba politika bakarra dago.

Izkuntza ingurukoekin alkar ulertzeko zerbait da eta zuk aurrak, ingurukoak itz egiten duten beste euskalki bat batu bat erakusten baldin badiezu, Bizkaian gertatzen den bezala, aur orrek ez du bere ingurukoekin, bere etxeekin arremarik izango. Euskera indartuko baldin bada, lenda bizi danak eta batez ere eskoletan eta ikastoletan amabi bat urte arte, gure iritzia ori da, amabi bat urte arte erri euskeran ikasi bear dute eta erri euskeran lantzen dianian, ikusiko dute beste euskalkietatik alde andirik ez dagola eta eskolatzen baldin badia, norberak bere euskalkia ondo baldin badaki edozeñekin ulertzeko moduan izango da baiña batuan bakarrik beti ikasten baldin badu, ingurukoekin beraiekin ez da alkar ulertuko, orregatik emen euskalkiak kentzen baldin badia, ondo egiñak bitez esan du, euskera..... ori esaldi oi nereko eta erde-raz esango det, "genocidio cultural monstruoso" da ori, erailketa ikaragarria da ori, ain aberatsa dan bizkaiera esate baterako, eta lengo astian Deian agertu da Gotzon Garaten idazlan bat, an esaten du bizkaiera zein izkuntza ederra dan, ta ondoen non itz egiten dan ta, bizkaiera esate baterako ta zuberera zuk esaten duzun bezela galtzia, nai duanak esango du Altunak esan duana, baiña ori jilketa bat da.

ALTUÑA.- Patxi Altunak Joseba Lakarraren hitzak errepikatu ditu, bat; bi, hitz hoiek baldintzazko perpausak dira; baldin euskalkiak galdu baldin behar badute euskera salbatzeko, baldintzazko perpausa da, hori batetik. Martin Olazar jaunari, ez zegok hemen Mitxelena, ez zeon hemen Mitxelena jauna, latiña hil zela, Olazar, latiña hil zela, hori dioena ez da ofiziokoa idatzi zuen behin Mitxelenak, ez zea ofiziokoa barka zaidazu, eta zergaiti ez utzi hizkuntzan aditza ikasi dutenei, gramatika ikasi dutenei, hortan ari direnei zergaitik ez utzi zertan horretaz hitz egiten, latiña bizi bizi bizirik dago, aldatua noski, griego ere aldatua dago orain bi mila lenagokoa Homeroren garaikoa, bizirik dago aldatua, baiña hizkuntza berbera da, latiña bizirik dago, gaztelera, frantsezeran, italieran latiña bizirik dago, aldatu egin da, horregatik izendatu det lehen latiñ bulgar eta latin bulgarra hartatik sortu zen gaztelera ta frantseza, latiña hil zela dioena ez da ofiziokoa idatzi zuen Mitxelenak.

OLAZAR.- Mitxelenak ofizio asko jakingo zitun, izkuntzalaria bazan baiña ez bera bakarra, da Mitxelenaren iritziak ez dira bakarrak, ori argi geratu daitela, latin il zala esatea ez dot uste uts andirik danik, ta ni izkuntzalaria piska bat beintzet banaz. Ez da uts andirik ze gaur egiten dan izketan latiña ez da, Españako izkuntza ez da latiña, eta Italiako bez eta Frantziakoa bez, latiñen umeak bai, umeetan bizi da gurasoa, baiña latiña il zan, eta Unibersidadean egiten zan latiña gaur ez da egiten ez Frantzian ez Alemanian, a il zan ta oin dagoz aren ondorengoak, baiña beste izkuntza batzuk, ez latin izkuntza, latiña il zan ta aren seme-alabak, aren ondorengoak romanzeak bizi dira eta aretan, euskera Unibersidade maillan geratzen bada latiñari jaso jakona jasoko jako, bardin latin joan zan lez, eta latin ez da egiten, bardin joango da euskera, euskalkiak galtzen badira. Ta uste dot, ortik ia seme-alabetan bizi dan latiña latin da? nik ez dot jakin latin danik, romanzea bai, latiña il zan, beti esaten jako latiñari izkuntza illa, "lengua muerta".

ALTUNA.- Baina hori hizkera arrunta da, kaleko jendearen hizkera arrunta da. Latina joan zen, latiña hil zen, ez jauna, hizkuntzalaria batek hori ezin esan dezake, nik hori esaten dizut.

OLAZAR.— Beste batek bai, esan leike, izkuntzalari batek ezin leike esan baiña beste batek bai.

ALTUÑA— Ezetz ba, ezetz ba.

OLAZAR.— Ia esan ortik edozeñeri latiña bizj da ta latiña egiten dau España guztik eta Frantzi guztik, ia nork esaten daben baietz.

ALTUNA.— Ez da hizkuntzazko mentaljdadea, hori esatea, ez da, ez dago hizkuntzalari baten.

OLAZAR.— Ori da egia, latiña il zan eta aren seme-alabak bizi dira, ez dira latiña, romanzeak dira. Latiña il zan eta aren seme-alabak bizi dira.

Azkenengo galdera:

ETXABURUA.— .Iurbira osoko erri guztietan batua bat dagoela, bueno ori leikena da baiña euskeraren egoera kontutan artu bear degu lendabizi, alegia, euskera ez da usadiozko jzkuntza, beste alde batetik euskotar batzuk eus-keraz ez dakite, ta ordun euskotar batzuk ez dira euskaldunak eta euskotarrak ez daukatela zetan euskera ikasi bear ta esan nai det emen bizi geran danok ez dakigu euskeraz, eta batua bat egin daike eta egin ziteken sortu egin zitekean, Euskerazaintzan 1968 arte, bizkaiera ta bizkaiera, ez det esango zeatzikan baino, bizkaiera ezin leike batuta edo, beintzat ia-ia batuta zeola, ta gipuzkera ere bai, ta esan nai det baturantzko bidea bagiñuazala ta orduan ez det esan nai esate baterako batuaren alde ez banago, orrek ez du esan nai ba gipuz-keraz edo bizkaieraz, bizkaieraz idazten badogu, bizkaiera osotua idatziko degu, adibidez ez degu idatziko Ondarrun mendixe, ta Gernikan mendiee ta ez dakit nun mendie, ori beti mendia idatziko dogu, orduan ba batua sortu joan leike baiña belaunaldi geiago bear ditugu, urte batzuk, parkatu orain egun batzuk, Marzelo Otamendik esan zuenez bai emen beste erri batzutan ez dutena egin degu, beste erri batzutan 300 urte bear izan dituzte batu bat egiteko eta guk emen 25 urten egin degu, ta emen ikusten dira orren ondorioak dana arrapalaka ta dana korrika egiteagatik alegia ta orregatik ez dira, Euskerazaintzan bear aiña gazte, txikitatik batuan irakasten dutelako ta andereñoak esaten digu ba ez da det idatzi bear dut idatzi bear da, ta..... ez da esan bear ba Sabino Aranak sortu zuelako ta Jaungoikoa ez da esan bear ori gaizki dagoelako izan bear lukelako ba Goiko Jauna, ta ez Jaungoiko, ta Jaungokioa ez dakit zer da ta orduan danok ba Jainko esan bear dugulako ta, erri erakunde guztietan ta telebisioan ta irratian ta tokj guztitan batua, batua sartua da, ta bizkaieraz ere idazterakoan h-a sartu arazten dizute dirulaguntzak jasotzeko, ordun batu bat egin zitekean baina euskalkiekin batera, baiña ez orain lez ta batua nola-nai sartu, edo batua ala batua eta besterik ez eta ori da eta ordun txikitatik orrekin eziazazi gaitue, ola ba batua ta jende geiena batuan sartzen da, gaiñera gazteak berez ba dauka batua ba iraultzaille modukoa da, ba beti ezkertera joaten da ta, euskera kontutan geienak esaten dizute ez ba guri ola irakatsi digute ta, zabalkunde gitxi dagola? diru gutxi dagolako ta

ETXABURUA.— Aranzazun esan zuten, e...

OÑATIBIA. Orren erantzuna nik emango dizut, Bergarako batzar artan Euskerazaintza sortuko gendula esan baiño leentxoago eta Mitxelenak esandako pelota partiduko istorio ori entzunda gero, nik esan njon, nik esan nuen an batzarrean, Zergatik Euskaltzaindiak ez ditu bi bideak onartzen? Zuek ha..... zuen batu bide ori aurrera eramango dezue, baiña guk euskaldun danok bezela setatsuak gera eta guk ere ez degu h-rik artuko, ez degu zuen batu ori artuko, ta or doa eskeintza ori zergaitik ez Euskaltzaindiak bi bideak onartu eta danok euskeraren alde, danok, euskararen alde, Euskaltzaindiaren babesean jarraitu? erantzunik aitu al dezute?, ba an iñork ez zun erantzun. Orain dala bi illabete Agorraren zortzian lendakaria ta idazkaria Euskerazaintzakoak Euskaltzaindian bildu gñan Haritxelar, Knorr, Arana-Martija ta guk eskintza bat egin diegu, jru illabete badira, eta galdera egin dezun ezkeror nik uste det pozik ira-kurriko dezula, motza da, ortan guk zer eskintzen diogun, ez degu eskabiderik egin, guk eskintza bat egin dogu. Eskeintza ortan gure arrazoiak jarri ondoren, goian aitatutako gai guztiak sakon eta patxadan aztertze-ko, alik azkarren bi erakundeen ordezkarien artean billera nagusi bat egitea, alde bakoitzetik lau bat lagun naikoak lirakela derizko; egitaraua onelako zerbait izan diteke,

1) Euskaltzaindiak milla bederatzireun ta ogeiko urtarrillaren zortzian Arana tar Sabin-ek asmatutako ortografia onartua aztertzea,

2) Bajona, Ermua, Arantzazu eta Bergarako batzarretan onartutako ortografi aldaketak aztertzea,

3) aldaketa oien politika kutsua,

4) euskalkien bateratzea, Euskaltzaindiak egindakoa, Aranak eskiñitakoa, ta Euskaltzaindiak eratuta 1980an Lejonako batzarrera inguratu ziran atzerritar filologoen iritzjak aztertzea,

5) Grezia eta Dinamarkan egindako euskelki bateratzearen porrota,

6) euskera erakusketa erak,

7) mezu bideetan euskalkien erabilkera.

Euskerazaintzaren eskintza au gogo onez artu ta lenbaitlen alkarrizketa auek egiteko egokiera izan dezagula.

Erantzunaren zain gaude, erantzuna etorriko dala esan ziguten, eta etorriko da noski, eta zure galderari erantzuna guk eman diogu.

AZKARATE.– Hori zuzendaritzarekin egindako bilera da, zuzendaritzako erakunde

Ba milla esker etortzeagaitik.



EUSKERA IRAKASKETAN

Ikastola batzuetan, geiegitan' gertatzen arj dana negargarria da. Euskera "latiña balitz bezela" ikasi ondoren' ikastolatik kanpo entzuten dan euskera aurr oieri ulergaitza iduritzen zaie, eta askotan gurasoak euskeraz gaizki mintzatzten dirala dioe. Oraingo zenbait gurasok euskeraz gaizki dakiela egia da, zoritxarrez; baiña aurren aotik "zuek euskeraz gaizki egiten duzute" entzuten duenak eztira oiek, baizik eta euskeraz eta ongi mintzatzten diranak.

Izan ere' ikastola askotan irakasten duen euskerak gure irietan eta base-rietan mintzatzten dan euskeraren antza aundirj;k eztu. Leen Prajntzi'ko eta Espaiñi'ko gobernueri sakatzen genien pekatu berbera egiten ari gera: txeko eta erriko mintzaira bazterturik' beste izkuntza bat irakatsi, eta ikasgai guz-
tjak liburu-bidez ikasitako eta iñon ere mintzatzten eztan izkuntza asmatu orren bidez irakatsi. Gero ikastoletako aurrak alkarrekiñ erderaz mintzatzea ezta arrigarri.

Ikastoleten ikasten dan euskerak ("euskarak") erriko euskaldunekiñ itz egi-
teko balio ezpaldin badu ¿zertarako irakasten da "izkuntza" ori? Euskera biziko baldin bada guztiok mintzatzuz biziko da, eta ortarako euskaldunok dakigun euskeraz mintzatu bear gera. Eta aurrek erritarr euskaldun guztiekiñ euskeraz mintza ditezen' ikastolan ere kalean eta baserrietan mintzatzten dan euskera ikasi eta landu bear due. Euskaldunekin mintzatzeko balio eztnan euskera irakastea' EUSKERA ILTZEKO EGIÑAALAK EGITEA DA.

Mintzaira eta izkuntza idatzia bat eztaozenean' edonon eta edonoiz gertatzen da benetako izkuntza idatzia dana eta mintzatu berriz idatzitik aldendu dan izkuntza mordoillo bat dana uste izatea. Ona amerikarr izkun-
tzalari batek diona:

"The second point to be made is that *the use of writing leads to the folk belief that the written language is the "real" language and speech is a corruption of it.* This attitude seems to be nearly universal in communities which have attained the regular use of writing. It is only the occasional per-
ceptive observer, or in more recent times the professional linguist, who sees the relationship in other terms. To the extent that after the passage of time the written form of the language proves to be the more conservative, the spoken may be regarded with some justification as derived from it, but the picture is invariably more complicated than this, since isolated relic areas may be less innovative than the written language, or the original dialect base of the written language may have been a highly divergent variety of the language.

The importance of this folk belief for language development lies in the way it limits the kind of conscious intervention in the form of language planning that the community will conceive of or accept. Much time and effort is often spent on questions of orthography and language reform, in the tacit assumption that changes in the written language will be followed automatically by changes in speech. Some reforming zeal is also expended on bringing pronunciation in line with existing written norms. Insofar as these various efforts are part of a standardization process which responds to the communicative needs of the speech community, they may result in actual change, especially if they do not conflict with the basic phonological and grammatical structure of the language, but often the efforts fail, at least in part because the beliefs do not correspond to the realities of the written-spoken relationship". (Charles A. Ferguson, Language Development, in Fishman-Ferguson-Das Gupta / Language Problems of Developing National, p. 30).

Ferguson'ek dioinak' emen gertatzen dana ikusirik idatzia diduri.

Euskarari buruz gure irakastegien eginkizuna' ikasleerj beren inguran mintzatzen dan euskera aalik eta ongien mintzatzen, irakurtzen eta idazten irakastea da. Euskadi'ko gobernuak agintzen duan lurraldeetan onelatsu egin bearke litzake: Bizkaia'n, Araba'n eta Gipuzkoa'ko alde batean' bizkaieraz; Ondarribi'n, Irun'en, Oiartzun'en (agian Letzo'n eta Errenteria'n ere bai) naparreraz; eta Gipuzkoa'ko beste aldeetan' gipuzkeraz. Ortarako garai egokia oiñarri-irakasketa-garaia da (EGB dalakoaren garaia alegia); amalauren bat urte izatean aurrek beren erri-aldeko euskera, beren euskalkia ongi jakiñ eta erabilli bear lueke, naiz mintzatuz, naiz irakurriz eta idatziz.

Adiñ orretarako' beste euskalkizko kanturen batzu ezagunak edo entzunak bear litueke, eta amalau urtez geroz' beste euskalkien berri irakatsi bera litzake: guipuzkera ikasi dueneri bizkaiera, bizkaiera dakieneri gipuzkera. Kantatuz eta ipuiak irakurriz' bjarren euskalkja berealaxe ikasiko lueke, mintzatzeko ezpaldin bada ere' gutxjenez bestek mintzaturia aditzeko aiña; orrela' bakoitzak bere euskalkia mintzatu, eta besteenak ulertu egingo litueke. Ori aski litzake euskaldunak beste euskalkidunekiñ errez mintzatzeko, eta iñork eluke euskalkieri kalte egin bearrik. EUSKERA BETI EUSKALKI-TALDETXO BAT IZAN DANA EZTEGU AAZTU BEARR. Asmatutako izkuntza bat indarrez sartzan saiatzea' euskalkiekin batean euskera iltzeko arrisku izugarri bat degu, eta euskera orrelako arriskueta sartzeko eskubiderik eztegu.

GOI-MAILLAKO IRAKASKETA-EUSKERA

Bigarren maillako irakasketa-liburuak goi-maillako ikaskizunen astapenak erabilli bear ditue askotan: matematikak, pisika, kemia, edertia, gizarte-ara-zaok, zuzenbidea, ogasunjtia... Ortarako euskera bateratu bat idaztea egoki litzake, euskalkj bat ongi dakianari eta beste euskalkjak adjzen djtuanari orrek ezpajtio kalterik egingo, ONGI BATERATUA IZAN EZKERO. Goi-maillako gaiak azaltzeko itz egokiak bear dira, baiña euskeraren legeak aldatu bearrik ezta. Ona gai oni buruz Georges MOUNIN'ek djona:

"Lo que se ha conseguido es la clarificación que la lingüística actual aporta al planteamiento de los antiguos problemas de la traducción. Las antiguas explicaciones subjetivas e intuitivas con que se pretendía explicar las dificultades o imposibilidades de la traducción (riqueza maravillosa de todas las lenguas que había que traducir, pobreza incurable de las lenguas a las que se traducía, bellezas y perfecciones manifestadas por el "genio" intraducible de las lenguas, imposibilidad de captar totalmente las mentalidades correspondientes) pierden gran parte de su valor a la luz de los análisis lingüísticos actuales; ya es un adelanto considerable el hecho de poder describir en qué residía la esencia de aquellos viejos mitos.

Ño es ningún misterio que una lengua tenga palabras específicas para designar las realidades no lingüísticas que constituyen su civilización y su cultura, y que otra lengua que no las comparta disponga (sic) de palabras específicas equivalentes. Los indios pyallup de la costa oeste del Pacífico disponen de sesenta términos para designar al salmón, mientras que nosotros disponemos sólo de uno, lo que no autoriza a hablar de riqueza o de pobreza de una u otra lengua: en estos casos la traducción transfiere las realidades extranjeras por medio de préstamo lingüístico o del calco, ya no constituye un misterio constatar que el procedimiento de traducción palabra por palabra no da resultado de una lengua a otra: también aquí, incluso en el caso en que la experiencia lingüística sea la misma (caso de los universales biológicos, sociológicos, etc.), los obstáculos a la hora de traducir que la lengua manifiesta directamente no lo son, en definitiva, más que el reflejo de obstáculos culturales, materializados por las distintas estructuras de ambos léxicos. Tal es el caso del ejemplo clásico de la traducción de la palabra francesa *bois* por el ing. *wood* y *timber*, o por it. *bosco*, *legno*, *legna*, *legname*, etc.

En otros casos, el traductor se encuentra ante dificultades –que son casi imposibilidades– (poco frecuentes, naturalmente) debidas a obstáculos provenientes de las distintas estructuras sintácticas de las lenguas consideradas. El recorte de una experiencia semántica aparentemente idéntico se hace de acuerdo con modelos estructurales que no presentan casi ningún paralelismo: *j'ai mal á la tête*, *me duele la cabeza*, sin que de ello haya que inferir que los interlocutores de dichos mensajes diferentes piensan de forma diferente". (Georges Mounin, "Traducción", en "La lingüística", Guía alfabética, bajo la dirección de André Martinet, pp. 382 ss.).

Eztegu beraz euskera ezertan aldatu bearrik; esakizun berrientzat itz berriak sortu bear ditugu, besterik ez. Eta ortarako bi bide ditugu: beste izkuntzen batean erabiltzen diranak artu eta egokitu, naiz gure erroez baliaturik itz berriak sortu. Ona gai oni buruz Charles A. Ferguson'ek "Language Development" idazkian diona:

"Case studies of rapid lexical expansion in recent times should be made to determine the factors accounting for success in cases like Japanese and Hungarian and relative lack of success in cases like Hindi and Arabic.

On the issue of the source of new vocabulary and the methods of word creation, one important point seems to be that a *technical vocabulary can be equally effective whether it comes from the language's own processes of word formation or from extensive borrowing from another language*. The

issue of purism can be a critical one in the sense that feelings may be strong and disagreements sharp, but it seems almost totally irrelevant to the final success of the lexical expansion process. Of the two examples cited, Hungarian followed almost exclusively the path of internal creation, whereas Japanese used extensive borrowing from English as well". (Fishman-Ferguson-Das Gupta, op.cit., p. 33). Oni buruz (*as well* orri buruz, alegia) zerbait esan bearra dala iruditzen zaigu. Egia da japonesekek ingelesezko itz mordo bat artu eta egokitu dituela, baiña ez geienak eta aldekorrik ere. Ona adibide batzu: Artuak: rakio (radio); shinjiketo (syndicate); takushi; (taxi); terevi (television); teretaipu (teletype); Kurosu wado pazuru (cross-word-puzzle); herikoputa (helicopter); infure (inflation); janarisuto (journalist).

Sortuak: keizai (economy); gishi (engineer); denki (electricity); denryoku (electric power); kokusai-teki (international); toskokan (library); bungaku (literature); kikai (machine); Okura-sho (Ministry of Finance); kakubutsu-kan (museum); tetsuguku (philosophy); mondai (problem); shinri (-gaku) (psychology); ho-sho-no (radio-activity); rekishi (history); seiso-ken (stratosphere); zadan-kai (symposium); soshiki (system); dewa (telephone); ondo (temperature); hen-atsu-ki (transformer); dai-gaku (university); genshi bakudan (atomic bomb) = genbaku (A-bomb); genshi-kaku (atomic nucleus).

Euskerak bere erroez eta bere jokabidez baliaturik beste orrenbeste egin lezake, eta beste izkuntzetako itzetara jotzeko arrazoirik eztegu. "Saturazio-presioa" mordoilla baiño obe degu "asetasun-zapa". Satrustegi jaunak guretako bati onako au esan zion oraintsu: "Batzuk "erdera batua" egiten ari badira ere'ori ezta Euskaltzaindiaren errua, guk eztegu orrelako eredurik eman",

Zatarain' dar' Anbroisi



"MILA PEZETATAKO PAPERA"

Bizpairu urte oetan "mila pezetatako papera" bezelakoak irakurtzez asper-turik nago. Orrela idazteko arrazoi bakar bat ikusten dut, eta arrazoi ori erde-rakada izugarri bat besterik ezta. Nere iritzia argi jartzen egiñaalak egingo ditut.

Gaztelaniz eta beste latinkume guztiez "una cosa de una peseta" eta "una cosa de cinco pesetas" bezelakoak esaten dira: P una cosa de um escudo / de cinco escudos; F uno chose d'un frac / de cinq francs; I una cosa de una lira / de cinque lire; R un lucru de un leu / de cinci lei; ingelesez ere bai: a thing of one shilling / of five shillings. Baiña alemanez ezta orrelakorik: guk "pezeta bat, bost pezeta" esaten degun bezelaxe' alemanez ere ein Mark, fünf Mark esaten da; gizon bat, bost gizon bezela ein Mann, füni Mann. Euskeraz bost gizonak bezela alemanez die fünf kánnner gaztelaniz los cinco hombres itauli bear du.

Didurinez' gastelaniz ongi samar baiña euskeraz gaizki dakienek batzuri gaztelaniz bezela "batzu-itxura" eman nai izan dioe "bost pezeta" ojeri. *Etxe batean sartu naiz* eta *bost exetan sartu naiz* esaten degunez' –ta– orrengana jo due, bost pezetatako, bost dolarretako, eta bakan batzuk ogei urtetako neska idazten eta esaten asi zaizkigu.

Ona Azkue'k jasotako batzu:

CV, 9 aiekak: Tanparranpatan, biar Bilbo'ra noa, tanparranpatan, pezeta bikotan (en busca de pesetabikoa: llamaban así a los soldados forales) pezeta bikoak, ez peztabitakoak.

CV 222 Iru laukoko txokolatetik alperr eingo jok lau lauko, gona gorria salduagaitik eztoz usua galduko; iru laukoko, ez iru laukotako.

CV 251: Zizperriko kalean / kankarra batean / andre bat erosi nuan erreal betean; batean eta ez maiz irakurri dugun batetan.

Aita zanari ikasia: Plazentzitarrek esaten dotxe / errekiari ibaia; / premiñarako artuko leuke / bost pesetako zuria; bost pesetako eta ez pesetatako.

Erdalikeri ori parragarriago gerta dediñ' Espaiñi'ko korreo-seilluak leen 5 pts, 8 pts idatzirik agertzen ziran, baiña orain 1 PTA., 8 PTA., 20 PTA., euskaldunok esaten dugunari dagokionez agertzen dira.

Boilsauk'k ziona gogoan bear genuke: "Avant done que d'écrire, apprenez á penser". Gaztelera burutik uxatu eta euskeraz pentsatzen saiatu bear degu.

Zatarain' dar' Anbrosi



AITA ERROMAN BERA'TARRA TA EUSKARA

Beste lan batzuetan, AITA Erroman BERA'tarraren alderdi egoki batzuek aipatu ditugu. Ikus: Diario de Navarra (1994-XII-3) "Aita Erroman Bera'tarra euskalzalea), SASKI-NASKI (64 zen. Urrilla- "Alta Erroman Bera'tarra Euskal Idazlea"). Orain, emen, euskara nola zaintzen duen aztertu nai genuke.

Gizon ospetsu onen bizitzaren alderdi jakingarri batzuek oroitu araztea bidezkoa deritzaigu.

1978'garren urtean Bera'n jaio zen, Naparroa'n, eta 1959'garren urtean Ondarrabia'n (Gipuzkoa) il. Kaputxinoen bidea artu zuen bein betiko. Urrutieta-ko mixioetan berrogei ta bi urte iraun zituen, Euskalerrian eta inguruan amasei.

Oso aberzalea ta euskalzalea genuen. Asko idatzi zuen euskaraz: gutxinaz irurogei ta bost idazki argitarazten dizkiote. Sabino Arenaren lanak ezagutzen ditu, baita jarraitu ere. Aita Ebangelista Ibero'tarraren adiskidea dugu.

Lau aldiz gogor zigortuta izan zela, ezin aztu. Biotzez maite zituen euskara ta Euskalerria.

Leoi baten indarrak dñtu. Buruan sartzen zaiona, ura egin bear. Bi elburu dauzka lortzeko danez gain; bat eliz euskara salatu ta bi, erdal itz mordolloak erroitik garbitu. Bi eratako idazkiak egiten ditu; olerkiak eta itz lauz. Bitan Sabindarra bezala agertzen da; "ona emen Arana Goiri gure erakusle" (Euskal Esnalea, 1909, 17 zen., 123 or.). Itz lauz egindako lanetik asko euskarari buruz idatziak daude, gure izkuntzaren egokitasuna lantzeko asmotan. Euskara nai du, baiñan euskara garbia.

ELIZ EUSKARA LANTZEN

"Eliz euskera oso porrokatuba dabil", dio JEL aldizkarian, 1908'garren urtean (JEL, 1908, 16 zen., 242 orr.). Eredü gogor bat salatzen du, elizako izlari baten esaldia:

"Nola Noe Patriarken denboran genero humanoen perdizyoa oso tristegarriya zan, ala ere gaurko kristoben kostunbre ta modak nola balsetan ala teatruetan eta beste infernuko disbersiyoetan oso triste ta negargarriyak dira" (JEL, 1908, 15 zen., 232 or.). •

Erdal usaiko esaera zarrak era bat baztertu nai ditu, adibidez: "Komunio Jenerala" (JEL, 1908, 16 zen., 242 or.).

alderantziz elizan euskara garbitu nai luke, ta beste ertzera dijoa zuzenean. Itz batzuek ontzaz artu ditu erriak, beste batzuek berriz ezezagunak egiten zaizki.

Ara ontzaz emandako ereduak:

"ikastola" (Euskal-Esnalea, 1911, 6 zen., 86 or.).

"jaunartu" (Euskal-Esnalea, 1909, 16 zen., 92 or.).

"barualdi"-*"tenpora"* itzaren ordez (Euskal-Esnalea, 1909, 16 zen., 92 or.).

"Aintza" (Euskal-Esnalea, 1911, 23 zen., 301 or.).

"ereserkia" (Euskal-Esnalea, 1911, 23 zen., 301 or.).

Erriak ontzaz artu ez ditun beste eredu batzuek, ematen ditugu:

"izpenak", "sermoyaren" ordez (Euskal-Esnalea, 1911, 6 zen., 86 or.).

"aitortegi", "aitoralki" itzaren ordez (Euskal-Esnalea, 1911, 6 zen., 86 or.).

"alatz", "miran" itzaren ordez (Euskal-Esnalea, 1911, 23 zen., 301 or.).

"goteunge", "diabrua edo etsaya" itzaren ordez (Euskal-Esnalea, 1911, 23 zen., 301 or.).

"donokia", "zeruaren" ordez (Euskal-Esnalea, 1912, 45 zen., 257 or.).

"doibatza", "elizaren" ordez (Euskal-Esnalea, 1914).

"jaupari", "apaiza" itzaren ordez (Euskal-Esnalea, 1916, 132 zen., 174 or.).

ERDAL KUTSUZKO ITZ MORDOLLOAK GARBITU

Gure izkuntza, euskarak berez daukan joskeran, errotu nai du. Zoritzarrez erdal kutsu geyegi sartua nabaritzen du. Erdal joskera euskara izkuntzatik baztertu bearra deritzaio (JEL, 1908, 15 zen., 232 or.).

"ALA...NOLA" esaerak erderatik kutsatuak arkitzen ditu. Eredu bat ematen digu gaizki esana: "ala neguan nola udan ongi arkitzen naiz". Ondo esana, berriz: "uda ta negu ongi arkitzen naiz", edo "neguan bezala udan ere ongi arkitzen naiz", edo "uda neguan ongi arkitzen naiz".

Aldaketa abetan, euskal joskeraren aberastasuna ikusten da. "Juduak" esan bearrean, "Judutarrak" egokiago deritzaio; neurri berdiñean "Kristotarrak" eta "Karlostarrak". "Karlidak" eta "Kristabat" gaizki esanak daude (JEL, 1908, 16 zen., 243 or.).

Euskal joskera garbitu nai ortan bide luzean dijoa. Gaizki esana, "urte baten amaitzia ta bestiaren asiera"; naiko ondo berriz "urte baten amaitzia ta bestiaren asitzia".

"Nere ustez" edo "nere iritiz", ondo esana; ta gaizki "nere iritzira" edo "nere usterera".

"Berori", erdel itz utsa bezala artzen du.

"Niri deritzait", gaizki esana deritzaio; obeto "deritzat", bakarrik.

"Begira eguzkira", gaizki esana deritzaio; obeto "begira eguzkia".

"Nayez", "nayan" ordez erakusten du, Agirre, Mendiburu ta Lardizabal idazten ondotik.

"Nayez", esan bear da ta ez "nayan".

"Z" izate laguntzalle izki berexi ori, euskal kutsudun jatorrena da; "Gipuzkoako eraz", ala dio izkuntzak eta ez "Gipuzkoako eran". Era berdinean esaten direnak: "Donostiko eleaz", "euskeraren alde", "pakez". Egitan ez du euskara arrastaka ikusi nai (JEL, 1908, 20 zen., 307 or.). Erdal kutsuzko esaldi mordollak jasotzen alegintzen da, bear bezala zuzenketak egiteko. Gaizki esana nabaritzen du, "laugarren lekuan azalduko dizuet"; ongi berriz "laugarrenaz".

Gaizki esana, "euskaran itz egin njon"; euskeraz", ondo.

"Egiten dan gisan", gaizki erabilia; "egiten dan gisaz" ondo.

"Au esanarekin asarretu da", esan bearrean, "au esanaz" sartu.

"Luzera, zabalera, laburrera, sakonera, bearrean" itzak erabili bearrean, askozez obe litzake, "luze, zabal, labor, sakon, mear" (Euskal-Esnalea, 1909, 17 zen., 123 or).

Ez dio bakarririk esaldien joskerari begiratzen, itz garbiak ere sartu nai ditu.

EUSKAL KUTSUZKO ITZAK

Iztegi on bat egitea, bidezkoa deritzaio. Arrakasta aundi bat lortzen du lan errekin. Bizpairu argitaldi egiten dizkiote. Ala guztiz ere itz zerrenda berexi batzuek argitaratzen ditu aldizkarietan. Itz batzuek uts jayotzen dire; ez ditu inork erabiltzen. Ale batzuek agertuko ditugu (Euskal-Esnalea, 1909, 16 zen., 92 or.).

"elestuna" (erraztuna),
"estuntza" (katea),
"abelge" (beartsua),
"azle" (ezitzaile),
"gaiztotegi" (espetxea).

Beste itz batzuek iraun dute ta gureak biurtu ditugu:

"ikurriña", —bandera— ordez.
"ludi", —mundu— itza baztertzeko.
"oldoztu", —pensatu— esan bearrean,
"asterketa", —examiña— itzaren tokian.
"begiko", —sinpatiko— ordez.
"gurbide", —karretera— esan bearrean.
"txalogarria", —pausjble— esateko.

Matematikak euskal kutsuzko giroan sartu nai ditu. Lan luzea egiten du ortaz (Euzkadi, 1913, 23 zen., 446 or.) / Euzkadi, 1914, 252 zen., 15 or.). Ara eredu batzuek:

"zenbakiztia" (cuentas, matemáticas),
"zenbaketu" (sumar),
"zenbakendu" (restar),
"zenbakoiztu" (multiplicar),
"zenbatendu" (dividir).

Euskararen etsaiak auxe esaten zuten Euskalerrian: "Euskara ez da gauza aurrei matematikas erakasteko". Lan egoki onekin bidera ateratzen zaizkio Aita Erroman. Langillea ta gizon argia dugu.

Lan berdiña egiten du lutelestiarekin (geografía). Gure izen zarrak, kutsu aundikoak agertzen ditu (Euskal-Esnalea, 1915, 163, 212, 227 or.). Ara aere-du batzuek: "ARGINABARRA, GOIZNABARRA-ILLUNABARRA".

EGAZKALDI IZTEGIA

Begi erne dabilkelako, aurrera begira daukagu. Lenengo egazkiñak 1903'garren urtean azaltzen dire ta 1911'garren urtean asmatzen dabilkigu nola esan ori dena euskaraz.

Ortarako iztegitxo bat egiten du ta osorik agertu nai dugu, aspaldiko lana delako (Euskal-Esnalea, 1911, 12 zen., 163 or.):

Ega (egal = ego)	= ala
Egodun	= alado
Egatu	= volar
Egalari	= profesión de alcar
Egaz	= volando
Egazti	= ave
Egazpen	= aviación
Egazka	= volando
Egazkari (egazka-ari)	= aviador
Egazkaldi (aldi)	= aviación
Egazkera (era)	= aviación
Egazketa (egazka-eta)	= aviación
Egazki (ki = kai = gai)	= aeroplano
Egazle (egaztu-le)	= que vuela
Egazkunde (egazka-un-te)	= avjación
Lurreratu	= aterrizar

Berri labur baten ariketarekin amaitzen du lan orj.

Egakuntzaren aurreneko jtzen urratsak dire euskaraz egiñak.

ESALDI JATORRAK

Izkuntzaren egokjtasunari asko begiratzen dio ta eredu ederrak, esaldi jatoretan arkjtzen ditu. Eskuratzen ditun ederrenak jasotzen alegintzen da. Izkuntzaren dasta ona dauka. Ara eredu batzuek (Euskal-Esnalea, 1913, 234 or., 269 or., 294 or. / 1914, 33 or., 43 or., 85 or., 109 or., 123 or.):

"Bultzia bere bidetjk baztertu zan",

"Gutiz erori naiz",

"Besteak beste",

"Anitz entzuniz naiz",

"Etzuen sugurrik agertu",

"Ardo tantatxo",

"Gero ta obeki",

"Ez da or, ez aratik ez unatik",

"jOrj bai kakolakeri!",

"On egin".

Ez da arritzekoa, orrelako eredutaz oñarriturik, berak ere, esaldi zorionekoak, berez sortzea. Itz lauz gayak atsegin zaizkio. Adibide batzuek ipintzen ditugu: "ta orregatik mendigañetara iges-egiñik, ango azpe-zoko-bordetan erj-gaxo zegoen" (Euzkadi, 1912, 15 zen., 224 or.). Beste eredu ederrak idazlan ortan bertan:

"Gure ontan ortxe dabilkigu, ez zuk eta nik naiko genuen bezin arin ta... baño bai-dabil".

"Aintzina, ba; gjbelekua utzi".

Euskararen mamia, esaldiak dire ta ori garbi ikusten du Aita Erroman'ek. Gajtasun orren jabe agertzen zaigu.

EUSKO ABIZENAK

Eusko abizenak, izkuntzaren ale berexiak direla, garbjrik ikusten du Alta

Erroman'ek. Berrogei ta bost orrialdeko lana egiten du. Arana-Goiri'ren idazkietik jaso ditu (Euzkadi, 1914, 3 zen., 4 zen., 5 zen. / 1915, 8, 9, 10, 11, 12 zen.).

—Abadetxea— izenarekin asten da ta —Zutuetagoitia— abizenarekin amaitzen.

Itzen erroak aztertzen ditu. Euskal jakintzaren iturrjak dire. Asmatzen batzuek errexak, besteak zallak, multzo ederra eziñezkoa gaurkoz. Izen batzuen itzak urruti errotzen dire izkuntzan eta zaila da asmatzen zer esan nai duten. Aurreratzen goazela alor ortik, urrats aundiak eman arazten diogu gure kulturari. Bide luzea dago oraindik egiteko.

BERA'KO ITZAK

Nola ez?, Bera'ko itzak eabiltzea, berezkoa deritzaigu. Izkuntzaren esku ona Arana-Goiri'ren bidez eskuratu du, baiño Bera'ko euskararen kutsua ba datorkio an ta emen. Ara aztarna batzuek:

"matteki", "maite", (Euskal-Esnalea, 1911, 6 zen., 86 or.).

"Agitz", "ematurik", "guziia", "ernai", "pikorrak", (Euskal-Erri, 1909, LX zen., 770 or.).

"Irripitin", (JEL, 1908, 19 zen., 303 or.).

"Darrayona", (Euskal-Esnalea, 1914, 78 zen., 70 or.).

"Xulufrai", (Euskadi, 1910, 5 zen., 391 or.).

"Astuak eleka", (Euskal-Esnalea, 1911, 10 zen., 137 or.).

"Oyaneko txorjak", (Euskal-Esnalea, 1911, 13 zen., 175 or.).

"Eya batian zeuden", (Euskal-Esnalea, 1912, 12 zen., 13 or.).

"Bertzelas gibelan duk", (Euskal-Esnalea, 1912, 12 zen., 13 or.).

"Orkaiztegi jaunak derra", (Euskal-Esnalea, 1913, 269 or.).

"Ezin egin ditekealakotzat", (Euskal-Esnalea, 1914, 123 or.).

Bera'n artutako atsa, nunbait ezin galdu, zorionez.

AMAYA

Euskara atsegin zaiolako lantzen du gogo onez eta argitasun osoz. Mjntzatzea geiago maite zuen oraindik, naiz urrutiko lurraldetan ibilli. Asia'ko mixioetan zegolarik, lekaiame batekin topo egin zuen bein. Ingleses agurtu ziren lendabizi. Espaniar izkuntzaren kutsua zeukala ikusi zuen ondotik. Nungoa zen galdetu zion, baita esan ere Naparra zela. Bera'tarrak izakj biyek. Orduan euskaraz jarraitu zuten, etengabeko elkarizketan. Lekaiame aren izena Rosita zen, Perminesteban etxeko alaba. ¡Ura euskaldunen zoriona!

Azkeneko indarrak galdu arte, euskaraz idazten zebillen. Eunka lerrozko olerkiak idatzi zituen Andra Maria'ren bizitzari buruz. Ez zituzten argitaratu. Nunbait oso egokiak ez iduritu. Oyen billa, galdezka ¡billj naiz. Aztarnik ez dut arkitu. Aita Erroman'en berriak ondo ezagutzen zituen kaputxin zar batek ala zion: "Nunbait olerki ayek, oso onak etziralakoa zeuden eta puxkatu ta botako zituzten".

Dena dela, jakintsuaren argitasuna zeukan gure Aita Erroman'ek, baita euskararen maitasun bizia.



GUDA ONDORENGO EUSKAL OLERTI GIROA

"EUZKO-GOGOIA"

Ekaitz ostean eguzkia bezela, 1936'garreneko guda ondoren, ekaitz bitartean or-emen sakabanaturiko euskaldun jatorrak, nora-ezean diot nik, euskeraren auziari eutsi nai izan zioten kemen aundiz. Aurreko urteetan ere, garai bakoitzak bere maillan eta neurrian, auzi orrentzat askabide baten billa ibilliak genitun; baiña jakingarria dugu onetaz J. Zaitegi'k dioskuna. "Auzi ori-idazten digu—, esan bear, aiek ere beren barne-muiñetan sentitu zuten, auzi orren askabidea ordea, ez zuten guk bezela izkeraren gaiñean ezarri, euskeraren gain, alegia. Ez dago besterik: gure auzia euskerakaskatuko du, ez beste ezerk".

Eta bertatik berak sortu ta aurrera eraman zuen aldizkari errimea, Euzko Gogoa, aipatzen digu. "Orregaitik —darra;— Euzko-Gogoa'n ari izan geran idazle guziok euskera landu, apaindu ta egokitzen eman d;itugu gere onenak. Euskadi'ko mugarte ta gizamailla guzietan aberri-izkera loratu dedin. Euskera mugatu bai bagenu, gure auzi; au bertan gertatuko litzake ustel eta gure erriaren bizitzak ez luke askabiderik izango. Gizaldi eder au Euzko-gogoa'ri zor zaio, gure erriaren auzi-mauzi guziak euskeraren bitartez garbitu na; lituken gizaldi berria" (E.-G., 1955'go orri;lla-lotazilla).

Izan ere, ez zuen auzia askatu nairik, esparru extuetan ibilli na; izan. Ainbat ga; aizatu zituan bere aldizkari orretan. Olerti saillean orduko olerkaririk onenak idatzi zuten, eta Zaitegi'k seigarren urtean gain-begiratu bat egin nairik, onela dio: "Benetako antologi zoragarria, iñoiz gutxitan euskeraz ikus ditekena"; elerti sailla aberats zetorren; jakintza-sailla ere, "gure maizu aundien argitasunez gaiñezka datorkigu"; antzerki sailla berdin.

Arrasate'tar jakintsuak umetatik eraman zuen euskaltzaletasunaren garra, bere izatearen barne ondo itxasita: gurasoak emana nunbait gar orren izana. Eta gusoak emana ez bait da errez urtzen, naiz-eta oillo-lurretik ez urbil bizitzegunak erre bear. Ego-Amerika'n zebilelarik ere, biotz-barru zeraman euskeraganako sua b;ji ta zabal: an idatzi zizkigun ainbat olerki eder, an —Guatemala'n— sortu zigun "Euzko-Gogoa", ainbat urtez euskal lan aintzagarria egin ziguna.

1950'an azaldu zan, sei urtetan Guatemala'n eta gero urte batzuetan Biarritz'en jarraiturik. 1954'an, V'garren urtea zeralama, onan idatzi zuen: "1949'garrenaren ondarrean ag;ri bat egin genun euskeraz, euskal-aldizkaria sortzeko asmotan. Batek edo bestek erantzun zigun gure asmoa aizatu nairik. Ñorbaitek zorotzat jo giñuzan. Alare, esan eta egin, 1950'garren urtean asi giñan".

Norztuk lagundu zuten ere argi ta garbi diosku: "Ba-zetozten euskal idazleak aldizkari berriaren asmoetara: Altube errikoiak, Argarate mixiolariak eta zuzendarjak aurrenekoa idatzi zuten. Bigarrenekora Orixe, Andima, Urrutja'tar Gotzon eta Tauer'tar Norberta etorri zitzaizkigun. Nai izan bezela, oraingo idazlerik bikañenak bertan egin digute batzarre eta lau urte aunditan, oraingo euskal-idazle ta olerkarijak garaienak gureganatu zazkigu: Uarrain, Mitxelena, Jemejn, Mirande, Monzon Onajndia, Aurraitz, Ibalan, Etxaniz, Leizaola, Garate, Larrañaga, Iratzeder, Bordatxuri, Ojartzabal, L. Mendizabal, Antxeta, Peillen, Kruwig, Ibar, Arantzibia eta abar".

Zebillen asmoa zeatz mugatzen du: euskera edertu, gizon ikasiak euskeraz idazten ipiñi, alderdikierietatik iges egin... Entzun berari: "Euskera iraunerazi, edertu ta zabaldu nai dugu nork bere kitatxoan. Gizon ikasiak euskerarenganatu nai ditugu. Ortarako oraindik langu-gabe zeuden gure alorretan ildo berriak urratzen asiak gera. Alderdikeriak oro bazterreratu ta euskaldun guzjak onartu bear dutena onartu dugu. Euskaldun fededun izaki, erdiko bide zabaletik barna jo nai izan dugu. Euskaldun euskerak egin gaitu; beraz, euskera gabeko Euskadi'rik ezugu opa" (E.-G., 1954, Ilibeltza).

Esana dut: 1955'an. Guatemala utziz, Euskalerrira etorri zan emen lan bikaiñagoari ekin al izateko asmuz. Ainbat urrats eman zituen ortarako, nork lagundu billa, bai mugaz andik eta bai emendjak. Etzuen giro ona aurkitu, etzuen laguntzaillerik idoro, berak opa zuen besterik beintzat. Baiña oztasun orrengaitik ere, ezin etsita, Biarritz'en ekin zion, naikoa bakarrik, bere lanari, beste urte mordoska batean.

Gizaseme gotorra zan J. Zaitegi. Eta erbestean najz Ipar-Euzkadi'n, euskeraren alde —eta batasunaren alde— lan bikaiña egin zuenik, bere aldizkari jas aundikoeren bitartez egin ere, ez du iñork ukatu al izango. Euskal idazlerik onenak bere biran bildurik, elerti ta olertjan batez ere, euskaldun guztjok zor diogun lan txalagarria burutu zuen.

"GERNIKA"

Gizona ez dala errez naikotzan dana, esan oi dugu. Eta lan-griñak zirikatzen gaitunean, mirariak egin oi ditugu sarritan. 1945-4-26'an, Donibane Lohitzun'en batzar ba antolatu zuten euskaldun jakintzu mordo batek —I. Fagoaga, J. Thalamas Labandibar...— eta bilkura ortatik erne zitzaigun 9 urte-tan —1945-1953— lan ederra burutu zuen "Gernika" aldizkaria. Lenengo urteetan Donibane'en agertu zan, eta gero, 16'garren zenbakia, 1951'garren urtean Buenos Aires'tik zetorren.

Euskeraz ta erderaz idatzia da, ta lan jakingarriak dauzkagu bertan. Elerti ta olertiari gagozkiola, ainbat artikulu maixuki egiñak irakurri ditzakegu bertan. Olerkarien artean atsegin bekigu auen lanak aipatzea: Iratzeder, E. Erkiaga, Kruwig, Larramendi'tar Iñaki, E. Salaberi, Mirande'tar Jon, Aldabe'tar Iokin, Peillen'dar txomin, Aita Bera, ta besteak. Adolfo Larrañaga bjkaitarraren poema balioitsuak be, erederaz, antxe agirj dira.

"EGAN"

Ona beste aldizkari eder bat, lendabizi erderaz ta euskeraz idatzia izan arren, gerora euskera utsean argitara emana. Ogetamairu urte daramazki eus-

kal-arloko lanean; ezta gutxi. Gipuzkoar argi batzuk sortu zuten, edo BAP'en literatur geiagarri bezela atera zuten, eta ateraten dute gaur ere, A. Arrue, A. Irigarai ta L. Mitxelena zuzendari dirala. Urtean sei ale mardul.

Oleritari begira, 1949-1'en olerkari auen lanak datoz: Emeterio Arrese tolosar poeta bioztiaren 10 poematxo; 1949-2'an, Jose Aguerre iruñar ospetsuaren "Egutegian Oar-ketan"; 1949-3'an, F. Krutwig'en bi olerki ta 1949-4'an, K. Sagartzazu'ren lau poema.

Ikusten denez, "Egan"-ek naiko garrantzi eman dio antza euskal olerkiari. Toki nabarmenean jarten ditu, beintzat, poeten irudikizun eta sorpen dotoreak. 1950-1'an, Alustitza'tar Julian Aita prantziskotar gaztearen 6 poema ta Lekuona'tar Juan Mari'ren beste iru poema dakarzki; 1950-2'an, Nevadako Artzainaren "Nevadatik" eta Jauregi'tar Luis'en "Baserrira Itzulpena"; 1950-3'an, Ormaetxea'tar Nikola'ren "Angelus", Muxika'tar Emiliano'ren "Iaguntzale" ta Pagadizabal'tar Prantzisko'ren "Ene basetxe" ta "Elude"; 1950-4'an, Salbatore Mitxelena'ren "Nere Izarrari", Juan Mari Lekuona'ren "Izaki Abestia" ta Onaindia'ren "Nere Zorjala".

Urrengo urteetan datoz Bordari, E. Erkiaga, Gaztelu, Markiegi'tar Peli... urtez urte konta ezin-al besteren lanak eta lanak. Labor: "Egan-ek lan gaitza burutu du euskal alorrean, ipui, alegi, poema, irakurgai bipil, izkirimiri ta milla gai jakingarritarteko, bere bizitzaldi luze ta ondo arduratsuan.

"KARMEL"

Karmeldar aldizkari au ere eztugu gaur goizekoa, 1949'an Hoz de Anero (Santander)'ko komentuan bizi nintzala, neuk sortua baizik; geroztik dabil gure artean, ainbat gai astindu ta euskal errian zabal-azirik. Ogeta-amabi urteotan izan ditu -ezta arritzekoa!- bere etsai eta aurkalaria, etxean eta kanpoan. Baiña danoi gaiñez egifiñik, aurrera jarraitu du beti.

Urteak joan urteak etorri, guztiz errikoia izan zaigu "Karmel", gure erriak maite izan duena, alegia. Eta erriari zer atsegin zaion jakiñik, ele-ederra ere ugari eman izan dio. Lenengo zenbakitik asita, etengabe ekarri ditu olerki arin, goxo ta erakusgarriak: lenengo aleak 30 poesi zekarzkin. Berton azaldu zan Dante'ren "Suleza", R. Tagore'ren poema sail bikaiña; bertan, baita, urte-mordo ontako olerkaririk onenen bertso-lanak ikusi daikeguz gaur ere (Ikus KAR-MEL, 16 zenbakia, 1980-4, 1 or.).

"MILLA EUSKAL-OLERKI EDER"

1954'an datorkigu euskal poesiari bultzadarik ikaragarriena emango zion olerki bilduma. Argia ezta lakaripean jarteko, ingurukoai argi egin dezan baizik. Nik ere eztut nere lana zertan ezkutatu. "Egi utsa da Jainkoa -dio Santa Teresa'k-, eta apaltasuna egitan ibiltea"; egiz jokatsea, beraz, ezta artobero usaja edaztea, gauzan bakoitzari berea ematea baizik. "Milla Euskal-Olerki eder" nere semea da, ta guztiz kutuna izan ere. Izan nuen nekerik 1.200 orrialdeko bilduma ori osatzean. Aspaldi batetik asi ta egun aietaraiñoko poeten lanak sailkatu nitun bertan. Ale batean eta bitan argitarau ziran olerkiok. Bost bat urte dira osatu nuen beste bilduma bat arrezkeroko olerkari ta poeten lanekin, ots, 1954'tik 1977'ra agertu diran bertso-lanik onenakin biribuldua. Argitara gabe datza oraindik.

Bero bai bero artua izan zan bilduma au Euskalerrri osoan. Goralpenez gair-
ñezkako lanak idatzi zituzten Orixe'k, A.M. Labaien'ek J. Zaitegi'k, Lafitte'k...
"Egan"-en, "Euzko-Gogoa"-n, "Gure Herria"-n eta abar. Orixe'k ikusiaz bat
idatzi zidan, Azkue'ren Iztegiarekin eta Kantutegiaren berdindurik. Orduarte
etzan olako antolojiarik euskal literaturan; itz-lauzko ta poesiari buruzko iru
idaztiño ezagutzen ziran aurretik: erderaz J.M. Leizaola'ren "Literatura Vasca"
(Barzelona, 1923), Espasa'n 1447 orrialdean datorrena, Orixe'ren "Euskal-lite-
raturaren atze edo edesti laburra" (Euskal-Esnalea, Donostia, 1927) ta P. Lafit-
te'ren "Euskaldunen Loretegia" (Baiona, 1931).

B. Estornés Lasa'k, 1936'tik 1960'ra bitartean egiñiko euskal literaturako
antolojiak aipatzean, onela ari da: Una de las lagunas de la literatura euskérica
era la carencia de una antología en la que reunieran textos escogidos de
todas las épocas. Nuestros libros antiguos eran raros y solamente estaban al
alcance de bibliófilos especializados como Julio de Urquijo, Lacombe, Vinson,
etc. En esta situación y no habiendo sido posible la edición de textos anti-
guos, el P. Santiago de Onaindía, llevó a cabo la vieja aspiración. Así nació
Milla Euskal-Olerki Eder (1954), publicada en Larrea-Amorebieta (Vizcaya).

Ibalan'ek (A.M. Labaien) onela "Egan"-en (1954, 43 or.): Liburu eder ortan
oraindañoko euskal Oleriti osoa dugula esan diteke: antziñako guda-kanta
zaarretatik asi-ta egundañoko gazte berri-zaleen itz-neurtu "zazpiki" —etara-
ño. Bidez-bide erritar bertso, maite-lelo, irri-kopla, jainkotiar kantika ta gure
liriko ikasien olerki garaienak agertzen dizkigularik... Artobero usairjk gabe
esan dezakegu: Euskal-Oleritia ugari ta goitar dala ta beste edozein erritakoa
bezin eder ta bikaiña, bakoitzaren neurriaren arabera... Ezin ukatu nekearen
beldurrik gabe ardura eta gartsu lan izugarri bat burutu duna... Liburu bjkain
onek euskaldun sendi ta etxe guzietan bear luke toki berezi bat. Gurer jatorri-
ko altxor eta gordailurik miñena bait dugu. Begien aurrean eta erabat biotz-
barnean beti bear genukena gure asaben arma-arri ta larrutzizko agiriak bai-
ño areago".

Andima Ibiñagabeitia elantxobetar euskal idazle argi-joriak ere onela:
"Gure izkerak ere, askotxok uste izan ez arren, badu bere oleriti-arrobia. Arro-
bi oparo ta sakon orren yabe egin nai lukenak ar beza A. Onaindiaren liburu
esku artean. Antxen arkituko ditu mota guzietako olerkiak, bertsuak, poemak,
izkera arroenen aitzinean bat ere lotsa gabe aurkeztu ditezken poesi zoraga-
rriak. Aspalditik zebiltzan bizpairu euskalzale eun olerki onenak bildu bear
zituztela-ta. Ordago ederra yo die Onaindiak euntxo biltzeko ere gai izan ez
diran oriei".

L. Mitxelena, ez luzekoi guralpenez eta bai zorrotz iritziz, onela dugo olerki-
bilduma oni buruz: "El P. Onaindia ha prestado un meritisimo servicio al cono-
cimiento de la poesía vasca con la publicación de esta antología, extensa y
completa. La necesidad que hace tiempo sentíamos ha quedado satisfecha y
casi sólo con las producciones poéticas posteriores a su publicación podrá
ser aumentada esta colección... Las versiones que se publican parecen en
general fieles a las originales y el traslado a un sistema unificado de ortografía
está hecha con cuidado y discreción".

P. Lafitte'k, "Gure Herria"-n (1955, 148-51 or.), liburuaren goraberak eta
zer-nolak adierazi ondoren, onan amaitzen du: "Gorespenik bizienak zor zaiz-
kio eskuararen eta Euskal-Herriaren izenean. Bada bilduma hortan zer irakur
eta zertan gogo-bihotzak pulunpa arbasoen jeinuaz orhoituz... Aita Onaindia-
ren lan ederrak erakustera emaiten dauku beraz eskual olerkiaren ezagutzeko
liburu baliosa eta haren sailari jarraitzeko parada ona".

Akatsik ote? Jakiña! Antoloji ain aundiak eta aurretiko lan ain exkasez egiñak bear-bearrez eukiko ditu bereak eta bost. L. Mitxelena'k, R. Lafitte'k eta besteak, alan ere, ez dizkiote askorik idoro; bizpairu geienik ere. Ona: 1) zergatik sartu nitun arabar eta napartar olerkariak, zisku bat berean; 2) textu batzuk aldatu egin nitula, eta; 3) olerkari batzuk, zergatik biurtu nitun eliz-gizon. Iru akatsok L. Mitxelena'k aipatu zizkigun BAP'en osatu zuen aurkezpenean. Eta ondoren, beste guztiak ere-ezer aztertu gabe, jakiña-berdin esan dute, itza ta pitza erauziz.

Lenengoari erantzunez, au diot: Ill'garren saillean onela egin nuela zatiketa: Bizkaitarrak, Gipuzkoarrak eta Bidaso'z andikoa. Garai ortako arabarrak iru besterik etziran: J. B. Gamiz, Latierro eta Aizkibel'dar Bingen, au jaiotzez Legutiano'koa izanda ere, la bizitza guztian Bilbo'n bizi izana; naparrak, berriz, Aita Bera, Iraizoz, A. Zاراia, Lazkoz'tar Xabier, Jose Agerre eta Tapia-Perurena, besterik.

Bigarrenari erantzunez, au diot: Ez dala errez textu zaarretan zein dan zaarrena jakitea. Egin nuen alegiñik ortan. Aurretiko bildumatzaille txikietan ere bakoitzak egin oi zitun, itxura danez, bere aldakuntzak eta lendabiziko textua zein zan idoro eziñik aurkitu nintzan bein baiño geiagotan. Ogetazazpi urte iraganak d;ra nik "Milla Euskal-Olerki eder" atara nuenetik; geroztik ikerketa aundiak egiñak ditugu, eta ala ere ba ote dakigu kanta zaarretatik zein dan jator-jatorra, ots, orijinala? Dana dala, L. Mitxelena'k olako erbiko edo uts-egite bat aurkitu zidan, *itunik, tristeri'en* ordez, "Txoriñoak kaiolan" derjtzan maite-kanta liraiñean; eta ondoren, ele-jario guztiak nik textua aldatu nuela errepikatzen du.

Irugarrenari buruz, au diot: Orduan oraindik ez zegoela gerora jalgi zitzai-gun eliz-gizonen aurkako griña zantarrak. Eta nik eliz-gizon ziranei "apaiz" edo-ta "lekaide" goi-izena jarri nien; eta euskal literaturan ordurarteko idazlarik geienak apaizak eta fraileak izan ziralako, onek sumindu zitun banaka batzuk, L. Mitxelena batez ere. Eta au eraman eziñik edo, bere "Historia de la Literatura Vasca"-n (Madrid, 1960) auxe dio soil-soilki nire liburutzaz: "Esta abundancia —apaiz literaturarena noski— resulta aún mayor en la antología del padre Onaindía, que ha dado el título de "padre" a algunos autores que, a lo sumo, no pasaron de ser padres de familia". Salakuntza merke au garbitzeko, au irakurri besterik ez L. Akesolo ta biok jarri giñan "sendi-aita" oiek zeintzuk eta zenbat ziran erakutzen. Xixta maltzuraren irain-mirria laister loratu zan ezpain ertzean. Bizkaitar eta gipuzkoarren artean bat agertzen da, Jose Elizondo Lopez, tolosarra, eliz-gizon eztana, gero "Euskal Lliteratura"-n (III, 241 or.) orraztua; mugaz andik, Elizalde-Ttipi idazle ez omen zan izan apezka. Ainbat ezizen eta ainbat urteren ondoren, ezta gero erreza nor dan apaiza ta nor eztan jakitea.

Utsok gorabera olerti-bilduma onek bere edertasun betean jarraitzen du. Orren erakusburu bikain bezela, orra J.M. Retena'k orain sei urte (1976) bi ale mardul dotoretan osotu zuen ekoizpena. Ezin iñork uka ezaugarri ona danik.

"OLERTI"

Gerotxoago, 1959'an, "Olerti" sortu nuen. Aurkezpen-orrian onela nik idazle i: "Euskal saillean berein tankerako aldizkariak doguz: "Euskera", "Egan", "Euzko-Gogoa", "Zeruko Argia", "Karmel", "Herria", "Gazte", "Othoizlari", "Aranza-

zu", "Alderdi", "Gure Herria", "Goiz-Argi", eta abar. Guzti oneik, bakotzak berre mailla ta neurrian, ederto bete daroe euren egikizuna... Baiña, ba-da, nire ustez, utsune bat oraindik ornidu bage: gure ele eder saillarena. Euskal idazle ta olerkariarik asko dazauguz euren gogo-eta ameskoi ta irudikizun txenbeliñak nun agertarazi ez daukiela, edo argitaratzekotan, txanda luze gogorra zaindu bear dabenak. Ots, gure olerkariak eta bertsolariak ez daukie nun asazkatu, nai bestean, euren biotz-barrena" (Olerti, 1959, 4 or.).

Etzuten bekoki zimirka "Olerti" artu euskal idazleak, olerkariak batéz ere, pozkarioz baizik; poz ori adieraziz idatzi zidaten askok eta askok, idaz-lanen laguntza eskeiñirik. Geroz geiago euskal lteraturaren kondaira jorratu dutenak ere erabat txalotu izan dute aldizkari olerkitsua. Auñamendi'k, adibidez, bere III' garren alean onela dio: "¿Cuál fue la novedad en 1969? Indudablemente, la fundación de "Olerti", una especie de revista donde comienzan a publicar su producción los poetas de todo el país vasco. Su fundador, el veterano escritor carmelita de preguerra, P. Santiago Onaindia. En sus primeros números figuran como fuente de arranque aquellas firmas que vienen de atrás, de la hornada del fundador, bajo seudónimo unas veces, directamente firmadas otras. Pero la aportación de nuevos autores es muy importante, ya que contribuyen desde el primer momento Aresti, Laspiur, San Martín (37 años), Lujs Mújica (20 años), "Ayalde", etc. Se ve con agrado, la inclusión de traducciones poéticas de Gabriela Mistral, R. Tagore, Shelley, F. García Lorca y otros de relieve internacional. Es la primera promoción importante desde Vizcaya" (Literatura, III, 51 or.). Eta geroago: "Una revista de literatura euskérica que iba a dar cohesión y acogida a todo el movimiento poético del país sin descontar la prosa" (Ibídem, 63 or.).

Amar urtez (1959-1969) bizi izan zan "Olerti". Etzuen bizitza urria eraman, bost-sei ederretatik ikusi dezakegunez. Epe barru ortan, sei-zazpi aldiz etorri zitzaizkidan polizikoak, salatzaileak igorrita; urte batzuetan Madrid'era joaten ziran irar-lanak ango (edo Gipuzkoako) azterleak ikus zitzen: lan makurrik izanik, ez zegoen argitaratzerik. Azkenez, "Gaztañadi" atera nuenean, agiri lantz iritxi zirtzaidan Madrid'etik geiago ez ateratzeko aginduekin. "Olerti" etzan, ba, auleriz edo porrot-egitez ixildu, ixil-erazi zutelako baizik.

Gerra aurretiko olerkari askok, esan danez, bertan idatzi zuten, eta -zergaitik aitortu ez?- gazte andana bikaiña bertan egin zitzaizkigun olerkari ere. Batzuk baiño ez apaitzeko, len-urteko aurkibidean dauzkagu auen izenak: E. Erkiaga, L. Arteaga, Laspiur, Aurre-Apr aiz, J.M. Muxika, A. Zugasti, G. Manteola, Juan San Martín, Iratzeder, Bordari, Otarr i, Peli Markiegi, Jose Aguerre, Ayalde, Ordar zubi, Dirauket, E. Igartza, Egieder, Abeletxe, I. Baztarr ika, B. Enbeita, M. Lekuona, ta abar; ondoren ditugu: B. Gandiaga, J. Azurmendi, S. Muniategi, J.M. Lekuona; Gaztelu, Erdoizanzi-Etxart, Orixe, Jautarkol, A. Bilbao, Paulo Iztueta, Loidi'tar Paben, eta abar eta abar.

Tamalgarria zan aldizkari eder eta guztion au, amilbeera txikotez loturik bezela, mutu edukitzea. Sarri eman nituen oster a ere piztu-azteko urratsak, baiña itz labanak baiño besterik ez nuen jaretzi. Eta urduri nenbillen, euskal olerkia gero ta beerago bait zijoakigun; gure aldizkariak bakana zebiltzan olerki-gaietan, eta noizik-bein poesi-libururen bat kaleratzen; besterik ez. Gauza zuzena ta egokia zan, bada, "Olerti" berriz ateratzea. Eta ona, igaz, gutxien uste nuenean, gizaseme zintzo ta euskaltzale jator batzuei esker, berriz ere leen bezela bizi-bizi kalean.

BIZKAIERA

Azken ogeita zazpi urte onetan Euskalerriko zazpi probintzietako 22 base-ritan nabil, itzak, esakerak eta atsoitzak biltzen. Zuberoko Larrinetik asi eta bizkaiko Zeanuriraiño. Bai zoragarria eguzkiz eguzki beti euskeraz egiten deben baserritarren euskera! Ez dago inongo euskera guttiesterik.

Alere, euskal egiturari begira (alderdi fonikoak eta lexikoak ez dabe orrenbesteko garrantziarik) euskerarik onena bizkaieraz egiten dala esan bear da. Batez ere Mondragoi, Aretxabaleta, Ezkoriaza, Aramaio, Oñati eta erri orreen inguruetan.

Orko euskerak baditu ia bizkaieraren alderdi on guztiak eta orren gaiñetik beste batzuk. Beraxe da gutxien erromanizatua dagoan euskera.

Bizkaieraz gipuzkerak baiño askoz obeto bereizten ditu:

Erreflexiboak (*neure, zeure...*), intensiboak (*neu, zeu...*), erakusleak (adis-kide maiteak), konpletibak *-na/-la* (etorri dana badaki / etorri dala esan dau), eta *-la/-nik* (etorri dala usten dot / Ez dot usten etorri *danik*).

Konjuntzioak oso ederki ipinzen dira bizkaieraz azkenean: "Nik ori ekarri *arren*", "Nik asan neutsan *baña*", "Nik esan neutsan *barren!*" (= bai arren). "*Nahiz* ori ekarri" askoz erdaldunago da.

Bizkaieraz oso ondo bereizten dira *iñor / beste*. *Iñor besteak orokorki* da. *Beste* jazargoan erabiltzen da: "Ori iñoren lepotik bizitzeko ona!". "Batzuk onak dira, *besteak* txarrak".

Oso diferente dira bizkaieraz "Etxe *baten* egon naz" eta "Etxe *batean* ondo eta bestean txarto dagoz".

Bizkaieraz biziki ongi bereizten dira *bere/bera(re)n*. "Amak *bere* umia maite dau. *Bera(re)n* aitzak ez. Latinez ere orrela: "Mater filium *suum* amat; *illius* soror non amat eum".

Eta zer du Mondragoi-Oñati inguruetakoko euskerak beste tokietako bizkaierak, Markiñakoak, adibidez, ez dauana?

Etengabe erabiltzen dabezen aditz-sustantibo moldeak. Moldeok euskararen usain ona dabe eta batzuk beste euskalki guztietan galdu egin dira.

"*Adiket*an dot", "pentsaketan dabe", "*zainket*an dogu", "ifinitzu esnea beroketan", "ondo *geldiket*arren", "illunkeran", "ezkondukeran", "*joker*an", "*alabet*an dozu", "batonbatek bere burua abonetan badau", "asko kostetan dau", "gomutetan naz", "preguntien joaten da Erromara" eta orren antzeko moldeak sustantibo moldeak dira.

Guk "aditzen dut", "pentsatzen dut", "ifini zazu esnea berotzen", "ondo gelditzearren", "ezkontzean", "preguntatuz" esaten dogu. Gure moldeok erromanizatuago dira.

-keta sustantibo molde orreetatik guri banaka batzuk bakarrik gelditu jakuz: "Urketan da", "orrazketan diardu" eta orren antzekoak. Ez gerundionaren ordezkak egiteko, baina.

Aramaio, Mondragoi, Oñati inguruetakoko euskerak, beraz, Gipuzkoako alderdi onak, Bizkaiko molde paragabeak eta orreetaz gainera eskualde orretan bakarrik aurkitzen diren berezitasun aberasgarriak ditu.

Batzuei belarrietarako zakar eta basati idurituko jake. Amazonasko oianak bere baratzetxo ondo zainduak baino zakarragoak eta basagoak dira. Bai eta askoz zoragarriagoak bere.

Gotzon Garate



EUSKAL-IZENAK ERDIAROKO IDAZKERAN

(Begiraldi Orokor Bat) (1)

Amaitu dugu Errjoxa'ko Kukulla'n, Donemillian'en "monasterio" edo Lekai-detxean antziñate artan ongi gordeak izan ziralako, gure egunotara irixti zaizkigun VIII eta IX mendeetako larrukietan, euskal-izenen azterketa-lana.

Badut lan ori bera gaiñerako larrukietan ere egiteko asmoa. Ez dira asko Euskalerriaz mintzatzen zaizkigun IX mendeko larruki oiek. Gejenak, Baldego-bi, edo Gobiaran'en dagoan "Vallis Composita"ko gotzaien "jauregian" idatziak. Orain "Valpuesta" esaten diote erri orri, eta Burgos'ek Araba'ko Gobiaran'en sartzen duan adar estu baten mutur-muturrean dago.

Ekintza ortan asi aurretik ordea, egoki derizkiot egindako lanaren emaitzari so-aldi orokor bat ematea. Bikojtza izanen dan so-aldia:

Aurrena, Larruki oietan agertu zaigun ortografia oroitu nai nuke: Batez "H" izki iskanbil-sortzaille orren idazkerari dagokion aldetik.

Uste baiño larriagoa da indarkeri gorritz sartu nai diguten "H" orren istillua.

Onako arrazoi txepel auek eman oi dira bere erabilketaren alde:

— 1.^a: "Iparraldean erabiltzen dala". Bai, baiñan Egoaldean ez, eta

Egoaldekook Iparraldekoak baiño askoz geiago gera, %90, eta geiengoak egin beardu legea.

Demokraziaren muiña dan Arau orri, "minoriak ere errespetua merezi duala esanez" erantzun zion Koldo Mitxelena'k Arantzazu'n. Bedi, Mitxelena: guk ez diegu Benaparrei eta Zuberotarrei "H"rik kenduko; alderantziz, errespetu guttiz artuko dugu aiek beren oituren bidetik jarraitzea.

Orrela, gutxiengoari errespeturik aundiena gordez, bai noski, baiñan legea egin, geiengoak egin beardu legea. Eta geiengo, Koldo, gu gera. Naiz idatzi

Naitanaiezkoa dut, beste ooren aurretik barkapena eskatu bearra. Gutun bat bidali zidan dirala egun batzuk Jaime Kerexeta adiskide zintzoak. Ementxe nai nuan gutun ori gaur argitaratu; eta bertan eskatzen zizkidan erantzunak ematen saiatu. Nere paperen artean galdu zait ordea gutun ori, eta ezin izan dut aurkitu, naiz arreta guttiz billatu. Barkatu, Jaime. Urrengo zebakirako utzi bearko dut eginkizun atsegiñ ori, ordurako zure eskutitz ori aurkitzeko gauza gertatzen ba-naiz.

bai, "H"rik agoskatzen ez duan Laburdieraz mintzatzeko diran Laburditarren zenbatzeke ere, eundik ogei ta amarra! %90! (Irakurleak jakingo du noski Laburdi'ren Sortaldeak benaparreraz egiten duala, Gipuzkoa'ren Sarkaldeak bizkaieraz egiten duan bezala).

Arazo ori Mitxelena'k baiño askoz obeki ikusiz, "ez zazute "H"rik artu; gure artean ere "H"a galtzen ari da. Gu urpera goaz gaiñera. Ez zaitezte urpera dijoan ontzi batera sartu", aolku-eman zuan zugurki Lafitte'k Arantzazu'n bertan.

Guk, Koldo, beti izan diegu eraspen osoa "H" erabiltzen duten euskalkie; Ez diegu sekulan "H" ori indarrez kenduko.

Ez du eraspen ori erabilli gurekin zure Euskerazaintzak, Koldo. Ezta Eusko Jaurlaritzak ere. "H"rik ez ba'duzute artu nai, ez duzute Jaurlaritzatik txanpon bat ere jasoko", agindu-eman zien ikastolei, orduan Eusko-Jaurlaritzan Ezikuntza-Ministro zan Etxenike'k. Ala gelditu ziran pilloka gure biltokietan, guk ikastoletarako gertutu genituan ikaste-liburuak; eta an daude oraindik, txit balio aundiko liburu bikaiñak.

"Minoriarentzat errespetua" eskatzen zenuan zuk, Mitxelena. Non da "maioriar;" zor zaiona?

—2.^a: "H"a kultura aundiko euskeran izan dala erabillia". Bedi. ¿Baiñan kultura urrikoak izan ote dira, Larramendi, Kardaberaz, Mendiburu, Mogel..., eta gaur egun, —gure idazle bizi bikaiñik aipatzeko—, Azkue, Orixe, Lizardi, Lauaxeta, ta Lekuona bezalako gizonak? Kultura murritzekoa ote da orrelako gizon oiek erabillitako euskera?

—3.^a: "Antziñate artan, "H"a, asko erabilli zala gure larrukietan". Bai. Baiñan ori dioteneke oso asti motza erabilli dute larruki oiek azterketan, eta, orregaitik, "H"ak larruki zarretan izan zuan eginkizuna usmatu ere gabe ari zaizkigu mintzatzeko. Ainzuzen orixe da, Euskerazaintza izeneko aldizkari ontan daramagun azterketagintzaren elburu nagusia: Larruki oietako "H"aren zergaitia zintzo ezagutzera iritxi aal izatea.

—4.^o: "H"a bearrezkoa dala Euskera Bateratu batean". Zertarako? Ori esatea, Euskeraren egiazko BATASUNA zertan datzan ez jakiteaz gaiñera, "H"a geien-geien-geiengoaren Euskerarentzat zenbaiteraiñoko eragozpen izugarria dan ez ezagutzea ere bada. Eta jakiña, geiengoaren euskera iltzen ba'da, bigaramonerako illik izango da, orain ere eriotzara-bidean gurea baiño askoz azkarrago dijoan gutxiengoaren euskera. Orregaitik esan zuan ain zugurki Lafitte'k Arantzazu'n: "Gu urpera goaz. Ez zaitezte urpera dijoan ontzi batera sartu".

"H"a, Euskerarentzat ezeze, eragozpen aundia da, izki ori agoskatzen ez duten erderentzat ere. Bedi, lekuko neronekin eta nere millaka ikasleekin gertatua:

Gazteiz'ko Elizbarrutjaren Politeknik-Istitutoa ez da auntzaren gauerdiko eztula. Jorrail ontan bertan ikastetxe ortan ikasten ari diran neska-mutil gazteak 3.738 dira. Bá, ikastetxe ortan egon naiz ni irakasle 34 urtez, egunero 4 edo 5 irakast-ordu nintuala. "H"aren eta "V"arekin nere ikasleek zeukaten borroka garaitu eziña ikusita, izki guztiak agoskatzea erabaki nuan, borroka ortan nere neskatx eta mutil aiei lagundu naiez: "Jabía una fvez un jombre que tenía un hijo"... Alperrik. Len bezaian baldarra jarraitzen zuan gazte aien idazkerak. Irakasleen illeroko billeretan eskatu eskatzen nien nere irakas-kideei laguntza. Alperrik. Ez bait zidan iñork deus erantzuten. Aspertuta, "Jaunandreak, —esan nien bein—, guztiok erdaldunak zerate, eta ongi eskolatuak. Ez

ote zerate zuen izkuntzaren "H" a ta gaiñerako izki guztiak era egokian agoskatzeko gauza"? Eta au da aietako batek erantzun zidana: "Ez. Ez gera gauza, zuk nai duzun bezala, orrela, bat-batean, ez "H" guztiak agoskatzeko. Eta ez zaitez arrotu. Zuri ere, ori egün aal izateko, latiñak laguntzen bait dizu. Guk, ordea, latiñik ez dakigu". Andre, Andereño ta Jaun aiek guztiak, lizenziatuak ziran; eta beren arteko bat edo beste, doktoreak!

Arana Goiri, Azkue, eta Euskaltzaindi zar bikain ari eskerrak, ezerezturik geneukuan guk, euskeraren ikasketa errezaren onerako, "H"aren eragozpena. Eta, baita "V"arena ere.

"V"arenak ezerezturik jarraitzen du. Ez dakit zergaitik; "H" a, lengo zarrak erabilli zutelako idatzi bear ba'da, lengo zar aiek "V" a ere ugari erabiltzen bait zuten. Adibidez, "Vizi, "Vilintx", "Vertsolari", eta orrelako beste asko aurkituko dituzu Arana'tar Sabin'en aurreko paperetan.

"H" a da, arin eta errez euskeraz idazten eta itzgien ikasteko, izan daitekean eragozpenik okerrena. Bá, orra non sortzen digun orain Euskaltzaindi berri ganoragabeko onek, ezerezturik genduan eragozpenik makurren ori!

"H" a eragozpen? Izugarrija gaiñera! Nere latiña ta guzti gaur ez bait nintzake irakasle-egunetan egiten nuana birr-egj'teko gauza izango. Amar urte daramazkit bá, egunero bederatziren bat orduz euskera bakarrik idazten. Eta, orren ondorioz, zerbait gazteleraz idatzi bearrean aurkitzen naizenean, "V" a ta "H" a noiz erabilli bear diran aztutzen ari zaidala ederki oartzen bait naiz!

Solasaldi luze au bukatzeko, bedi au nere azken itza: Euskera il-zorian daukagulako, ez dezaioGUN gelditzen zaion arnasondarra eragozj lezaiokeanik ezer gaiñera jaurti. Alderantziz, egin dezaioGUN al dugun guztj'a bere arnasketa zail moteldua errezagotzeko, ta errezagotuz bizkortu, indartu, ta bein betirako sendotzeko.

Ortarako, euskeraz idaztean, erabilli dezagun idazketa argitu ta irakurketa erreztu dezakean guztia, eta kendu dezagun j'dazketa ta j'rakurketa zailagotu dezakean guzia.

Eta, oroi dezagun "H" dala euskerari gelditzen zaion eragozpenik okerrena, eragozpen bakarra, ta nekagarriena, ta alperrikakoena.

"H"aren erabilketa ez da euskeraren j'dazkeran, sinistuerazi izan diguten bezain "betikoa". Apika dokumenturik zarrenetan agertu ere agertzen zaigun. Gero, XI mendez gero, asiko zaigu ugaritzen eta ugaritzen, laterazko dokumentu zar aietara sartuta, lateraren eraz idatzitako euskal-izenetan. Zergaj'tik ote XI mendez geroko "H"en ugarj'tze ori? Ez dakit. Oraingoz ez zait arrazoi bat besterik etortzen lumaren punttara: Lumalari zar aien arrokeri kokoloa, ots, "H"ak ugari sartuz kultura aundiko gizonen itxura egiten zutela uste izatea.

Bat bakarra da VIII mendeko larrukia. Gure dokumenturik zarrena. 759'ko Jorraillaren 24'ekoa. Larruki ortan ere "H" bat agertzen zaigu, baiñan giza-izen batean datorrelako, guk darabilkigun arazo ontarako oso garrantzi txikiko "H" a, giza-izen oiek gejenak erdiaroan atzerritik etorriak izaten ziralako.

"HURRACA hic roborabi" ("Ñik, Urraka'k, emen izenpetu dut") irakurri deza-kegu larruki ortan. Baiñan izen ori bera, eun unte geroago "H"rik gabe ikusiko

duzu: "URRACA regina". Aurreneko Urraka ura, gaur Errioxa dan lurraldeko lekaima bat zan; bigarren au, Leon'go erregiña.

URRAKA ori ez ote da euskal-izena? Gaur, gazteleraz, "urraca", euskeraz "mika" esaten zaion egaztiño zuri-beltx ori da. Baiña mende aietan gaztelerarik ez zan, eta izen ori zeramaten bi emakume aietatik, euskalduna zan ezpairik gabe lekaima, eta leondarra erregiña, baiñan Gaztelerrian jaioa, Fernan Gonzalez Gaztela'ko Kontearen alaba, ta IX mendearen azken-aldera euskaldunak ziran oraindik Araba'tik bereizi-berria zan Gaztela txiki artako konteak. Itzaren itxurak, URRRA-KA, euskalduntasuna adierazten digula dirudi. Urraki da, Gipuzkoa'n, Goiaz gaiñeko mendi baten izena.

* *

Sar gaitezen IX mendera. 12 dira mende ortako larrukiak Kukulla'ko larruki-taldean. 12 oietatik 7, batere "H"rik ez dutenak dira, naiz toki-izen eta giza-izenez beterik egon. Ikus ditzagun bá "H"ren bat badakarkiten beste 5'ak.

800'garren urteko Iraillaren 15'ekoa dugu larruki oietan aurrenekoa. Giza-izen bat, "Handaliscus", eta toki-izen bat, "Elhain", damaizkigu "H"z "apainduta"

Mena Araneko erri ta jendeetaz itzegiten digu larruki orrek, eta 800'garren urtean, IX mendearen astapen ber-berean, euskalduna zan Mena'ko aran eder ura. Euskaldunak ditugu, beraz, bi izen oiek ere. Zer ote dira?

HANDALISCUS, dokumentuaren azkenean lekukotza egiñez izenpetzen duan gizaseme menatarren baten izena. Nominatibu-eran dago, eta "izena" ez baiña adjetibu edo "izenondokoa" dala dirudi: "Andalitarra" edo "Andaletarra" edo "Andalatarra" edo beste orrelako zerbait.

"Anda"z asten diran jzenak, Araba'koak bakarrik, "Anda" beraz gaiñera, 22 damaizkigu Gereñujko Loperena'tar Jerardo'k, eta izen oien artean "Andala" eta "Andalen"2.

"Handaliscus" itzak ez du "H" bat eramateko batere arrazoirik. Larruki zarretan "H"aren eginkizuna, atzerritiko karta-jokuetan

"komodiñak" izan oi duan eginkizunaren antzekoa da: Beste izkj baten tokian jarria, izki orren nortasuna artuz, izki orren soiñua ematea. Ez ordea beti. Batzuetan "H" a, lumalari baten txolinkeri utsa besterik ez bait da.

ELHAIN. Orrela dator "gotiarra" esan oj zaion Kukulla'ko Larrukien idaztian. "Galitarra" esaten zaionak ordea ELHAN dakar idatzirik izen ori bera. Nasketa oiek zer erakusten diguten? Euskerari-buruzko larrukietan ezin dezakegula itxu-itxuan uste on aundiegirjk ipiñi!!!3

² Gerardo López de Guereñu: "Toponimia Alavesa". Bartzelona, 1989.

³ Bi lauriki sortan gorde dira Kukulla'ko dokumentuak. "Becerro", "Zekorra", esan oi zaio sorta oietako bakoitzari, zekor-larruan idatzi zalako. "Becerro Gótico", izen eman zaio bietako bati, "Becerro Galicano" besteari. Aurrenekoa, "Goitarra", galdua dugu, eta XVIII mendean egindako bere kopi bat da gugana Iritxi dana: Bate-re arrazoirik gabe, soilki Minguela'k bere idaz-lanetan erabilli zualako, "Colección Minguela" ere esaten zaio kopi orri, eta ori da, "sin advertirlo" (Obieto) Luziano Serrano Silosiko Abata beneditarrak bere "Cartulario de San Millón de la Cogolla"n (Madrid 1930) argitaratu zuana. Bestea, "Galitarra", AntonIo Ubieto Arteta Balentzi'ko Unibersitateko irakasle ongi ezagunak argitaratu digu: "Cartulario de San Millán de la Cogolla".

Itz ortako "H" a, ezpairik gabe dugu "komodin". "G" baten tokian dago eta "G" orren nortasuna artzen du. Elhain, beraz, ELGAIN dugu; Elhan, berriz, ELGAN

Bi izen oietatik ¿zein izan daitekean eskierrena? Menatarrak Autrigoiak zirala, eta Karistiarrak bezala aiek ere "GAN" esaten zutela Bardulitarrok eta Basakoiek "GAIN" esaten dugun itza kontuan arturik, ELGAN izanen zala dirudi tokiaren izen jatorria.

Barkatu: "L"-osteko "Ha", geienetan, beste "L" bat izan oi da. Baleike, beraz, "Elhain" ura "ELLAN", eta beste "Elhan" ura "ELLAN" izatea. Guereñu'ren liburuan aurizki ori daramaten izenek, geienek "L" bakar batekin daramate ("Elan-zarra", "Elan-o", "Elan-zal", "Elanzabal seguruaski", "Ela(n)-ostea", "Elagorri", "Elajaurra", "Elamendi", "Elarabide", "Elarola", "Elarro", "Elauri", "Elaiatusabela"...). Badira bi LL daramazkitenak ere: ("Ellacuri" Llaudio'n, "Ellabeia" Arroiabe'n); ni, berriz ziurki usterik nago, antziña artako euskaldunek "LL"ren doiñu goxoa guk baiño askoz eta askoz geiago erabiltzen zutela. "L"aren atzetik "H" a toki-izenetan ainbat aldiz aurkitu izateak, eta toki-izen oietatik asko oraindik "ll"z esanik entzun izateak eraman nau uste orretara. Alare, oraindik azterketa geiagoren bearrean aurkitzen naiz iritzi zurrago bat eman ahal izateko.

* *

- 853'ko Uztaillaren 4'koa dugu urrengo "atxedun" larrukia: "De monasterio Sancti Martini de Jhania partis Mene": "Mena-aldean Jhania'ko Donemartiñ'en lekaidetxetik. Dakusazunez, Autrigoitarren lurraldean jarraitzen dugu.

"JHANIÀ" ori zer ote da? Esan dezagun beste oren aurretik, bai idazti gotiarrean bai galitarrean "Jhania" ori dokumentuaren izenburuan datorrela, ez dokumentuaren gorputzean, eta izenburu oiek askoz geroago idatziak izan zirala. Ori gogoan gordez, esan dezagun orain bi gauza izan daitekeala izen ori:

Izan daiteke "IGANIÀ", lateraz "J" eta "l" bata bestearekin errez trukutzen ziralako, eta "NI", dakigun bezala, erdiaroko jende aiek "Ñ" agoskatzen zituztelako.

Izan daiteke "IMANIÀ" ere, dokumentuaren gorputzean "Jhania"rik agertzen ez dan bazala "Imanna" bat, bai, agertzen bait da; eta "NI" bezala "NN" oiek ere "Ñ" agoskatzen bait zituzten.

"Jhania"ren "H" a nola sortu ote zan? Dokumentuaren gorputzeko "Imanna"ren "M" a, izenburuaren idazleak "H" zala uste izan zualako. Errezak bait dira eta oso maiz gertatzen diranak, larruki zarren irakurketan orren antzeko irristaldiak.

Larruki auetako tokj-izenen etimologiaz mintzatuak gera-ta, zillegi bezaigu bein esana birr-esaten ez astea.

* * *

HUZUZA: 869'ko Orrillaren 2'an idatzia izan zan larrukiak damaigun toki izena: "Sancti Jacobi et Johannis de Huzuza". Orrela idazti gotiarrean. Galitarrean ordea, "Sancti Iacobi et Sancti Iohannis de HUZIRZA".

Oartu al zera nola dauden bi idazti oietan "J" ta "l" bata bestearekin trukaturik?

Guri ordea, orain, "gotiarra"ko Huzuza eta "galitarra"ko Huzirza oiek ajola zaizkigu. Biak erri bat beraren izenak dirala, ezbaiean ipiñi ez daitekean gauza da, berealaxe ikusiko dugun lez. Bi izen oietatik zein ote dago ongi idatzia? Huzuza, zalantzarik gabe:

Orrela bait dio "gotiarra"ren esaldi osoak: "Sancti Johannis de Huzuza, Uzuza de sursum eta Uzuza de deorsum": "Huzuza, Uzuza goiko eta Uzuza beeko Donibane".

Eta ori bera egiten bait egiten bait du "galitarrak" ere: "Sancti Iacobi et Iohannis de Huzirza, Uzuza de sursum Uzuza de orsum".

Eta lerro batzuk aurrerago, bi Uzuza goikoa eta beekoa batean aipatuz, onela diote bi idazkerek, gotiarrak eta galitarrak: "Fenstero abbas de Sancti Iacobi ("Jacobi" gotiarrak) de UZUZAS": "Fenstero, bi Uzuza'etako Jakoba Donearen (lekaidetxeko) Abata".

Dakusazunez, bein bakarrik "Huzirza", beste bein "Huzuza" eta lau aldiz "Uzuza", eta izenburuan ere Uzuza esaten bait da, erri Autrigoitar aren egjazko izena UZUZA zala esatera bearturik aurkitzen gera.

"H" a seguruaski beranduago sartua izanen du. Ez bait dugu beifere aztu bear Ubieta Arteta'k damaigun oarpen auxe: "He insistido reiteradamente que la documentación de San Millán de la Cogolla contiene abundantes falsificaciones, sobre todo en los textos más antiguos" (op.c.6).

* *

Egunaren eta illaren aipurik gabe 871'an idatzitako larruki batek "H" duten izen dakarzkigu: Ereihehi, eta Helhorriga "zekor gotiarrean" eta Ereihehi ta Belé horiga "galitarrean".

Larruki ontan aipatzen diran erri guztiak arabarrak dira; geienak Araba'ren ipar-iparrekoak, an bait dago, gaur Akosta eta orduan Okoizta esaten zitzaion erriko Donebixente'ren lekaidetxea, eta an bait daude, baitare, lekaidetxe orri Bibere Araba'ko lenen gotzaiak eta gotzai onen aide ta lagunek egindako emaitzarik geienak. Emaitza oien berri emateko izan zan berriz idatzia larruki au.

EREIHEHI "...ubi iniciat via zatica sub defesa Ereihehi" gotiarrean, eta "ubi iniciat Biazatica sub defesa Ereihehi" galitarrean.

HELHORRIGA, gotiarrean: "et de Spino abbate Helhorriga". BELHORRIGA, galitarrean: "et de Spino abbate Belhorriga".

Itz oien etimologiaz itzegiña naizela badakit. Ez naiz oroitzen zer esan nuan. Zana zala orduan esana, aitortu dezadan orain apalki "H" guzti oien izateko-arrazoirik ez dedala ezagutzen. Alare:

- Ziur nago ez dirala IX mendekoak. Askoz geroago sartua dirala.
- Ziur nago, baitare, ez dirala sekulan esan "J"ren doiñuz agoskatuak izan. Ez dala sekulan, itz ojek "EreiJeJi", "JelJorriga" edo BelJorriga" agoskatu dituanik izan.
- Ziur nago Helhorriga eta Belhorriga erri bat beraren izenak dirala, berdiña bait dute biek "kontesto" edo ingurubira: "de Spino Abbate" arras ulerkaitz ori. Baiñan guzti ortaz mintzatuak gera.
- Ziur nago, -larruki zarretako "H" a batzuetan edergajllu uts eta beste batzuetan "komodin" bat izaten dala ondo dakidalako-, "Ereihehi" orren bigarren "H" ori "G" izkiaren lekuan dagola: "Ereihegi" dala, beraz, izen orri egin bear zaion lenen irakurketa.

- Ez nago ziur, ez orixe, baiñan itz orren beste "H" orrek ere, edergaillu utsa ez dirudianez, komodin bat izan bear dualako, "Ereihegi" ori EREÑEGI biurtu dezakegula iduritzen zait. Zergaitik? "H" ori, larruki onek izan dituan kopilari ugariatetik gaizki ikusi ta gaizki idatzitako "N" bat izan daitekealako, eta geienetan "NI" k baiñan baita batzuetan "IN" k ere "Ñ" ren doñua izaten dutelako. Bedi guzti ori, oker ibilli nindekealako bildur aundiz esana.

Araba'n badugu bere izenean aurrizki ori bera daraman erri txukun bat, au ere batzuetan "H" z eta beste batzuetan "H" rik gabe idatzia izan dana: Ereña.

- Ziur nago baitare, "Helhorriga" ren bigarren "H" a eta "Belhorriga" ren bakarra, biak "komodin" bat bera dirala, "L" aren tokian dagoana, eta, beraz, "LH" oiek "LL" agoskatu bera dirala: "Bellorriga", "Hellorriga".

- Ziur nago baitare, aski ziur beintzat, "Hellorjga" ren lenen "H" a apaingarri uts reta geldo oietako bat dala. Orrela, izen ori ELLORRIGA biurturik gelditzen zaigu.

* *

VIII eta IX larruki kukullatarretan aurkitzen diran "H" en azterketa zan nere gaurko eginbearra. Emen duzu bá "H" oien azalpen orokorra: Orrenbeste larrukietan ainbeste ta ainbeste giza-ta-toki-izen artean, SEI, (16!) "H" ttontto bakarrik. Eta SEI oietatik BI, gure asrnoetarako ain garrantzi aundirik ez duten giza-izenak. LAU, beraz, LAU bakarrik, mende guzjan, toki-izenetako "H" ak. Eta LAU oiek ez, seguruaski, IX mendean sartuak, ez; askoz geroago baizik.

- 1.^a: Larruki ontan "H" z, Baiña ia beti "H" rik gabe idatzia izan dan URRAKA eme-izena. Beste lau aldiz agertzen da Kukulla'ko larrukietan izen ori, Urraka, eta beti "H" rik gabe.

- 2.^a: Muturrean, mendeak-zear norbaitek noizbait edergaillu ttontto ori sartu zion HANDALISCUS. Edergaillu ttonttoa; bai bait dira beste 22, Kukulla'ko larrukietan, "AND" izkiez asten diran toki-et-giza-izenak, eta bat bakarrik ez atxedunik.

- 3.^a: ELHAIÑ edo ELHAN. Noizbait bi era ezberdiñez irakurria -eta idatzia- izan zan toki-izena.


- 4.^a: Au ere noizbait bi era ez berdiñez ("Huzirza", "Huzuza") irakurri ta idatzia. Eta, gaiñera, dokumentu bat bereko lerro berean "H" z eta "H" rik gabe idatzia. HUZUZA, bein; UZUZA eta UZUZAS, besteetan.

- 5.^o: Ñondik ortza sartzerik ez duan EREIHEHI. Ereñegi, agian?

- 6.^o: Ñoizbait gaizki irakurri eta okerrago idatzia izandako beste tokj-izen bat: "Helhorriga" "Belhorriga". "L" ren atzeko "H" ren zeregiña ulert-erreza dugu. Bestea, bera ere ong; ezaguna dugu edergaillu tentela.

Agur irakurle, eskuetan daukazun zenbaki onen urrengoan, VIII eta IX mendeetako euskaldunek gurtzen zituzten Doneetaz mintzatuko gera, Jainkoa lagun.

Latiegi'tar Bixente



OLA GIZON ETA BURNIAREN ABESTIA

Dingi, dingi, clanga!
Burniaren otsa
Danga, dindi, clanga
Ekin, su-arotza!

Lurrean sortua
yalgia lu etik,
Gizona bezela
Bizira eldurik;

Mendia zulatu
Umandi'n goitxoan,
I antxe aurkitu
Bildurik moltsoan.

Dingi, dingi, clanga!

Zulotik at mena
Egina lur gori,
Zamak egin dena
Olarako igo i;

Intusi'ko ikatza
Murumendi'n ari,
cien lagun batza
Su artzeko gari.

Dingi, dingi, clanga!

Mena landu bear
Labeen txit gori,
Sututako txinpart
I Irtuta ixi iri:

E etenetan otz
Mamitu burnia,
Gerturik an artoz
Yarduteko abia.

Dingi, dingi, danga!

Gogortu aiz burni
Zie a utzia,
Nork bigundu iri
Barneko isia?;

Arotzaren naiak
Ori baita beti
Al-inda en gaia
Lanean yarduki.

Dingi, dingi, clanga!

Eztitu bea ez
Sutegira oa,
Agaz eragitez
Goratuz beroa;

Ola-gizon antxe
Erdi billuzturik,
Lortzean olantxe
Beratzeko osorik.

Dingi, dingi, clanga!

Izerdi xu utan
Su-arotza zegok,
Burni erabilatzean
Otzik gabe biok;

Labe-zolan biraz
Burni-moko biuf,
Arturik ku ikaz
Matxinora ziu .

Dingi, dingi, clanga!

An bai, dingi, clanga!
Gizonak zuzenduz,
Egoki luzanga
Emateko gartsuz;

Matxinoak dingi
Eta danga gero,
Ola-gizon ili
Biotzan dik bero.

Dingi, dingi, clanga!

Burni-aga egiña
Labera be iro,
Bertotzeko aña
Gabierako gero;

Gabikoren dingiz
Poliki guritu,
Zunbilletara agitz
An bertan iyeztu.

Dingi, dingi, clanga!

Neu iz zatiturik
Beratuz sutegin,
Ongi eraturik
Malluka ingudin;

Arotzaren antzez
Aizkora naiz añitzu ,
Azkenik geratzez
Ola nola biu .

Dingi, dingi, clanga!

Bai, gogora aiz burni
Gezatzeko zalla,
Aski ez labetoki
Egiteko emalla;

Sua bea gori
Bein eta be iro,
Dangadaka gabi
Matxino dingiro.

Dingi, dingi, clanga!

Lankai-eragille
Ola-gizon dala,
Bera da langille
Alduna bezala;

Beraren naimena
Antze ta inda a,
Goigo ta kemena
Lanaren zuzta a.


Dingi, dingi, clanga!

Buruz dangakada
Dingi-dingi biotz,
Beso mallukada
Garaile su-arotz!!!;

Bigundu aiz burni
Naimenak ezi on,
Inda!' erakutsi
Gora ola-gizon!!!

Dingi, dingi, clanga!
Burniaren otsa,
Danga, dingi, clanga!
Ekin, su -arotza!!!

UMANDI



ANTXOA ETA ITXAS- ERRIETAKO ESAERA BATZUK

- Antxoa txikiak baiño kontrario geiago.
(Arrain guztiak ibiltzen diralako antxoaren billa).
- Antxoarik ez da ganoraz agertzen, santuak kalez kale oreatu barik.
(Aste Santuari buruz esaten da).
- Antxoa, urte erdiko jakia.
(Lengo denboretan, neguan gaur baiño aukera gijxiago egoten zalako, antxoatako dirua, irabazia, izaten zan neguko zorrak ordaintzeko).
- Ondarrun antxoa eta Getarian bokarte, ainbeste alderik ez dago bien bitarte.
- Antxoak lako zirjiña egin eban amak gure txikiña.
(Ume zistrin edo ziriña gertaten danetan).
- Martiko antxobia, erdia ur eta erdia mamiña.
(Oraindik biguna agertzen dalako).
- Apirilleko antxobia, santuen miserikordia.
(Aste santu eta abar sartu bear dira orretan).
- Antxoa kaletan bota-botaka, laster jausiko da norbait txirristaka.
(Antxoa ugari sartzen danean, bere ur eta mamiz bete eta kutsututen diralako baster ugari).
- Antxoa atsa, aberatsa.
(Antxoa usaiñak dirua ekarten dualako errira).
- Edozein da arrantzale, antxoa "emen nagoka" dabillanean,
- Lapiko bete indiar jan da gero be, gure totolo antxoa gose.
- "Pla-pla" egindako antxoak lako jatekorik ez dago.
("Pla-pla" egindako antxoak, zabaldu eta brixiduak izaten dira).
- San Gregoriotan, antxoa bere sasoi onetan. (Maiatzean).
- San Gregoriotako euri ziriñe, antxoa likiñe.
- Antxoa adurra. (Euri ziriñari deituten dautse, Udabarrian edo Maiatzean).
- Antxoa bitsa. (Antxoa adurraren kideko esaera).
- Antxoa gozuenak sutetik arakuak direz, bero-bero. (Bermeo).
(Egin barriak, adierazteko).
- Antxoa txikia agirian.
(Norbaitek mutjil ezaugarria agirian dabillanian).
- Antxoa buztana aidian.

(Norbaitek mutil ezaugarria agirian dabillan).

- San Jose lorak zenbat eta lenago, antxoa arriño.

- Umeen jaiotza eta antxoa:

Etxeren baten ume bat jaioten danean, oiturazko da itaundutea:

- Ze izan da?

Eta mutilla ba da erantzun zeatza izaten da:

- Antxoa txikia.

(Neska sortzen danean arrain bigunen baten izena emoten da).

- Gaur antxobia parra parra ibili da. (Ugari ibili dala esateko).

Bermeon barditsu esaten dakie, baiña farra-farra edo barra-barra itzak erabili.

Manjungie. Ala Bermeon. Ondarroan manjubi.

(Izurdeen joaldiaz atara ondoren, arrain txikiak arrantzateko erabidea, inguratzeko sare edo treñen bidez).

Arrantzialien arteko beste esaera batzuk

- Etxean inpernuko diabrue eta kalean oso-osoko santue.

- Arraiñik ez eta al garete, pal=palian ibili bear. (Pal-palian, au da, abiada gitxigaz).

- Zelako arraiña zara zu?

- Arrain zantarra. (Bermeon zantar itzak ez dauka beste toki batzuetako esan nai lizunik. Arrain zantarretan ibili, esate baterako, arrain txikitán, esan gura dau. Ondarroan arrain-zantarretan esaten da. Berba bardiñekaz, Bermeo'n pertsona bategaitik, "arra;n zantarra da esatea, bada-ezpadakua dala esatea lez da).

- Esan nai bardiña. baña berba ez bardiñekaz, adierazten da Ondarroan "batetik bestera ibili" esaten doguna.

Ori berori Bermeo'n, Aranda'tik Miranda'ra ibili esaten dakie. Eta Lekeitio'n, Kristo"ren Nekaldia gogoratuaz, Anas'enetik Kaifas'enera ibili, esaten da.

Beste berba batzuk

Josj

Bermeo'n "josi dot lasune" edo "lupin au ondo jositta dator" esaten danean, amuan ondo sartuta datorrela adierazten da).

- Atuna.

Atun belarria. (Orrela deitzen dautse Bermeo'n atunaren urdail egalari. Ondarroan, erderazko "ventresca" tik edo, "mindriska" esaten da.

Gauza berberarentzako beste berba bat be erabilten da. Bermeo'n, esateko, injadia, baña agiri da erderazko hijada dala.

Atun burua.- Esan bearrik ez zer dan, baiña Bermeo'n gauza itxusi, motza edo antzerakoa adierazteko, ba dakie "atun burua" erabilten.

Atuneta, atunetie, atuntsu denbora, atun sasoiá,... atun arrantza denboral-diagaitik esaten dira.

Betarrak eta goitarrak. Bizkaiko arrantzialientzat, betarrak Kantabria eta Asturias aldeko arrantzaleak dira, eta goitarrak giputxak eta laburditarrak.

Garra.- Laiño antzean olatuak ondartzetan edo aitzetan sortzen daben bitza, bermiotarrentzat garra da.

Entzadue.- Agirian dago, batez be zegaitik erabilten dan jakinda, erderazko "encerado"tik datorren berba dala. Ur eta euritarako jantziakaitik esaten da.

Beste berba bat: Ondarroan narruzko prakak. Bermeo'n praka-narruak, jaka-narruak eta abar.

Frakarroi. Bermeo'n igaritarako jantziari deitzen dautse. Ondarroa "bañuko erroa".

Erlaizea. Au da, itxasoan apar zuriz betetako olatuak diranean esaten da. Bermeo'n olarrua deitzen dautse. Beste ainbat tokitan: ardi zuriak itxasoan.

Popakoixu. Ondarroa'n geldi egon eziñeko pertsona.

Popaixe. Bermeo'n buru-ariña, zentzu gitxikoa.

Itto berba eta erabilbide batzuk

Itta, uretara jausi ta itto. Txalupa killaz gora geratu ta Andres itto.

Barrezka itto.

Diruz ittota egon. (Pertsona aberatsa).

la ixittuan ibili, joan. (Arin, azkar ibili).

Egarriagaz ittoten egon. (Egarri aundia).

Itto barreka. (Ittobearrean, barrezka).

Beste esaera batzuk

- Ezkondu ondoren be etxatzu faltako Martian Garizumia.
- Mundaka'ko lorue lez geratu. (Ao betea azurrez geratu. Izorratuta).
- Goizian norezian jagiten danak, gero be eztau bide zuzenik.
- Okerreko begitik ikusten dakianak, bakerik ez.
- Olatu aundi, aize ta euri.
- Ondarrun kalma zuri edo kalma txitxa dana, Bermeon Habana.
- Kankamuak jota dabil ori. (Erdi zoratuta ibili). (Arrantzaleak sare eta treñetatik txikota pasateko dauken uztai antzeko tramankulua da "kankamua".
- Gazte izan bako zarra.
- Killaz gora egoteko obeto da ori, etxea astintzeko baiño. (Era lasaian ondartzan etzanda egotearen zale diranekaitik esaten da).
- Beti taketian dabillanari, jaramon gitxi.
- Tretzak nastuten baiño eztaki.
- Maritxuk tuntuxe deko. (Bermeo'n aurdun dagola adierazteko).
- Uxuxue dalakoan, potorruek urten. (Bermeo'n Uxuxue itxas ertzeko txoria da, erderazko alca. Potorrue = ubarroia. Esaera ori, beste adierazpen baten, erdaldunen "ir por lana y salir trasquilado"ren antzeko da.

(Oarra: Bermeo'ko berben ezaupide eta esan naia, Antonio Perez Bjlbao'gandik dakit).

Zubikarai tar Augustin



ALDIAN ETA EDESTIAN BARRENA

Noiztik geran edo noiz egin gaituzten españiar.

Zer gera gu?

Nor gera gu?

Lagunarteko abesti errikoi onek ez dio galdearari zalantzarik uzten. Euskotarrak gera gul Orregaitik Joxeba Elosegirekin amorruez diogu: makilka egin nai gaituzte españiar.

Emen, gerana ta ez gerana jakiñarren, Galindez'en Beristain'en eta R. de Olano'ren krisailluz bidea arazki argituko zaigu.

Euskaldunok Edestian sartzten.– Kristo aurretiko 59 urtean jaiotako Tito Livio edeslaria da gu aipatzen gaituan lenengoa. "**Decadas**" liburuan, Sertorio'ren gudaketaz ari dala onela dio: "...per vasconum **agrum** ducto **exercitu...**". Geroztik, gizaldien joanean itz au berbera darabilte gerkarak eta beste latinuak ere. Itz orrerik "eusko" itzarekin zerikusi duanik nola ukatu?

Idazle danak erritar-deitura darabilte, "gentilizio" alegia; eta ez esanai geografikoarekin. Bisigotak berak "domuit vascones" dalako esaldi aipatsuarekin (eta frankuak ere) dioguna baiezten digute.

Hispania izena antziñatean.– Hispania (edo Esperia, Iberia, e.a.) deitura geografikoa besterik ez da. Ez dakar gentilizio kutsurik. Erri-edo askotxoan luraride da. Egotik etorriak batzuk: gerkar, feniziar, kartagotarrak... Eta iparretik beste batzuk: zeltak...

Erri auek bertakotarrekin dira. Milla errapetik bazkatutako erri auek, erakunde politiku jakiñik sortzen ez dutenez, guretzat biztanle-multzo soillak dira.

Lenengo aldi ontan "Hispania" dalako orren aztarnarik ez da. Jaio gabe dago.

Geroago sartzten dira Hispania oni izen eta jtxura politikua emango dioten iru erri berri, iru olatualditan.

Lenengo alian: erromatarra. Zazpireun urte dirau. Erroma'ren menderri edo kolonia onek bere lege, izkuntza ta erakundeak sortzen ditu. Orain azaltzen da "hispani"-itza erromar eraskiña dakarrelarik.

bigarren aldian: godoa, 475 garrenean eldua. Eta bi gizaldi t'erdi dirauna. Irugarren aldian: arabiarra, 710 urtean etorria.

Gure Euskalerrria, eskualdeka, oriengandik bereiz dabil. Ta betiko askatasunaz ibilli ere.

(Hispania'ren tankeratsu Italia ere jzen geografikoa da, zenbait errik osatua. Gaurko Europa politikua danaren antzeko).

Vasconia itzaren sorrera.– Bisigotak "Vasconia" itz geografikoa darabilte euskal nazioaren bizilurra adierazteko.

Onela, "Chronicon"en J. Biclarensis'ek: "Leovigildus rex partem Vasconiae occupat"; "Historia Francorum"-en G. Turonensis'ek: "Baudastis ^Yero Dux, in Vasconiam abiit...".

Vasconia deitura geografiko au gentiliziotik da sortzen. Hispania, alderantziz, izen geografikoa da berekin gentilizioa erakarririk.

Sevilla'ko San Isidoro.– Garai artako zenbait idazlek Vasconia itzaren aipamenak egiten dizkigute. Isidoro deuna tarteko bat. Orra, telebistaz entzundako teletsaio batean: Zazpigarren gizalciiko San Isidoro'ri buruz eztabaida bizia. Leiakide batek españar jotzen zuan santu au. Besteak españar izenik etzego kiola zion, ez bait-zan españiar, ez odolez eta ezago izkuntzaz (gaztelera ez bait-zan oraindik sortu). Eta Hispania'ri santu onek egiten zion kanta etzala lurraldeari egiten ziona baiño.

Antziñateko kronistak.– Bisigotar kronistak ez dute beiñere euskalduna bestes iñorekin naasten euren aipamenetan. Euskaldunak norberatasun edo nor-izate berekia daramate Tjto Livio ezkeroztik aldarazi ez dana. Eta zeaztasun beretsurekin aipatzen gaituzte arabiar kronikariak.

Garai ontan, euskal amalur bilduan Pirinetako erreinu bat, Naparroa, azaltzen da, len baiño "vascones"-esanai mugatuago ta geografikoarekin.

Sorrera ezberdiñeko erri-mosaiko batek astintzen du erromatar sorpena dan "Hispania" deituriko lurraldea: asturiar, catalunyar, e.a.

Euskaldunok, endaz eta izkuntzaz lengoan jarraitzen dugu, lurralde berean.

Leon eta Castilla.– Bisigotar ondore-erentzi dan Leon agertzen da. Sorberriko Castilla'z jabetuz asten da konkistatzailléen joku bizia "España"-ri sorrera emanik eta batera españarrai.

Erdi Aro asieran, Gaztela indartu artean, ez da "España"-izenik aipatzen. Castilla ta Aragoi baturik, moruen Granada-erreinuaren konkista Castilla ta Leon izenean egiten da. Eta era berean Amerikar lurrarena.

Felipe II'garrenarekin indar artzen du hispani-españar itzak. Izen au etzaie euskaldunai egokitzen, bereiz darraite-ta.

Denboraz bizkañtar deiturapean ezagutzen dira euskaldun guztiak. Loiola'ko Inazio'k, bere ta Xabier'en buruaz ari dala "canthabri" sasi-deitura erabiltzen du, eta ez "hispani", arek Bobadilla, Salmerón eta Lainez jesuitak aipatzeko darabillena.

Errege Katolikuak eta españar batasuna.– Eskoletan ikasitakoa: Fernando eta Isabel'ek, 1512 urtean Napar-lurraz jabeturik asten dute españar-errien batasuna. Ez da egia. Zortzi urte lenago, 1504'garrenean illik zan Isabel. Eta Isabel'ek eta Fernando'k peninsulako erriekin Estadu bakar bat eratu nai zutenik ere ez. Dana egi ustela.

Jarrai irakurtzen. Franco'ren ministro zan Conde Rodezno'k 1939 urtean Iruña'ko jzparringi batean idatzirik utzi ziguna: "Peninsulako erreiñu ezberdiñen politikazko batasuna Errege Katolikuai leporatzea topiku arrunta da. Errege Katolikuai etzitzaien ezta irudimenetik pasa ere olakorik; erreinu oien politikazko batasuna ez bait-zan aldi artako pentsamentuan sartzen".

Aitorketa onek noiz eta nundik datorren ikusita ez du iruzkiñik bear. Baiñan Errege auek edo-ta aiek iñoiz batasuna lortu ba'ziguten, orrek zera esan nai

du: erriak etzerala berdiñak. Beraz, nola batu eta legez lotu izatez berdiñeza dana?

Gure Lege Zarrak eta erregeen zin-egintza.— XIII'garren gizaldian gure euskal eskualdeak Castilla'ko koroiaekin egindako itunbena zala-ta, erregeek gure sortzetiko askatasuna (legeak egiteko eskubidea: Lege Zar edo Foruak onartzen dutela zin egiten zuten. Españi-izenik ez da iñun agertzen, ez españar itzik guri leporatzen. Dokumentuak, "nazio banatuak" —separadas— geranez "Castilla'ko erregeek... Naparroa'ko... Bizkai'ko Jaunak izenpetzen dituzte.

Alaz ere, oraindik Españi-itzak geografi-kutsu besterik ez ba'du ere, berekin dakar naspil-itxura. Denboraz "Españi-izenetako errege-erregin" izenpetzen asten dira agiriak eta ez "Naparroa'ko erregin... Bizkai'ko jaun...".

Euskaldunok "monarkia" itza darabilkigu agiritan, politikarien eragiñez ordea, Españi-itza len baiño geiago erabiltzen da. Eta Karlista-gerrak oldarrez bizieraziko dizkigute gure kaltean gertakizunak.

XIX'gn. gizaldia, trumoitsu ta gatazkatsua.— XIX'garren gizaldirarte, zentzu politiku betean beintzat, ez da españar estaturik, ez españar erririk. Amaseigarren gizaldiz gero, Españak —las Españas— izenez ezagutzen dugun onek ez dakar oraindik, ainbat erri ezberdiñez arteko oreka politikua billa nairik, indar geografikoa baiño aruntzagoakorik ezer. Frantzia'k jotzen du. Eta guretzat, batez ere, urtegun bat dugu benetan aipagarri: 1839.

Bergara'ko itzarmena, dagonillak 31.— Gure Lege Zarrak —au da Euskal Kostitutuzioa— aintzat artuko dituala Espartero'ren esanak naikoa dugu euskaldunok armak lagatzeko. Ez al du ekintza onek garbi adierazten gudan parte artzea etzala erregearen alde egiteko, Lege Zarrak galtzeko arrixkua ikusten gendualako baiño?

Bi illabete geroago, Urriak 25'an, euskal arazoetan beñere tartekatu gabeko españar korteak, dakigun legez, eriotzaz zauritzen zituan gure Foruak. Eta munduko kostitutuziorik zarrena, Euskal Kostitutuzioa, indarrez españar kostitutuzioaren mendeko egiten zaigu.

1864. Egaña'tar Pedro: euskal nazionalidadearen aldarrikapena.— Madrid'eko Senatuan, euskal foruen aurka ari zirala, España gasteiztar senatoreak gure Erriaren pitzatu gabeko milla urtetako "euskal naziotasuna" aipatu zuan itzaldi bikain batean euskal burujabetzaren alde. Etzan olako "biraurik" an beñere entzun. Ua izan ziteken agian, argitasunerako gakoa. Baiñan jarki zitzaizkion gogor gure Foruen etsaiak. Ta Egaña'k, zerbaiten atzera egiñez, "organizazio berezia" itzaz goxatu nai izan zuan esana. Esana, ordea, betiko esana ta aldarrikatua zegoan.

1876. Zergak eta gudaritza.— Sanchez Bella frankistak, 1955 urtean argitaratzen zan "Nuestro tiempo" aldizkarian, 12'garren zenbakian, au dio: "1876'go legearen bitartez españar-batasunaren prozesuari gaillur ematen zaio. Canovas del Castillo lortutakoa da.

Beraz, zergak ordaintzera eta gudaritza egitera beartzen gaituan 1876 garrengo erabaki-lege au da gure burujabetzaren aurkako azken kolpea. Españar biurtu gindunarena?

España, ordea, ez da nazio biurtuko, ainbat Erriren Estadu baizik.

Egaña tar Gotzon



EUSKAL SINISMEN ZARRAREN JAKINTSUA: ANES ARRINDA ALBISU

Liburu berria: "LOS VASCOS, DEL ANIMISMO A LA ROMANIZACION".
Sortzailea: INSTITUTO LABAYRU, BILBAO, 1994.

Atera berria da liburu mardula, erderaz idatzia; 617 orrialde ditu, baita argazki eder, marrazki ta mapak.

Gaia, euskaldun zarren sinismenari erantsia dagokio. Arkeolojiaren bidetik jotzen du ta orduko gizaseme aiek aztikerizko jokabidetan sartuak ikusten ditu, baita gogoko ekintzetan. "Euskalerriko edesti zarra, kobetan egiña dago; gure leitze oietan daude euskal kulturaren aztarnik zar eta ederrenak", dio Anes Arrindak. "Edesti berria Erromatarrekin asten da", jarraitzen du...

Aspaldiko garaietan, atzerritar erriak euskal lurretara etorri zirela, esaten zaigu. Indoeurpeotarrak, Keltak eta abar, Jentillak bezala artuak ziren. Euskaldunen oiturak eta izkuntza kutsatu zituzten. Iku zenbaterañoeko latinezko itzak ditugun artuak (345, 355 orr.). Arriagarria ere zenbaterañoeko euskara kutsuzko itzak, gaurko Euskalerrri inguruan, urrutiraino eratuak arkitzen ditugun (568-569). Xetasun ugari ematen ditu egilleak. Ala guttiz ere, naiz euskaldunak arrotzekin ondo nastu, euskarak iraun gaur arte.

Sinismen zarra, gai ori, ez da liburu bakar batena, bizitza osoarena baizik. Anes Arrinda, gazte zelarik, Joxe Migel Barandiaran'ek, bide ortik darama. Gero, 1966'garren urtean, Teologizko Doktoradua Erroma'n, Lateranense Ikastetxe Nagusian, gai ortaz egiten du. Azterketako gaia berriz "Euskaldunen Sinismen Zarra" dauka, etnoloji aldetik berriak jasotzen ditula. Urte askotako lana du or egiña. Eredu ona eman nai die ikasle gutzietei: euskaldunentzat euskal gaiak.

Anes Arrinda ez da liburu baten gizona. Gai oneri buruz ikus:

- RELIGION PREHISTORICA DE LOS VASCOS, 1965 (Lenengo ontatik iru mila ale egin zituzten, baita bereala agortu).
- MAGIA Y RELIGION PRIMITIVA DE LOS VASCOS, Bilbao, 1985.
- LOS VASCOS DE LA MAGIA AL ANIMISMO, INST LABAYRU, Bilbao, 1992.

Euskaraz idatziak, ere, ba du liburu saila: gutxinaz amar.

- JUAN NO TXIKI, 1969
- OTO TA POTOTO, 1969
- GU EUSKALDUNOK, 1969

- XEMENO DE LAZKANO, 1970
- EUSKALERRIA TA ERIOTZA, TOLOSA, 1974
- EUSKALERRIA TA ARRANTZA, 1977
- POEMAK, 1987
- AMAIRU KONTAKIZUNAK, 1987
- OTO TA POTOTO (bigarren), 1988

Euskaraz idazten, Manzano'ren eriotza ondotik asi zen (1966). Zigorra ta begi beltzak ugaritzen zijoazten eta burura galdera bat zetorkion: zer egin euskaldunen alde? Euskara zuzpertzta ta ortarako euskaraz idatzi. Geroztik, paper pillla egiña arkitzen dugu. Orrelaxe sortu ziren euskarazko liburuak, baita berreun idazlan: ZERUKO ARGIA (asko), DIARIO VASCO, ZER, EUSKARAZAINTZA eta abar.

Zergatik azken liburua erderaz? galdetzen nion. "Gaur euskeraz argitaratzeko biderik ez dagolako; aukera erderazko liburuarentzat izan det", erantzuna.

Nor dugu Anes Arrinda? 1912'garren urtean, Leke;tio'n jaio zan. Aita Eustakio Arrinda, Lekeitio'tarra, Pysbe delako lanartearekin Terranoba'ra zijoan bakallo arrantzara, 1907'garren urtean asita. 1713'garren urtea ezkerro, Utrech delako itzarmenen urtea ezkerro, Euskaldunak ez zijoazten Terranoba'ra, arrantzara. Eustakio Arrinda lenengo euskal kapitana zen Terranoba'n.

Ama, berriz, Lazkao'tarra; onen aita errementaria zen. Anes'en gurasoak, lau seme-alaba euki zituzten.

Anes Arrinda'k, ikasketak, Saturraran, Gazteiz eta ERROMA'N egin zituen. 1937'garren urtean apaiztu zuten, baita ELVILLAR errira bidali eta andik Zumarraga'ra. Azkenean Deba'n ogeitamar urte erretore bezala ditu.

Euskalzaletasuna, apaiztegian, Manuel Lekuona'kin sortu zitzaion. Antxen asi zen euskaraz idazten. Euzkadi, berriz, indar aundiakin, zortzi urtekin nabaritu zuen.

Anes'entzat, Euskal idazlerik onena, Manuel Lekuona da; ez ornen du ikusi orrelako euskararik.


Euskaldunen arteko giroa, nolakoa gaur?, galdetuta; "anai arteko borroka daukagula", deritzaio.

EUSKERAZAINTZA taldearen sortzailentako kide dugu.

KARDABERAZ delako talde berria edo berritua, Anes'en etxean, mai eder orren inguruan sortu zen, Deba'n.

Dena dela, EUSKERAZAINTZA'KO, illeroko billera, bere etxean, Deba'n egi-ten da. Orko mayaren inguruan, euskara, jaun ta jabe, ta ainaiarteko giroa ezin ohea. Ortxen erakusten digu Anes'ek zen den euskal kulturaren alde lan gutziz ona egitea, baita anaiarteko biotza eukitzea.

LATXAGA



"DIARIO VASCO" IZPARRINGIAREN IL-TXARTELAK

Il-txartelak asko esan nai dute "DIARIO VASCO" izparringian. Uste baiño gelago daude euskaraz, ta orrek, erriaren aldetik, euskararen maitasuna agertzen du. Geientsuenak erriaren euskaraz idatzirik dire ta gutxinak euskara batuan. Orrexek arrituta uzten gaitu.

Gertakizun orren xetasunak ondo ezagutu nai genituen. Ortarako, zeatz eta meatz, gauzak nola diren jakitea onena. Il-txartelak, euskaraz idatziak, denak zenbatuko ditugu: egunerokoak, urtebetetzekoak eta eskeronezkoak.

Azterketa egiteko, illabete bat aukeratu dugu, Epaila; ogeitamaika egun ditu. Egunero jaso ditugu berriak.

Erriko euskara aldetik, -Hé gabeko "IL-TXARTELAK" zenbatzen ibilli gera.

-H'-ren bat agertzen ba da, naiz bakarra izan, "Batua"ren aldetik joango dire zenbatuak, naiz "il" -H'-rik gabe idatzi.

Ementxe datoz, egunetik egunara, xetasun guztiak.

EPAILA 1995

		IL-TXARTELAK EUSKARAZ	ERRIKO EUSKARAZ	EUSKARA BATUAÑ	EUÑDIK
LENENGO ASTEA					
ASTEAZKENA	1/111	16	12	4	75%
OSTEGUNA	2/111	3	2	1	66%
OSTIRALA	3/111	10	7	3	70%
LARUNBATA	4/111	29	17	12	64%
IGANDEA	5/111	12	6	6	50%

		IL-TXARTELAK EUSKARAZ	ERRIKO EUSKARAZ	EUSKARA BATUAN	EUNDIK
BIGARREN ASTEA					
ASTELENA	6/111	3	3	0	100%
ASTEARTEA	7/111	8	6	2	75%
ASTEAZKENA	8/111	13	6	7	46%
OSTEGUNA	9/111	11	8	3	72%
OSTIRALA	10/111	7	6	1	85%
LARUNBATA	11/111	18	10	8	55%
IGANDEA	12/111	18	15	3	83%
IRUGARREN ASTEA					
ASTELENA	13/111	11	10	1	90%
ASTEARTEA	14/111	6	4	2	66%
ASTEAZKENA	15/111	7	5	2	71 %
OSTEGUNA	16/111	15	9	6	60%
OSTIRALA	17/111	8	7	1	87%
LARUNBATA	18/111	22	11	11	50%
IGANDEA	19/111	11	8	3	74%
LAUGARREN ASTEA					
ASTELENA	20/111	8	6	2	75%
ASTEARTEA	21/111	9	6	3	66%
ASTEAZKENA	22/111	3	2	1	66%
OSTEGUNA	23/111	8	6	2	75%
OSTIRALA	24/111	11	8	3	71 %
LARUNBATA	25/111	18	12	6	66%
IGANDEA	26/111	5	4	1	80%
BOSTGARREN ASTEA					
ASTELENA	27/111	10	7	3	70%
ASTEARTEA	28/111	7	5	2	70%
ASTEAZKENA	29/111	13	6	7	46%
OSTEGUNA	30/111	9	6	3	66%
OSTIRALA	31/111	10	6	4	60%

OARRAK: ILLABETE OSOKO BERRI GARBIAK (EPAILA 1995)

Jasotako berri aundienak ementxe dijoaz.

- 29 egunez, eri euzkaraz idatzi dituzte il-txartel geienak.
- 2 egunez, il-txartel geienak euskara batuan daude.
- 2 egunez, berdin dabilta.
- Egun bat, txartel denak erri euskaraz daude.
- 339 dire il-txartel guztiak euskaraz.
- 226 dire erriko euskaraz-eundik 66,66%.
- 113 euskara batuan-eundik 34,34%.

Erriaren, barren barrengo naia agertzen dute xetasun abek. Lasai ta garbi esaten dute erriak zer na; duen.

Gaiñera, ona da jakitea, "DIARIO VASO" aldizkariaren ordenagailluan il-txartelaren eredu bakarra, euskara batuan dutela egiña. Erriaren euskaraz, il-txartelaren eredua, norberak ekarri bear du. Geienak, ikusten danez, erri euskararen eredua, patrikan artuta datoz, "DIARIO VASCO" izparringiaren leyati-llara. Alaxe esan zidaten bertako arduradunak. Zer esan nai dute berri guzti oyek?

LATXAGA

ESALDI JATORRAK

- Kalera al zoaz?

- ORAIGOZ EZ!

•••

- Erreka au lenago, ONDOTXOZ gorago zegon.

•••

- Iñork deitu al du?

- BAT EDON BATEK deitu du.

•••

- Astero, GEITXO; illero GUTXITXO = Amabostero, ondo.

•••

- Oso leke eta etxe dotorean bizi zerate, baña neretzat, URRUTITXO DAGO.

•••

- Jeiki, exeri, jauzi egiñaz dabillen aur bat ikusita:

- Aur onek, ORI EGON-EZIÑA DU!

•••

- Errian LAZKA-MATAZAK sortzen dira.

•••

- *Negarretan negarrez* dagoala.

•••

- AÑDI-MANDIKERIA.

•••

- Antzesten IBILLI DABIL.

•••

- Lagun-arte ona batetik eta bazkari ederra BESTEKO.

•••

- NAINON ETA NOÑGURA

•••

Atea jo ta beldurraz, ala dio etxekoandreak:

- ZEIN BA'DA ERE, kontuz ibilli bearko...

•••

- Gero urratu nai ba' dezu ere, arkatzez adirazi dizut.

•••

- Agur! BIOTZA-MAITE!

•••

- Agur! MAITE-BIOTZAK!

(Barruko orrialdean jarraitzan dira)

Bide-ertzean dagon zugaitz zar baten zuloan Jayotza ikusi-ta:

- BAKARREN BATEK jartzen du ba Jayotza ori or!

• _ •

- IÑORK GUTXIK DU ORREN BERRI.

• _ .

- Ez naiz lengoa, EZTA GUTXIAGORIK ERE!

• • •

- ESKU-UTSIK etzera joango, noski...

• • _

- GAIZKI-ESAKA ari dira.

• • •

- ASARRE BIZIAK ARTU ZITUAN.

• • _

Pastillas Andreu'ren iragarkia irratiz entzundakoan:

- Ez dituk ORAINGOTXEKOAK...

• • •

- Aspaldi etorri al ziñaten?

- ORAINTXE SARTZEA EGIN DEGU.

• • •

- Otz egiten al du?

- Ez! BERO-ANTXA DAGO.

• • •

- BEREALAKO BATEAÑ, an agertu zan.

• • •

Askotan esan oi dana:

- Itxoin zazu PIXKA BAT, PIXKA BATEAN esan bearrean.

• • •

BAT EDON BATEK egin du-ba au...

• • .

BATEN BAZTUK egin dute-ba au...

• • _

Asmoz aldatu eta etxera etorri bear zuan bati:

- Esayozu, ETORTZEN EZ IBILTZEKO!

• • •

- 40 urte besterik EZ ZITUAN, eta il egin da gizarajoa.

• • •

- IKUSI BESTERIK EZ DAGO.